

2021-01-08 EGUBAKOITZA / 888. ZENBAKIA / 21. URTEA
DEBAGOIENEN DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS TOKIKOM



Urbiako fondaren sarrera, eskiak aurrean daudela, eguaztenean. XABIER URZELAI

Elurrak arazoak sortu ditu, baina baita irudi ikusgarriak utzi ere

Zuri koloreko Gabonak izan dira aurtengoak, aspaldiko partez; astebururako, hotza eta elurra iragarri dute / 5

1916tik gaur egun arte atletismoak Bergaran izandako ibilbidea batu du Pili Arinek liburu baten / 26

Mikel Gonzalez: "2022ra arte dut kontratua, eta gero ez dut futbolari moduan jarraituko" / 38

SINADURAK

 IÑAKI ARTOLA ZUBILLAGA / 8	 JULEN ABASOLO / 18
 ANE ZUZUBISKAR / 11	 ANDER ETXEBERRIA / 48

Datorren astetik aurrera...
'Puntua' berriz buzoian.
[Aste honetan ez da banatuko.](#)

puntua



LEHEN ITXAROPEN-ZIZTADAK

Debagoienera ere heldu dira COVID-19ari aurre egiteko lehen txertoak; dagoeneko jarri dituzte Eskoriatzako Jose Arana, Arrasateko Iturbide eta Bergarako Mizpirualde zaharren egoitzetan / 2



Goiko argazkietan, Bergarako Mizpirualde egoitzan txertoa jartzen; behekoetan, Arrasateko Iturbiden. XABIER URZELAI ETA EIDER MONCAYOLA



Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS

www.multiópticas.com

189 egoiliarrek eta 96 langilek hartu dute txertoa Debagoienean

Eskoriatzako Jose Aranan izan ziren txertoa hartzen lehenak, abenduaren 31an, eta asteon hartu dute Arrasateko Iturbiden eta Bergarako Mizpirualden. Aretxabaletako eta Oñatiko egoitzetan kasu aktiboak dituzte, hortaz, txertoa hartzeko "zain" daude

Maialen Santos ARRASATE

Abenduaren 28an ekin zioten koronabirusaren aurkako txertaketa planari, eta, ordutik hona, Debagoieneko adineko egoitzetan dauden 189 egoiliarrek eta horietan lan egiten duten 96 langilek hartu dute txertoa.

Eskoriatzako Jose Arana izan zen Pfizer eta BioNTech konpainiek garatutako txertoa hartzen lehena; abenduaren 31n ziztatu zituzten bertan bizi diren egoiliar guztiak -26-, eta baita une hartan lanean ari ziren bederratziz langileak ere.

Arrasateko Iturbiden, bestalde, martitzen honetan hartu zuten txertoa. Bertako 85 egoiliarretako 84k hartu zuten -baita uko egin zion-, eta baita 41 langilek ere. Egoitzako zuzendari Olatz Etxabek adierazi zuen aurtengo erregeen "oparia" izan dela egoiliarrentzako txertoa. Behin lehena jarrita, aste gutxiren kabuan "immunitate osoa" lortuko dutela gehitu zuen: "Hiru aste barru bigarren dosia jasoiko dugu, eta hura jartzean %100ean egongo gara immunitatuta. Beraz, otsaila hasiera inguruan lortuko dugu hori". Jose Ramon Abasolo egoiliarra izan zen txertoa hartzen lehena, eta azaldu zuen txertoa "noiz helduko zain" izan zela ordura arte. Ildo beretik mintzatu zen Nieves Altuna egoitzako langilea, eta uste du "aukera zoragarria" dela txertoa: "Lehen olatuak gogor jo zuen egoitzan, eta orain normaltasunera bidean gaude".

Azkenik, Bergarako Mizpirualde egoitzan atzo izan ziren txertoa jartzen. 88 egoiliarretatik 79k hartu zuten -hiruk arrazoi medikuengatik ez zuten hartu, eta seik uko egin zioten-. Langileei dagokienez, 46k erabaki zuten txertoa hartzea.

Bailarako gainontzeko egoitzetan, Aretxabaletako GSR Debagoienan eta Oñatiko San Martinen txertoa hartzeko "zain" daudela adierazi dute Debagoieneko ESItik; izan ere, egoitza horietan koronabirus kasu aktiboak dituzte gaur-gaurkoz.

Gipuzkoako Foru Aldunditik adierazi dute egun hauetan soilik adinekoen egoitzetan ari direla txertoa jartzen, "lehentasuna direlako". Hori horrela, eguneko zentroetako adinekoei aurrerago iritsiko zaie txanda.

Azkenik, egoitza bakoitzean txertoa hartzeko garaian lanean zeuden langileek izan dute hori hartzeko aukera, eta gainontzekoek euren herriko osasun etxera joan beharko dute, baina zehazteke dago horretarako data.

Zahar etxeetan, 49 kasu aktibo
Gipuzkoako Foru Aldundiak eguaztenera arte emandako datuen arabera, 49 kutsatu daude, guztira, eskualdeko zahar etxeetan: 46 Aretxabaletako GSR Debagoienan eta hiru Oñatiko San



Jose Ramon Abasolo Arrasateko Iturbide egoitzako egoiliarra. XABIER URZELAI

Martin egoitzan. Nabarmentzekoa da, gainera, abenduaren 26tik urtarrilaren 6ra bitartean hamalau egoiliar hil direla Aretxabaletako zentroan, eta 32 sendatu. Eguaztenean ere Oñatiko egoitzan hildako baten berri eman zuten; pandemia hasi zenetik izan den lehenbizikoa.

Aita Menni ospitalean, bestalde, koronabirus kasu aktiborik ez dute eguenera arte, GOIENARI azaldu diotenez.

Azken bi asteetan 219 kutsatu
Abenduaren 24tik atzora arte, azken bi asteetan, 219 debagoien-dar kutsatu ditu koronabirusak,

"TXERTOIA NOIZ HELDUKO ZAIN EGON NAIZ ORAIN ARTEAN, HARTZEKO GOGOZ"



JOSE RAMON ABASOLO
ARRASATEKO ITURBIDE
EGOITZAKO EGOILIARRA

"TXERTOIA HARTZEA AURTENGO ERREGEEN OPARIA IZAN DA EGOILIARRENTZAKO"



OLATZ ETXABE
ARRASATEKO ITURBIDE
EGOITZAKO ZUZENDARIA

"POZIK GAUDE, AUKERA ZORAGARRIA ESKAINTZEN DIGU TXERTOAK"



NIEVES ALTUNA
ARRASATEKO ITURBIDE
EGOITZAKO LANGILEA

LANBIDEko 2021eko urtarrila doako ikastaroak

- FME0308 - Fabrikazio mekanikoko produktuen diseinua
- IMAQ0108 - Tresneria industrialaren mantentze eta muntatze mekanikoa
- FME0109 - Produktzioaren kudeaketa fabrikazio mekanikoan
- FME0209 - Mekanizazio, konformazio eta muntaketa mekanikoko produktzioa
- ELEM0110 - Industria-automatizazio sistemen proiektuak garatzea
- FME0109 - Txirbil-harroketak bidezko mekanizazioa
- FME0409 - Urraduraren, elektrohidraduraren eta prozedura berezien bidezko mekanizazioa
- FME0411 - Pieza polimerikoak eta aleazio arinak ekoizteko moldeak fabrikatzea

Informazio Saioa

Urtarrilak 12

15:00 - 16:00

Iturripeko campusean / **Online**
(Loramendi 4 kalea, Arrasate)

Eman izena



<https://forms.gle/jbVbEoCXrwebgC8ZA>

Informazio gehiagorako...

Tel. 664 265 068
e-mail: cursoingenieria@mondragon.edu
www.mondragon.edu/cursos/urtero-ikastaroak



Enfrentatu, argi, lan onak



eta, hori horrela izanda, mar-txotik atzora bitartean dagoe-neko 4.714 lagunek izan dute gaitza bailaran. Hildakoak, bes-tetik, zazpi izan dira azken bi asteetan: lau Arrasaten, bi Ber-garan eta bakarria Aretxabaletan.

Joan den eguenetik eguazten honetara arte, 92 kasu positibo hauteman dituzte eskualdean; horietatik 37, Arrasaten. Aretxabaleta izan da bigarren herri kolpatuena; 16 kasurekin. Ber-garan, bestetik, 14 kutsatu erre-gistratu dituzte, Eskoriatzan 12 eta Oñatin ere 12. Aipatzekoa da, gainera, Elgetan, Aramaion eta Leintz Gatzagan ez dutela kasu berririk hauteman.

Bestetik, aurreko astean, abenduaren 24tik 30era bitartean, 127 positibo berri baieztatu zituzten Debagoienean. Arrasate izan zen, enegarrenez, kasu berri gehien zenbatu zituen herria: 51. Eskoriatzan 22 kasu baieztatu zituzten eta Oñatin, 17. Aldiz, 16 kasu hauteman zituzten Aretxabaletan eta Bergaran. Aramaio izan zen kutsatu-rik bariko herri bakarria. Horrenbestez, azken bi asteetan ez dute kasurik zenbatu herrian.

Positibo kasuak

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko asteen	Positiboak abenduan	Positibo metatuak	Positiboak mila biztanleko
Arrasate	37	51	469	2.094	94,83
Aretxabaleta	16	16	110	436	61,58
Oñati	12	17	91	598	52,15
Bergara	14	16	119	1.058	70,36
Eskoriatza	12	22	63	247	60,20
Antzuola	1	1	8	148	67,92
Aramaio	0	0	18	75	50,68
Elgeta	0	3	11	51	45,09
Gatzaga	0	1	5	7	28,00
GUZTIRA	92	127	894	4.714	72,74

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

Gauzak horrela, azken hiru asteetan beheranzko joera hartu dute eskualdean zenbatutako kutsatu berriek.

Horretaz gain, abendu osoan zehar 894 debagoiendar kutsatu ditu birusak; aurreko hilabetean, azaroan, bikoitza izan ziren: 1.707, zehazki. Azken hilabetean

kutsatu gehien zenbatu dituen herria Arrasate izan da -469-, eta Bergaran eta Aretxabaletan ehundik gora kutsatu atzeman dituzte: 119 eta 110. Azpimarratzekoa da herri guztietan nabarmen egin dutela behera positibo berriek abenduan, eta Leintz Gatzaga izan dela herri guztietan

salbuespen bakarria; izan ere, bost kasu zenbatu dituzte herri hartan, eta azaroan, bakarria.

Debagoieneko Ospitaleari dagokionez, atzora arte, bederatziz ingresatu daude birusak jota.

"Egoera kezkarria"

Martitzenean egin zuen bilera LABiren batzorde teknikoak uneko egoeraren balorazioa egiteko. Egoera epidemiologikoa "kezkarria" bada ere "aparteko alarma-zantzurik" ez dagoela adierazi zuten, eta ez zuten neurri berririk hartu. Era berean, Iñigo Urkullu lehendakariak eguaztenean adierazi zuen EAEko egoera "oso larria" dela, eta litekeena dela datozen egunetan neurri gogorrak hartu behar izatea. Gaur bertan eta astelehenean bilduko da berriro LABi, neurriak berrikusi eta, beharra egonez gero, berriak hartzeko.

Ostalaritza itxita Eskoriatzan

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak 5.000 biztanletik gorako herrietan erabiltzen duen semaforoaren sistemaren arabera hobera egin du eskualdeko bilakaera epidemiologikoa; izan

ere, azken aste honetan gorritik margotutako herrien zerrendatik irten dira Arrasate eta Aretxabaleta, eta herri laranjen zerrendara batu dira. Bestetik, Bergara eta Oñati horiz margotuta ageri dira atzora arte.

Datuak kontuan hartuta, martitzenean ostalaritza establezimenduak irekitzeko baimena eskuratu zuten arrasatearrek, ia bi hilabete atek itxita izan ostean -azaroaren 5ean hartu zuen itxeko erabakia Jaurlaritzak-. Hori horrela, Arrasateko Ostalariak taldekoek bilera egin dute astean, egoera nola dagoen aztertzeko (Ikus 12. orria).

Aretxabaletan, bestetik, gaur zabaldu ahalko dituzte establezimenduak, intzidentzia-tasak hobera egin du-eta herri horretan. Hain zuzen, Aretxabaletaren kasuan, abenduaren 12an zabaldu zituzten atek, baina, ondoren, igo egin zen intzidentzia-tasa, eta abenduaren 17an itxi beharrean izan ziren berriro.

Azkenik, Eskoriatzan 828,66ko intzidentzia tasa erregistratu zuten atzo, eta, horrenbestez, taberna eta jatetxeek itxita jarraitu beharko dute oraindik.



ZURE ETXE BERRIA NATURAN IKUSPEGI ONENEKIN

PREZIO TASATUKO
ETXEBIZITZAK

175.000€

-TIK AUERRERA*

*zergak ez daude barne

Garajea eta trastelekuak barne



3 eta 4 logelako etxebizitzak
Duplex atikoak



Etxebizitzak pertsonalizatzen dira

ETXEBIZITZAK
PREZIO LIBREAN

258.300€

-TIK AUERRERA*

*zergak ez daude barne

Garajea barne



Terraza zabalak



Ziurtagiri energetiko altua

KONSTRUKZIOA:



900 907 407

www.kurtzebarribizilekua.eus

ALTAMIRA



Presoei babesa herririk herri, Bilbon egin ordeztu

Sarek urte hasieran Bilbon egiten duen manifestazioa herririk herri egingo da aurtur; zapatuan, 17:30ean. "Sakabanaketa politika" amaitzea eta gaixoak edo adindunak diren presoak askatzea eskatuko dute, besteak beste, segurtasun neurriak "zorrotz" betetz

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

Pandemiak utzitako testuingurua ikusita, egoerara moldatzeko saiakera egin du Sarek. Bilbon manifestazio jendetsua antolatzeke zailtasunak ikusirik, herririk herri antolatzea erabaki dute aurtur. "Aurtengo egoera ezohikoa dela eta, urtarrilaren 9an ezingo gara Bilbon elkartzu. Horren ordeztu, gure herri eta auzoetan elkartuko gara", azaldu dute Sarek ordezkariak.

"Ez da urte erraza izaten ari inorentzat. Etxean itxita egotea egokitu zaigu, gure senideengandik urrun, hauekin pantaila atzean edo distantzia bat mantenduz komunikatu behar izan dugu eta musuak, laztanak eta besarkadak debekatu zaizkigu. Ekonomikoki ere urte gogorra izaten ari da. Aipatutako egoera gogor hori are gogorragoa izaten ari da, jada, guk aurtur bizi izan duguna aurrez bizi izan duten presoen eta iheslarien senideentzat".

Bailarako presoen egoera

Debagoiendarrak edo debagoiendarren senitarteko diren bederatziko preso daude une honetan. Arrasaten, Josu Arkauz aske geratu zen urrian, 29 urte kartzelan pasa ostean, eta orain, Unai Parot da preso dagoen he-



Arrasateko Sarek martitzenean egindako agerraldia. X.GOROSTIDI

rritar bakarra. Puertoko espetxean dago, 1.000 kilometroko distantziara, eta 30 urteko zigorra darama. Oñatin, Xabi Usandizaga aske geratu zen udan, eta bi dira preso jarraitzen duten oñatiarrak: Joseba Arregi Martutenera gerturatu dute eta presoen kolektiboko kide adindunena da, 74 urterekin; Angel Telleria El Dueso espetxera hurbildu dute, eta larri dauden gaixoetako bat da. Aretxabaletan, Garikoitz Garcia presoak Picasentetik Zaballara gerturatu zuten; 11 urte daramatza kar-

tzelan, eta lehen gradu jarraitzen du. Eskoriatzan, Maixol Iparragirre dago preso. Uztailen epaitu zuten lehen aldiz Espainian, eta 122 urteko zigorra ezarri zioten. Hainbat epaiketa geratzen zaizkio egiteke –guztira hamabi zituen Espainian–, eta Sotoko isolamendu moduluan dago bakartuta, "erregimen zorrotz eta itxi" batekin. Gatzagan Alicia Saez de la Cuesta geratzen da preso. Castellotik Logroñora eramane berri dute, eta "bi alaba motxiladunen ama da". Preso bergararrik ez dago uneotan,

baina bergararren hiru senitarteko daude kartzelan: Lexuri Gallastegik Almerian jarraitzen du, 960 kilometro; Aitzol Maurtua Huelvatik Dueñasera lekualdatu dute; eta Oskarbi Jauregi Coruñatik Martutenera hurbildu dute.

Aldarrikapen nagusiak

Zapatuan –eta handik aurrera ere– aldarrikapen hauek egingo ditu Sarek: presoak Euskal Herrira hurbiltzea, "urruntze-politika amaitzeko eta senideen zigor erantsia eteteko"; presoei gradu-progresioa ahalbidetzea, "birgizarteratze eta etxeratze prozesua egin dezaten. Gehienak lehen gradu jarraitzen daude eta honek ez ditu bestelako neurriak ahalbidetzen"; larriki gaixo diren presoak etxera ekartzea, "dagoen artatzea konfiantzako medikuaren jarraibideekin jaso ahal izateko –horien artean dago Gotzon Telleria–"; preso adindunak etxeratzea, "euren osasuna eta bizitzeko eskubidea lehenetsiz –Joseba Arregik 74 urte ditu eta Gotzon Telleriak eta Unai Parotek, 60 urtetik gora–"; aita, ama edo biak espetxean dituzten "haur motxiladunek gurasoei bizitzeko duten eskubidea errespetatzea –Alicia Saez de la Cuestaren, Oskarbi Jauregi eta Aitzol Maurtuaren kasua da–"; eta Frantzia betetako zigor urteak Espainiako kondenetan kontuan hartzea –Marixol Iparragirrek 15 urte egin zituen Frantzia–.

Intxortara igoera

Urteko lehen domekako ohiturari eutsiz, Elgeta, Arrasate, Bergara, Elorrio eta Oñatiko lagunak Intxortara igo ziren urtarrilaren 3an, presoei atxikimendua erakustera.

Debagoiensean antolatutako mobilizazioak

Arrasate

17:30 Arimazubitik eta San Isidro ermitatik manifestazio zutabe bana abiatuko da, Elma etorbidean batzeko; bertan 300 metroko mosaiko bat osatuko dute. Hitzartze bat egin ostean, Sorginak taldeak abesti bat joko du.

Bergara

17:30 Plazan batu eta manifestazioa egingo dute. San Martin plazan ekitaldi bat egingo dute eta manifestazio amaieran Brigade Loco taldeak kontzertua joko du.

Oñati

17:30 Manifestazioa, Eltzatib abiatuta.

Aretxabaleta

17:30 Herriko Plazan ekitaldia eta mosaiko argitsua egingo dute.

Eskoriatza

17:30 Elkarretaratzea herriko plazan eta ondoren ekitaldia.

Antzuola

17:30 Manifestazioa eta ekitaldia, Herriko Plazatik hasita.

Elgeta

17:30 Kontzentrazio girotua Herriko Plazan.

23 langabe gutxiago abenduan, baina 272 gehiago 2020an

Bailarako datua zertxobait hobetu da azken hilabeteen, baina langabeen kopurua %11 igo da iazko abendutik

X.G. DEBAGOIENA

Abendua bukatzean, hastean baino 23 langabe gutxiago zeuden bailaran: guztira, 2.723. Langabezia tasa %8,74an kokatu du horrek. Herri guztietako bilakaera, baina, ez da bera

izan: Antzuolan, Aretxabaletan, Arrasaten eta Elgetan behera egin du langabe kopuruak; Armaion, Bergaran, Eskoriatzan, Leintz Gatzagan eta Oñatin, aldiz, igo egin da. Urteko azken hilabetea beherakadarekin amai-

tu arren, orokorrean, 2020a Debagoiensean ez da urte ona izan enpleguarentzat; izan ere, 2019ko abenduan, 2.451 langabe zeuden gurean, orain baino 272 gutxiago. Langabezia tasa, bestalde, ia 0,9 puntu igo da urtebetean.

Gauza bera gertatu da Euskal Autonomia Erkidegoan langabeziak izan duen bilakaerarekin: hala, abendua hasi baino 3.196 langabe gutxiagorekin bukatu zen, baina 2020a bera hasi baino 15.078 langabe gehiagorekin.



Langile bat, jardun betean. GOIENA

Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, Euskal Autonomia erkidegoko hiruretan jaitsi da langabe kopurua abenduan, baina, era berean, hiruretan egin du gora 2020an langabeziak. Gipuzkoan, adibidez, azaro bukaeran baino 781 langabe gutxiago zeuden abendu amaieran; langabeziak, baina, %13,55 egin zuen gora urtean zehar. Confedebasketik 2021ean enpresak orain arte galdutakoaren zati bat berreskuratzen hasiko direla, baina "erritmo motelean".



Pertsona bat, Udalatxen, eskiekin salto egiten. ANDER ARANZABAL



Elgetako bizilagunak izotza kentzeko lanetan. LARRAITZ ZEBERIO

Elurrak eta paisaia zuriek ez dute alde egin nahi

Aspaldiko partez, zuri koloreko Gabonak izan dira Debagoienera; mendateetako lehen malutak herrietara iritsi ziren, eta asko izan dira paisaia zuriez gozatu dutenak. Asteburuan hala jarraituko du, zero azpiko tenperaturak espero baitira bailaran

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

Sare sozialak elurrez jositako argazkiekin bete dira, eta elurra izan da azken asteetako protagonista nagusi. Leku batzuetan gehiago, beste batzuetan gutxiago, baina bailarako herri guztiak zuri kolorez bete dira. Elgetan, esaterako, urtarrilaren 2an 10 zentimetro elur pilatu ziren, eta, bi egun geroago, 19 zentimetroko elur-geruza pilatu zen Domingo Iturbe kalean bertan.

Aisialdi zuria

Opor egunak izanda, asko izan dira berokiak hartu eta elurraz gozatzeko hautua egin dutenak; asteburuan eta Errege egunean, batez ere. Gatzagan, adibidez, gaztetxo ugari aritu ziren astelehenean zelai zurietan behera botatzen. Asko dira eskiatzea gustuko duten debagoiendarrak. COVID-19aren bueltan ezarritako mugikortasun mugak direla eta, ohiko eski pistetan aritu gabe zeuden gehienak, baina egunotan botatako elur kopuruarekin elur gosea asetzeko aukera izan dute, urrutiraino joan gabe. Urbian eta Udalatxen, adibidez, lagun ugari aritu dira

snow taulekin eta eskiekin, Formigalen egongo balira bezala.

Arazoak errepedeetan

Ohi bezala, elurrak hainbat zailtasun eragin ditu errepedeetan, eta elurra kentzeko makinek ez dute atsedetik izan. Urtarrilaren 3an, adibidez, Arantzazu eta Elosua itxita egon ziren, izotzagatik, eta gainontzeko errepedeetan kontuz gidatzeko gomendioa egiten zuen Trafiko Sailak. Elgetan, adibidez, autogidari ugari arazoak izan zituzten joan den asteburuan. Bueltan eman ezinda aritu ziren asko, beste batzuek kateak ipini behar izan dituzte, sartutako zuloetatik ateratzeko, eta beste asko ez atzera ez aurrera gelditu ziren, tresna egokirik gabe aritzegatik. Antzeko irudiak Udalan ere, non une batzuetan errepedea moztu egin zuten auto pilaketak ez areagotzeko.

Zero azpitik asteburuan

Euskalmeten aurreikuspenen arabera, zero azpiko tenperaturak izango dira, eta elurra egitea ere aurreikusten da; batez ere, domekan eta astelehenean.





Ekarpena egin duten laborategiko presidente Iratxe Esnaola eta Iñigo Iñurrategi, Olaso Dorrean, asteon. MAIALEN SANTOS

Pandemiak utziko dituen ondorioak eta erronkak, liburu batean jasota

Euskal Herriaren garapenean estrategikoak izango diren esparruetan pandemiak utzitako ondorioak eta etorkizunerako erronkak aztertu dituzte 30 arlotako adituek. Bergarako Telesforo Monzon laborategiak liburu batean jaso ditu ekarpen horiek

Maialen Santos BERGARA

COVID-19 eta ondoren zer? izeneko liburua argitaratu berri du Bergarako Telesforo Monzon Euskal Herrigintza Laborategiak; Olaso Dorrea Fundazioaren ideia laborategiak, alegia. Pandemiak Euskal Herrian izango duen eraginari buruzko hausnarketa eta etorkizunera begirako erronkak zeintzuk izango diren jaso dituzte horretan.

Iratxe Esnaola Olaso Dorreko presidente eta TM eLab-eko koordinatzaileak azaldu du laborategiaren helburu nagusia dela "ekarpen kualifikatuak" egitea Euskal Herriarentzat estrategikoak diren eremuetan, eta, hain zuzen, liburuaren esentzia ere bera izan dela. Ekarpene horiek egiteko Euskal Herriko eta nazioarteko eremu askotariko profesionalak saretu dituztela adierazi du Esnaolak: "Eremu

ezberdinetako adituei eskatu genien aztertzeo norberaren esparrutik egoera berri honek zein ondorio dakartzan, Euskal Herriarentzat egoera honetan zer den estrategikoa...".

Hastapenak, konfinamenduan

Konfinamendu sasoian jasotako ekarpenekin sortu dute liburua, eta klima, zaintza, euskara, kultura, digitalizazioa, ekonomia, kooperatibismoa, hezkuntza eta halako gaiak jorratu dituzte. "Liburu honek izan nahi du herri honek behar duen eztabaida zabal baterako espazio bat. Eta

"LIBURUAK IZAN NAHI DU HERRIAK BEHAR DUEN EZTABAIDARAKO ESPAZIO BAT"

IRATXE ESNAOLA

liburua amaituta ere uste dugu hau hasiera bat besterik ez dela, eta inoiz baino argiago ikusten dugu herri gisako eztabaida inoiz baino beharrezkoagoa dela".

Azpimarratzekoa da hasiera batean ez zituztela edukiak "liburu forman" ikusten, presidentek azaldu duenez: "Gogoetarako espazio birtual bat proposatu genuen konfinamendua hasi eta astebetara, eta gogoeta birtuala osatuz joan ginen, ekarpenak jaso ahala *telesforomonzonlab.eus* webgunean argitaratzen". Sare sozialetan ere eskegi zituzten ekarpenak. Eta libu-

"OSASUN KRISIAK HEZKUNTZAK ZITUEN GABEZIAK AZALERATU EGIN DITU"

ZIGOR IBARZABAL

30 ekarpen batzen dituen liburua

Telesforo Monzon Euskal Herrigintza Laborategiak irailean aurkeztu zuen *COVID-19 eta ondoren zer?* liburua.

Eremu askotariko profesionalak idatzitako 30 ekarpen jaso dituzte, guztira. Olaso Dorreko presidente eta laborategiko koordinatzaile Iratxe Esnaolak digitalizazioaren inguruan jardun du, eta laborategiko zuzendari Urko Aiartzak, aldiz, Euskal Herriak munduan duen tokiaz. Horietaz gain, beste bi debagoiendarrek ere hartu dute parte liburuan: Zigor Ibarzabal Ikastolen Elkarteko Hezkuntza arduraduna da, eta, hain zuzen, hezkuntzari buruz idatzi du. Iñigo Iñurrategi, aldiz, kooperatibismoari buruz aritu da, Mondragon Taldeko Heziketa Kooperatiboko koordinatzailea baita. Guztiek egin dute euren eremuko gogoeta sakona.



Liburuaren azala. ELKAR

rua horren emaitza da: "Bilduma oso oparoa geratu zitzaigun eta izen-abizen esanguratsuak zeuden ekarpenen atzean. Hala, liburua kaleratzea proposatu zigun Elkar argitaletxeak".

Fokua etorkizuneari jarrita

Etorkizunari begira ere jarri dira liburuan. "Pandemiak ondorio batzuk ekarriko ditu, eta arlo bakoitzeko erronkak zein diren azaleratuko ditu. Horrek erakusten du nahiz eta konfinamendu garaian izan ziren gogoetak izan, oraindik gaurkotatzen handiko ekarpenak direla, erronkek jarraitzen dutelako berdinak izaten". Gehitu du "gakoak" dagoela erronka horiei nola egiten zaien aurre; horiei aurre egiteko hartzen den bidean.

Bi debagoiendar tartean

Liburuan ekarpena egin dutenen artean daude Zigor Ibarzabal oñatiarra eta Iñigo Iñurrategi bergarra, eta hezkuntzaz eta kooperatibismoaz jardun dute, hurrenez hurren.

Ikastolen Elkarteko Hezkuntza arduradunak aztertu du pandemiak nola eragin duen arlo horretan, eta azaleratu dituen arazo eta gabeziak deskribatu

ditu. "Nahiko agerian geratu da presentzialitatearekiko daukagun dependentzia. Ikusten da eskola antolaketa, ordutegiak, ikas arloak... kudeaketa ikuspegitik gauzak errazten dituela, baina ez dela hainbeste ikaslearen beharretan zentratutako antolaketa". Aldiz, uste du irakasleen eta eskola baliabideen antolaketa eraginkorragoa bilatzeko egindakoak direla horiek.

Gehitu du osasun krisiak orain arte hezkuntzak zituen gabeziak "azaleratu" dituela. Halere, aitoritu du liburuan "ikuspegi orokor" eta "positibo" batetik egiten duela berba, eta aukera bezala planteatzen dituela gabeziak, zailtasunak eta erronkak.

Iñurrategi, oster, kooperazioaren "ikuspegi zabala" lantzen saiatu da, elkarlana artikulatzeko euren esperientziatik berba eginda. "Arlo honetan bi plano ezberdin aztertu behar dira. Bata da emaitza: ze emaitza mota ari diren lortzen kooperazio mota ezberdinak arlo bakoitzean, eta bestea da nola ari den funtzionatzen kooperazioa bera".

Gaineratu du etorkizuneko egoera konplexuetan konbinazio "oso interesgarria" izango dela interkooperazioa; lankidetz, alegia. "Eta ez da bakarrik kooperatiba formula. Lankidetz mota ezberdinak daude, baina guk duguna frogatuta dago. Lana elkarrekin egitea, emaitza konpartitzea eta herrigintza eraikitzea modu horretan".

"LANKIDETZA MOTA EZBERDINAK DAUDE; KOOPERATIBISMOA FROGATUTA DAGO"

IÑIGO IÑURRATEGI

DEBAGOIENeko EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

"Guztion eskola, Guztion artean"

goieskola

debagoieneko euskal
eskola publikoa



MATRIKULAZIOA ZABALIK



GOIESKOLA@GMAIL.COM

605773992



URTARRILAREN 18TIK 29RA

HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA ETA BIGARREN HEZKUNTZA
INFORMAZIO BILERAK ETA ATEAK ZABALIK

baikara

Egitea eta Giza Edukierako

ARAMAIO - San Martin Eskola
ANGIOZAR - Herri Eskola
ELGETA - Herri Eskola
ANTZUOLA - Herri Eskola

INFORMAZIO ZUZENA
ESKOLAN BERTAN

BERGARA
San Martin Agirre Eskola
Ipintza Institutua

Bisita gidatuak urtarrilean zehar
Hitzordua hartzeko: 943 76 21 47
Urtarrilak 19, 20 eta 21. 18:00 / 19:00

ESKORIATZA
Luis Ezeiza Eskola

Bisita gidatuak
urtarrilaren 18tik 29ra.
Hitzordua hartzeko: 943 71 49 38

ARETXABALETA
Kurtzebarri Eskola
Kurtzebarri Institutua

Bisita gidatuak urtarriaren 16an
goizez. Hitzordua: 943 79 00 49
zuzendaritza@kurtzebarri.eus
Urtarrilaren 20an, 18:00etan,
Arkupeko Zaratia aretoan.

ARRASATE
Arrasate Herri Eskola

Bisita gidatuak urtarriaren 18tik 29ra
Hitzordua hartzeko: 943 79 77 74 goizez
Bisita gidatuen ordua:
16:45etik 18:00ak arte

Arrasate Institutua

Institutuan urtarrilak 18, 19 eta 20. 18:00
Hitzordua hartzeko: 943 89 94 78
Aramaion urtarrilak 21 18:00

URGAIN OÑATI
Errekalde Herri Eskola

Bisita gidatuak urtarrilak 16an. Hitzordua:
www.errekaldelhi.hezkuntza.net Tf: 943 89 91 34
zuzendaritza@urgainerrekalde.eus

Zuazola Institutua

Urtarrilak 13. Ikasleak 17:00 Gurasoak 18:00

HHI-EPA ARRASATE
HHI-EPA BERGARA

MATRIKULA ZABALIK



ZABALIK

IÑAKI ARTOLA ZUBILLAGA

Bikain

2020ak zerbait pozgarria ere ekarri digu bergararroi. Euskararen erabilera eta kudeaketa saritzen duen Urrezko Bikain ziurtagiria jaso berri du Bergarako Udalak.

Urte askotako ahalegin handia dago Jaurilaritzak egiten duen aitortza horren atzean. Lau eragile edo zutabe azpimarratuko nituzke: batetik, udal langileak, izandakoak eta direnak, eraldaketa honen ahaleginarekin hasi zirenak eta lekukoa hartu dietenak. Bestetik, Udalaren ardura izan duten udal talde eta alderdi guztiak, herri-asmo eta nahi honi bultzada eman diotenak. Nola ez, herritar guztiok, helburu hau geurea egin dugulako eta geure aldetik ere jarri dugulako. Azkenik, baina ez azken, 1986tik hona, euskara teknikari gisa aritu diren langile profesional eta militanteak. Guztona da lorpena, eta guztiok harro sentitzeko modukoa. Zorionak bihotzez!

Ziurtagiria jasotzeaz bat, udal ordezkariak adierazi dute agiria bera ez dela helburu, tresna baizik, eta aurrera jarraitu behar dugula hizkuntzaren normalizazioaren bidean.

AURRERA JARRAITU BEHAR DUGU HIZKUNTZAREN NORMALIZAZIOAREN BIDEAN

jarduteko aukera izatera iritsi garela. Honek ikuspegi soziolinguistikotik berebiziko garrantzia du.

1982ko Normalizazio Legearen garapenari bide luzea geratzen zaio; eskolak ahalegin handia darama egina, baina egiteko asko dago. Administrazio batzuetan bide ederra egin da, baina beste batzuetan ez hainbeste, kultura arloan eta komunikabideetan... Nabaria da, hala ere, eta hala azpimarratu da Euskaraldiaren azken ekitaldian, hurrengo ahalegin kolektiboa lan mundua eta jarduera ekonomikoa euskalduntzeari begira jarri behar dugula. Honetan ere, Bergara eta, oro har, bailara osoa aitzindari izaten ari da azken urteetan, baina uste dut, indar handiak metatu beharko ditugula gure unibertsitateetatik eta lanbide eskoletatik, lan mundura euskaraz trebatuta iristen zaizkigun gazteak, lan esparru horretan, hizkuntza eraldaketaren protagonismoa eta babesa izan dezaten. Horra hor bada hurrengo erronka kolektiboa. Jardun dezagun bikain!

Halaxe da! Baina, aldi berean, une historikoa ere bada Bergararentzat, eta hau jarri nahi nuke balioan; lehen aldia da herritarrok gure toki administrazioarekin euskaraz, ahoz zein idatziz, edozein dela ere tramitea,

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

22352

MIKEL P. ANSA

HTTPS://LABUR.EUS/J8LPI

'BERRIA'-N ARGITARATUA

Simone Chrisostome zuen izena, Vilalta ezkon deitura. Urtarrilaren lehen hil zen, 97 urte zituela, Hendaian.

Naziek Bigarren Mundu Gerraren garaian Alemaniako kontzentrazio esparruetara deportatu zituzten dozenaka euskal herritar ezkertiar haietako bat zen; seguru asko, oraindik bizi zen azkenetakoa. Euskal Herriko historian ahaztuak izan diren milaka horietako bat.

Memoria historikoa 1936ko gerrarekin hasi eta bukatzen

dela ematen du, baina historiaren zokondoetan badira armiarma sare gehiago.

Ipar Euskal Herriko historiari, bereziki, oso leku eskasa eman zaio Euskal Herrian. Zer esanik ez eskoletan. Are gehiago bestetan.

Lehen Mundu Gerra ez da existitzen, dagoeneko, euskal herritarren memoria kolektiboetan, eta Bigarren Mundu Gerrako naziak Hollywoodengatik ezagutzen dira.

Chrisostomerenak bezalako historiak, fikziozko film askok baino gidoi harrigarriagoa dutenak, ez dira ezagutzen: 19 urterekin

atxilotua, aitarekin erresistentzian hasi zelako; Ravensbrueckeko kontzentrazio esparruan atxikia; mirariz salbatu zena: 30 kilo baizik ez zituen errusiarrek salbatu zutenean.

Hendaia Herriko Etxeak ohore egin zion orain duela bi urte, eta "heroi" gisa aitortu zuen.

Baina, akaso, *heroi* gutxiago eta pertsona gehiago behar ditu herri honek; eta pertsona horiek pentsatzen zutena ezagutzea.

"Garai nahasiotan, ez dago lekuri gorrotoarentzat eta xenofobiarentzat", esan ohi zuen Chrisostomek, nazientzat 22352 preso zenak.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Ingelesezkoa oinarri osatu dut euskarazko Wikipedia"

INÁZIO IRIZAR EUSKARAZKO WIKIPEDIA OSATZEAGATIK SARITUA

Maialen Santos OÑATI

Euskarazko Wikipedia osatzen lau urte daramatza Inázio Irizar oñatiarrak. Euskal Wikilarien Kultura Elkarateak antolatutako lehiaketan hartu du parte aurren, eta *Funtsezko artikulak* atalean egindako lanagatik saritu berri dute.

Nola hasi zinen lan horretan?

Erretiroa hartu nuenean hasi nintzen. Beti aritu izan naiz blogetan idazten, eta, beraz, Interneten ibiltzen ohituta nago. Wikipediako erabiltzailea ere banintzen, eta ordu libreetan hasi nintzen gauzak sareratzin.

Euskarazko Wikipedian hutsunea zegoen?

Hala da. Baina egia da honek ez duela amaierarik; euskarazko Wikipediak 380.000 artikulua inguru ditu eta ingelesezkoak, aldiz, 6.000.000. Ni bezala jendea lan honetan hasiko balitz ere ez gineteke inoiz kopuru horretara iritsiko; izan ere, ingelesezko munduko entziklopedia handiena da.



Inázio Irizar, Albert Einstein fisikariaren artikulua osatzen. I.I.

Noiz aritzen zara Wikipedian?

Etxean aritzen naiz, denbora librean dudanean. Erretiratu naiz, eta ez daukat orturik ez azientaririk. Borondatezko lana da hau, ordutegirik gabekoa. Eta beti esaten dut

herrigintzan aritzen naizela. Oso gustuko dut.

Zein izan da lehiaketako erronka?

Helburua euskarazko artikulak hobetzea zen, 30.000 byte baino gehiago

garatuz. Lau atal zituen lehiaketak: *Funtsezko artikulak*, *Udalerriak*, *Emakumeen biografiak* eta *Txikipedia*. Lehenengo atalean aritu naiz ni, eta hobetzeko 200 artikulua izan ditut aukeran.

Zenbat osatu dituzu?

5.000/6.000 byte zituzten artikulak landu ditut, urte osoan zehar: guztira, hoge.

Zeintzuk dira horiek?

Besteak beste, Noam Chomsky, Marie Curie, Mahatma Gandhi, Che Guevara, Vincent Van Gogh, Sigmund Freud eta Gurutze Gorriari buruzko artikulak osatu ditut. Esan behar dut denak egin ditudala oso gustura; are gehiago, Wikipedia ezberdinetatik argazkiak ekarri eta bideoak sartzen ere aritu naiz. Ahalik eta osatuen geratu zitezien.

Zein izan da jarduteko modua?

Esan bezala, funtsezko artikuluetan soilik jarri dut fokua, asko gustatu zitzaidalako gaia, besteetan ez naiz sartu; izan ere, denean aritzea ezinezkoa da. Artikuluak osatzeko, gehienetan ingelesezko Wikipedia izan dut oinarri, eta espainolezkoa eta frantsesezkoa ere lagungarri izan zaizkit. Beste iturri batzuk ere kontsultatu ditut.

Erronka aise bete ditzake esan daiteke...

Bai. Derrigorrezkoa izan da gutxienezkoa iristea; lehiaketako irizpideek markatutako helburua betetzea, alegia. Hala eta guztiz ere, gustura geratu naizenera arte idatzi ditut nik byteak. Batez beste, egin ditut 100.000 byte inguru, baina artikuluren batek ere baditu 150.000 edo 200.000tik gora.

Mundu mailako Wikipediako artikulurik osatuena ere zuk landutakoa da...

Hala da. Esklabotzari buruzkoa da gaur egun Wikipedian dagoen artikulurik osatuena. Ingelesezkoa baino osatuagoa da, 240.000 byte inguru ditu, hain zuzen.

Zer irabazi duzu?

Tokadiskos bat eta binilo sorta bat ere bai. Euskal Wikilarien Kultura Elkarteko zuzendaritza batzordeak ematen du saria. Eta hori ematen dute jendea animatu dadin Wikipedia osatu eta idaztera.

Zer duzu orain esku artean?

Hikari Oe japoniarrarena amaitu dut; gizon autista da eta musika klasikoa egiten du; milioi bat disko baino gehiago saldu ditu. Bere aita, Kenzaburo Oe, Literaturako Nobel sariduna izan zen.

ITURRI ONETIK

Debagoiendarrak protagonista ETBko saioetan

Domekan hasiko da ETB1 katean *Baserría* saioa, Klaudio Landak aurkeztuta. Hamarna baserritar eta kaletar elkartuko ditu. Horien artean, Ibai Alberdi baserritar aretxabaletarra, Galartza auzoko Zaloña baserrikoa, eta Maitane Uribe aramaioarra, kaletarren artean. Bestetik, ETB2n, astelehenean, 11n, hasiko da *El conquistador del Caribe* saioaren zazpigarren edizioa, eta lehiaketa horretan ere debagoiendar bi ariko dira: bergarar bat, Julen Herran; eta eskoriatzar bat, Asier Urzelai.

ALBISTE IZAN ZEN

2014-01-11

Presoen aldeko manifestazio "historikoa"

Urtarrileko lehen zapatuko presoen aldeko Bilboko manifestazio berezirik ez da egingo aurren, COVID-19aren izurriteagatik. Herrietan egingo dituzte ekitaldiak, Sarek deituta. 2014koa ere berezia izan zen. Beste eragile batzuekin batera, EAJ ere batu zen. Sortuko eta EAJko eskualdeko arduradunak, Ibai Redondo eta Joxe Migel Uribarren, elkartu zituen mahaiaren bueltan Goienak biharamunean. Historikotzat, jo zuten biek manifestazioa.



HAU BE BADOGU!

Elurra protagonista izan da sarean ere

@manexagirre: "Biharko konboa izutzekoa da: jai-eguna & elurra & eguraldi ona. Landa-eremua dardarka. Ongi etorri denoi, baina mesedez, zentzunez ibili".

@Enekoander: "Kapitolioa hartuta, sasi estatu kolpea AEBn... Eta *Teleberrian* elurra eta eguraldiaren inguruan berbetan. Mesedez...".

@maia_jon: "Lehen, haurra nintzenean elurra egiten zuen. Orain, elurra egiten duenean haurra naiz. Elurra, kostaldeko kalekume askorentzat, haurtzarora itzultzea da".

@ionipa: "Nik elurra nahi dut; baina lepo!!".

'Sustrainet'**JOSU GARITAONANDIA**

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN
ARDURADUNA
BERGARA

Kanadako Suzanne Simard-ek esan du zuhaitzak komunikatu egiten direla sustraien bidez, guk Internet erabiltzen dugun bezala: informazioa pasa, eta erasoren bat badago beste zuhaitzak informatu, beren neurriak har ditzaten. Basoan, zuhaitzak, lehiatu baino gehiago, kooperatiboak dira, elkarri lagundu diezaiekete elikagaiak bidaliz. Zuhaitz *amak* dira garrantzitsuenak, eta ez lirateke moztu behar;

sustrai garatuenak dituztenak dira ondoren euren inguruko zuhaitzei gehien lagundu diezaieketenak.

Ez dut uste zu zuhaitzak mozten ibili zarenik, baina landatu ahal duzu zuhaitzen bat?

Lagun tematia

JOSE ANTONIO COT VELASCO
ANTZUOLA

Basogintza eredua aldatzeko asmoz, Antzuolako Udalak azalpena eman zuen abenduan. Beldurrez joaten naiz holakoetara, jakinda nirekin joaten den lagunak gero nola astintzen didan burua. Baina, hara, joan ginen.

Uste nuen bezala, hitzalditik atera eta segidan, etxera heltzeko astirik gabe, hitz gutxirekin baina zorrotz hasi zen bera: "Lurra ez da inorena, bizibidea besterik ez da izan behar gizakiontzat". Gaixoa! "Non ote bizi zaren... Negozioak eta kapitalak mugitzen du mundua", nik, horretan geratzeko asmoz, bakean uzteko. Bai, zera! Jarraitu egin zuen: "Antzina, mendi gehiena komunala zen, herriarena, harentzat bizibidea, Bizidun guztiontzat ama". Nik, aspertu samar: "Bai, oso polita; utzi erretzeari, eta itzuli ilargitik. Orain, gizartea bestelakoa da". Zergatik jarraitu ote nion!

Amorrua azaltzen hasi zen: "Mendiaren jabetasuna ez da bidezkoa; gehienetan, saltzera herriak behartu zituzten, gizartearena suntsituz; erregeen, estatuen gerrak eta boterea elikatzeko; eta dirudunek erosten zuten". Honetan gogor zetorren. Nik, haserre azaltzen: "Hori kontu zaharra da, oraingo jabeek ez dakite ezer horretaz; ahaztu, eta utzi nazazu bakean". Alferrik. Tematia: "Nahiko irabazi diote lurrari, nahiko suntsitu dute. Lurra ere herriak berreskuratu behar du, desjabetu egin behar diegu, amak jabetu eta bizia berpizteko, piztiak birsortzeko". "Ixo", nik.


Eskerrak holako txapa niri bakarrik ematen didan, bestela... Tarteetan, etxera heldu eta telebista piztu nuen, bera isiltzeko. Urkullu han, robot bat bezala. Ez nekien zer zioen, baina a ze bakea eman zidan! Isildu egin zen laguna, bost minutu; afaria prestatzen hasi, eta berera jo zuen berriro. Hala ibili da gaur arte, nik ia loa hartu ezinean. Zergatik azaltzen ote dizu etgelkeria hau, lagunak, ba, ez dakit ze ostia piztu duen hor goian, baina ezin dut burutik kendu, zalantzan, eta neure buruari galdezka: ea arrazoi puska ote duen gixajoak! Ezkixo Frenikoa

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali **gutunak@goiena.eus** helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna

HAUXE BAI JENEROA!**GARBIÑE UBEDA**



Urtarrilaren 2an Herriko Plazan egindako elkarretaratzea, Maria Angeles Ibarluzearen erailketa salatzeko. HASIER LARREA

"Gaitzespenik sendoena" erailketa matxistarekiko

Urtarrilaren 2an, zapatua, arrasatearrek Herriko Plaza hartu zuten, Maria Angeles Ibarluzea herrikidearen hilketa salatzeko. "Senideei eta lagunei elkartasunik beroena" helarazi zien mugimendu feministak, eta "laguntza eta prestutasun osoa" adierazi

Eneko Azurmendi ARRASATE

Erantzun sendoa izan zuen eragile feministek eginiko deialdiak, eta Herriko Plaza lepo bete zen Maria Angeles Ibarluzea arrasatearraren erailketa matxista salatzeko. "Badira 40 urte baino gehiago Arrasatetik joan zirela; askok ez genuen zu ezagutzeko aukerarik izan, baina horrek ez du gure atsekabea baretu", azaldu zuten Pottogorriak-eko, Arrasateko Emakumeen Mundu Martxako eta Arrasateko Bilgune Feministako kideek.

"Hau 'icebergaren tontorra' da"

Eragile feministek salatu zuten, emakumeen aurkako biolentziaren "muturreko" ondorio dira erailketa matxistak, eta beste-lako biolentzia ugarirekin elkar elikatzen dira. "Erailketak, atzera bueltarik ez duen ekintza izanik, bereziki era gogorrean kolpatzen gaitu, baina ez dugu ahaztu behar hau icebergaren tontorra baino ez dela. Emakumeen aurkako biolentzia ez da



Marian Ibarluzea, Kanarietan.


Hilketa aitortu du bikotekideak

Azken urte luzeetan Kanarietan bizi zen Marian Ibarluzea, 65 urteko arrasatearra. Abenduaren 28an, haren desagerpena salatu zuten, eta, bi egun geroago, hilaren 30ean, Guardia Zibilak haren gorpua aurkitu zuen etxe inguruan. Egun berean, orduko bikotekidea zenak, 43 urteko gizonezko sevillarrak, aitortu egin zuen hura erail izana.

berria. Ez da kasualitatea. Sistemikoa eta estrukturala da. Ez dugu onartuko emakumea biktimizatu edo erantzule gisa azaldu gura duen inongo jarrerarik. Arazoa kolektiboa da, eta guztion artean eman behar diogu amaiera", gaineratu zuten.

Baliabideak jartzea, "urgentzia"

Pandemiak eragindako krisiak, azpimarratu dutenez, "are eta egoera zaurgarriagoan" utzi ditu emakumeak. "Bikotera edota odoleko familia harremanetara mugatu dituzte azken hilabeteetako neurriak, kontuan hartu gabe espazio hauek ez direla guztiontzat seguruak. Ez dira eskaini bertan gertatzen diren biolentzia matxistei aurre egiteko baliabideak". Horregatik, administrazio publikoari aldarrikatu eta exijitu diote baliabide eta neurri zehatzak ezar ditzala krisi horri aurre egiteko, eta "2021ean beste erailketarik edo biolentzia kasurik salatu behar ez izateko".



NIRE USTEZ

ANE ZUAZUBISKAR

Hautsitik

Zuei ere sumatzen zaizue. Aurpegi gordin, disimulu fin eta keinu zorrotzekooi. Zuei ere sumatzen dizuet nekea begipean. Ikasita zeundeten nola hitz egin, zer esan, nola egon. Baina orain ez dizue balio. Eta zuei ere igartzen dizuet nekea. Zurrin eta gogor aritzea ez baita lehen zena. Uste sendoak izatea ez baita lehen zena. "Apurtu nintzen arte ez nekien zeinen hauskorra nintzen". Esaldia ez dut aurten entzun, ez dakit esan zidanarena ote den, baina balio dit. Askori apurtu zaizue lurra hankapean. Askok sentitu dugu hauskor garel, eta ikasi dugu eraiki daitekeela hautsitako harriekin. Eta horregatik iruditzen zait, tunelaren amaieran argia ikustera gonbidatu gaituzten garaian, nostalgiatxo ere sentituko dudala argi betera irteterakoan. Orain deseskalatzearen nostalgiatxo dudan moduan, sentituko dudala oraingora begiratuta, izan ginela sekula baino hauskorrago, sekula baino azalago, haragiago; egon ginela barrukotik gertuago. Memoria beti baita bizitakoa desitxuratzea, papera gorde, eta irakurriko dut aurrerago. Nostalgia zartatu dezan hemendik tarte baterako harritxo.



E.A.

Errege Magoak, aurten, karpan

Desfilearen orde, Biteriko karpan egon ziren urtarrilaren 5ean Errege Magoak, eta, iritsi ahalaz bat, mikrofona hartu eta haur arrasatearrei harrera egin zieten, Meltxorrek euskaraz, Gasparrek gaztelaniaz eta Baltasarrek frantsesez. Gero, haurrak banan-banan igo ziren oholtzara, eskutitzekin, eta horien truke gozokiak oparitu zizkieten Errege Magoek.

Arrasateko EH Bilduk barkamena eskatu dio Montai enpresari

Enpresa prozesu judizial batean zegoela aipatu zuen abenduaren 17ko osoko bilkuran bozeramaile lanak egin zituen Kepa Urteaga zinegotziak. "Hau horrela ez denez, publikoki zuzendu eta barkamena eskatzen diogu enpresari, eta, zuzenki, Aitor Elortzari", azaldu du EH Bilduk.

Hala ere, koalizio abertzaleak salatu du Udal Gobernuak nahie-

rara aukeratu zuela enpresa hori Gabonetako karpa jartzeko, eta EAJren kudeaketa ere salatu du, era berean. "Edozein gaitan hazka egiten dugun bakoitzean, zikinkeriak irteten dira, eta gero, haien burua zuritzeko, denon laguntza eskatzen dute, EH Bildurena, bereziki, garai txarretan bizi garela argudiatuz. Jakina da krisi garaietan gehienek sufritu egiten dutela eta gutxi batzuek etekinak biderkatu egiten dituztela. Hori salagarria da", gaineratu dute ohar bidez.

Gutxi batzuek soilik egin dute zabaltzearen alde

2020ko azaroaren 5ean erabaki zuen Eusko Jaurlaritzak ostalaritza ixtea, eta ordutik itxita eduki dituzte Arrasateko sektore horretako establezimenduak; aste honetako datuek irekitzeko aukera eman diete, baina taberna gehienek itxita jarraitzen dute

Eneko Azurmendi ARRASATE

Asteleheneko datuek, azken bi hilabetetakoek ez bezala, albiste onak utzi zituzten Arrasaten, 100.000 biztanleko 500 kasuko intzidentzia-tasatik jaitsi zelako -480koa, zehazki-. Atzoko datuek, gainera, hobekuntza berretsi egin zuten: herriak 398,51 kasuko intzidentzia-tasa du.

Hori dela eta, ostalaritzak irekitzeko aukera izan du aste honetan, baina taberna gutxi egin dute horren aldeko hautua. Martitzenean, Kulturaten bildu ziren herriko 85 bat establezimendutako ordezkariak, eta, 1990 Gastrotekako arduradun Ibon Leundak azaldu zuenez, %10 inguruk baino ez zuten zabaldu egun hartan. Hala ere, atzo taberna gehiago ikusi ziren zabalik, eta asteburura begira ere joera hori mantenduko dela dirudi. "Intzidentzia-tasa 500etik nabarmen jaisten bada, tabernari gehiagok emango dute irekitzeko pausoa", dio Leundak. Kulturaten batutako ostalarien erdia baino gehiago, ordea, datorren asteleheneko kopuruen eta LABiren bilerak ematen duenaren zain daude oraindik.

Langileen egoera, kezka nagusi Martitzeneko bileran, langileen egoera izan zen kezka nagusia. "Irekitzearekin batera, langileen aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteari eutsi edo ez, nola atera egoera horretatik eta zer egin berriz ere ixtera behartzen bagaituzte. Egoera ezegonkor honetan, gertatzen dena da datuei begira egon behar izaten dugula astelehenero eta ostegunero; are gehiago, 500eko langa horretatik hain gertu egonda. Posible da egun horien buruan irekita egotetik berriro itxi behar izatea, eta alderantziz". Monte tabernako Aitor Etxagibelek ere kezka bera azaldu du: "Irekitzekotan, langileak aldi baterako enplegu-



Itzala tabernako zerbitzari bat, bezero bati kafeak zerbitzatzen. E.A.



Arrasateko Ostalariak taldeak Kulturaten egindako bilera. AITOR AGIRIANO

Ostalariak kezkak partekatu dituzte

Ezohiko irudia utzi zuen martitzenean Kulturateko areto nagusiak. Arrasateko Ostalariak taldeak bilera egin zuen eta herriko 85 establezimendutako ordezkariak batu ziren, bi hilabetez itxita egon ostean kezkak partekatu eta aurrera egiteko bideak aztertzeko.

erregulazioko espedientetik atera gabe egingo dut, kontu handiarekin. Egoera honetan ezin gara %100ean aritu".

Raul Leibak, bestalde, hiru negozio ditu batera: Hamalau kafetegia, taberna eta jatetxea.

Datuek hobera egitea espero du, hiru negozioak ireki ahal izateko. "Arrasatek bizi apur bat behar du; izan ere, azken bi hilabete hauetan oso triste egon da. Herritarrek behar dute ostalaritza irekita egotea".

Domekan hasiko dute Familian Jolasean, Okendoko ludotekan

Hamabi saio izango dira, domekero, 17:30etik 19:30era, martxoaren 28ra arte, eta euskaraz jolastea da helburua

E.A. ARRASATE

Ekimena 0-8 urte arteko haurrak dituzten familientzako izango da, domekero Okendoko ludotekan, urtarrilaren 10ean hasi eta martxoaren 28ra bitartean -hamabi saio, guztira-. Udaleko Gazteria Sailak azaldu duenez, familien parte-hartzea sustatu nahi dute, "proposamenak egin eta gauzatu ditzaten; betiere, hezitzaileekin batera".

Era berean, sailetik adierazi dute familiek elkar ezagutzeko eta euskaraz elkarrekin jolasteko aukera bat dela ekimena,

"aniztasuna kontuan hartuta eta euskararen transmisioaren garrantzia azpimarratuta".

Helburua da neguko igandetan espazioa, denbora eta hitzordua eskaintzea familiei, elkarrekin partekatzeko jolasa eta "kalitatezko" aisialdi hezitzailea.

Azkenik, segurtasun protokoloak ezarriko dituzte, uneoro edukiera neurtzeko bideak jarritz, ekintza guztiak "modu seguruan" garatu ahal izateko. "Bi hezitzailearen laguntza egongo da, familiek behar duten informazioa eta aholkuak emateko".



HASIER LARREA

Aurtengo formula ere, egokia

Uarkapeko eta Musakolako instalazioetan beharrean, herriko espazio irekietan, gaztegunetan eta gaztetxean egin dituzte aurtun Txikilandiako ekintzak 9 urtetik beherako haurrek. 9 urtetik gorakoek, aldiz, GazteEkin dinamikaren baitako beste hainbat ekintza egin dituzte. Txatxilipurdiko hezitzaileek azaldu dute aurtengo formularekin asmatu egin dutela.

SAT sindikatuari laguntzeko, oliba-olioa jarri dute salgai

Arrasateko Askapenak aurtengo olio eskatzeko kanpaina bat jarri du abian, Andaluziako SAT sindikatuari elkartasuna adierazteko. "Sindikatuak jasaten duen errepresioari aurre egiteko erabiliko da salmenta honetako dirua". Adierazi dutenez, sindikatuko kideek egin eta saldutako oliba-olio birjina da. Eskaera egiteko, *whatsapp* bat

bidali beharko da 644 20 52 67 zenbakira, urtarrilaren 20a baino lehen. Halaber, transferentzia egiterakoan, izen-abizenak eta botila kopurua adierazi beharko dira. Transferentzia egiteko kontu korrontea honako hau da: ES73 3035 0202 72 2021049929. "Bestalde, norbaitek beste batentzako eskatuz gero, eskatu duenak egin beharko du bere izenean eskari osoaren transferentzia", nabarmendu dute.

Prezioari dagokionez, 26,3 euro balio du 5 euroko botilak.

"Udalatxen, egunsentia beti dira desberdinak"

ARITZ GORDO ARGAZKILARIA

Valladolideko Kirol Argazkilaritza Lehiaketan eta Madrilgo La Pedrizako jaialdiko argazki lehiaketan lehen saria lortu du arrasatearrak; bietan ere, argazki berarekin

Eneko Azurmendi ARRASATE

La Pedrizan, gainera, bere beste argazki bati ohorezko aipamena egin diote. Aitortu du bi sari horiek ilusio berezia egin diotela, nahiz eta nabarmendu duen ez dituela argazkiak ateratzen lehiaketetan aurkezteko. **Bi sari potolo eskuratu dituzu azkenaldian. Nola sentitzen zara?** Nabarmendu nahiko nuke argazkiak ez ditudala lehiaketetarako ateratzen, baina egia da sari horiek ilusio berezia egin didatela eta oso pozik nagoela lortu dudanarekin. Azken batean, nire eguneroko lana saritzen dutelako, argazki bakoitzaren atzean dagoen guztia.

Zer da argazki bakoitzaren atzean dagoen hori guztia?

Argazkiak ateratzera joan aurretik, ondo aztertzen dut guztia: eguraldia, eguzkia ze ordutan aterako den, ordu bakoitzean ze argi egongo den, eta abar. Egun bat lehenago ere joan izan naiz, nolako argia egongo den ikusteko. Horregatik diot argazki bakoitzaren atzean lan bat dagoela, eta klik egin aurretik dagoen guztia hartu behar dela kontuan. Argazkian ikusten ez dena kontatu gura izaten dut, atzetik duen istorioa, eta gutxienezkoa da ze abiadura eta ze diafragma mailatan ateratakoa den. Beti esaten dut argazkiak hitzez azalduz gero, haien balioa bikoiztu egiten dela. Halaber, argazkiak zerbait esan behar dio ikusleari; gehitzen ez duen elementu batek kendu egiten du, eta, beraz, ez da enkoadraketa barruan egon behar.

Mendia eta kirola uztartzen dituzte, gehienbat, zure argazkiek.

Badira urte batzuk argazkilaritzaren baitan nire norabide propioa hartzea erabaki nuela. Izan ere, ordura arte, lasterketetako argazki asko ateratzen nituen, lehiaketetan aurkezteko. Duela hiru bat urte, ordea, ez nuen saririk jaso argazki horie-



Aritz Gordo, Goiena telebistako platoan. E.A.

"ARGAZKIAN IKUSTEN EZ DENA KONTATZEN SAIAITZEN NAIZ, ATZETIK DAUKAN ISTORIO GUZTIA"

kin eta erabaki nuen gustuko ditudan argazkiak soilik ateratzea, horrek ez baininduen motibatzen. Beraz, dagoeneko ez ditut lasterketetako argazkiak ateratzen, eta nire *marka* duten argazkiak ateratzen ditut.

Zure marka diozunean, zertaz ari zara zehazki?

Lagun batek behin esan zidan argazkiek izenik ez zuten erakusketa batean nire hiru argazki identifikatu zituela, eta horrek izugarri poztu ninduen. Argazkia ikusita nirea dela jakitea gauza ederra da. Bestalde, kirola ez da lehia soilik, beste gauza asko ere baditu, eta leku ezagunetan puntu ezberdinak aurkitu daitezke. Ni Udalatxera askotan joaten naiz, baina egunsentia beti ezberdinak dira han.

Ze arlo da zure gustukoena?

Beti esaten dut kirol argazkilaria naizela, baina arlo guztiak

ditut gogoko eta guztietan aritu izan naiz orain arte. Azken batean, argazkilaria on batek jakin behar du argazki bat edozein baldintzatan ateratzen. Argazkigintzan, arlo guztiak kontrolatzeak asko laguntzen du, argazkilaria hobea egiten zaitu.

Zein da zure sekretua?

Argazkia argia da, eta, duzun argiarekin egin gura duzuna zer den jakiteko, landu egin behar duzu, argazkiak bata bestearen atzetik atera eta aztertu. Nik urtero 60.000 argazkitik gora ateratzen ditut. Hori da sekretua.

Aritz Gordoren bi argazki sarituak



Aritz Egea, Udalatxen, egunsentian. Argazki honekin irabazi ditu arrasatearrak Valladolideko Kirol Argazkilaritza Lehiaketa eta La Pedrizako jaialdiko. "Aurreko gauean, 22:00etan, egin genuen Udalatxera joateko plana. Argazki politik ateratzeko baldintzak egongo zirela ikusi nuen, eta deitu egin nion. Asmatu genuen".



Markel Uriarte, Kanaria Handian. Argazki honek ohorezko aipamena jaso zuen La Pedrizako jaialdiko argazki lehiaketan. Markel Uriarte aretxabaletarra agertzen da, aurreko gurgpilaren gainean, azken eguzki orduetan. "Markelekin oso harreman ona daukat, eta ikaragarritzko plazera da berarekin lan egitea".

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

arbolapeta

beinke

arrasate



Uxue Azkue, Nahia Irazola eta Izaskun Garcia, Uarkapen, dominak eskuetan dituztela. MIREIA BIKUÑA

Hirukote gisa lortutako azkena izanik, garaipen "hunkigarria" izan da

Gimnasia aerobikoan Espainiako txapeldun berriak dira Arrasate Dragoi Gimnasia Taldeko Uxue Azkue, Nahia Irazola eta Izaskun Garcia, eta, aitortu dutenez, pozgarria bezain hunkigarria izan da lorpena, elkarrekin egin duten azken saioa izan baita

Eneko Azurmendi ARRASATE

Txapelketa irabazi zutenetik aste batzuk pasa ostean, hotzean eta patxadaz, lortutakoari balioa eman diote hiru gimnasta arrasatearrek, Valentzia bizi izandakoa gogoratuz. Izaskun Garciaarentzat, gainera, bereziki polita izan da urrea lortu izana, gimnasia aerobikoa utziko delako. "Esperientzia ezberdina izan da, eta emozio handiz bizi izan dut, niretzako azkena izan baita. Ziurgabetasun handia egon da, ez genekien txapelketa egin behar zen ala ez, eta pista-ara atera ginenera arte ez genuen erabat sinistu lehiatzera gindoa-zenik. Halere, ondo pasatu dugu eta pozik gaude lortutakoarekin".

Irazolak, era berean, baieztatu egin du "hunkigarria" izan dela, eta zera gaineratu: "Hirurok elkarrekin egin dugun azken txapelketa izan da. Egia esan,

ez genuen inondik ere espero irabazterik, ez garelako askorik entrenatu. Gainera, nahiko gutxietsita dagoen kirol bat da, eta irabazi izanak lagunduko du hemen inguruko jende gehiagok kirola ezagutu dezan".

Azkuek, azkenik, nabarmendu du "ahalik eta maila altuena" ematen saiatu zirela txapelketan, urte arraroa izan arren eta entrenatzeko denbora askorik eduki ez duten arren. "Oso gustura geratu ginen egindakoarekin, eta gero, puntuazioak ere hori islatu zuen. Horregatik, oso pozik gaude lortu dugunarekin".

IZASKUN GARCIAK GIMNASIA AEROBIKOA UTZIKO DU, ETA HAU IZAN DA BERE AZKEN TXAPELKETA

Babes eta animo falta, nabaria

Lehiatzeko orduan, Azkuek dioenez, dezente nabaritu zuten publikoaren falta. "Gu ohituta gaude ingurukoak, lagunak eta senideak animatzen egotera, eta pista-ara atera behar izan genuenera arte ez ginen konturatu bakarrik geundela. Orduan hasi ziren urduritasunak etortzen, baina gero, oso ondo egin genuen gure lana", azpimarratu du.

Garcia, bestalde, adierazi du jendearen animoak eta txistuak ez dituela entzuten, normalean, "kontzentrazioagatik", baina giroan nabaritzen zela hutsunea. "Espainiako Txapelketa batean beti giro bikaina egoten da eta jende asko batzen da. Oraingoa, ordea, oso isila izan da".

Lan guztia, minutu eta erdian
Irazolak nabarmendu du denbora asko pasatzen dutela en-

trenatzen, eta gero, minutu eta erdian erakutsi behar izaten dutela daukaten onena. "Exekuzioa, mugimenduen zailtasuna eta alde artistikoa baloratzen dute epaileek, eta edozein txikikeriak puntuazioa jaitxi diezazuke. Hala ere, adrenalina puntu hori asko gustatzen zait".

Garcia berretsi egin du hori. "Akats batek pikutara bidali dezake aurrez egindako prestaketa guztia. Momentuko egoera da balio duena, berdin du egun horretan lo gaizki egin duzun edo nekatuta zauden".

Elkar ulertzea, ezinbestekoa

Azkue izan da hirukotera batzen azkena, eta elkarren artean ondo ulertzea ezinbestekoa dela aitortu du. "Nahia eta Izaskun txikitatik ezagutzen ditut, haiek baino urtebete gazteagoa naiz. Gogoratzen dut entrenatzen ikusten nituenen haien taldean egotea desiratzen nuela, eta pozik nago hori errealitate bihurtu delako. Gainera, oso ondo konpondu izan gara orain arte".

Aerobikoa, eta ez erritmikoa

Gimnasiaren baitako bi diziplina ezberdin dira erritmikoa eta aerobikoa, eta azken horretan lortu dute urrezko domina arrasatearrek. "Nere lagun askok oraindik uste dute gimnasia erritmikoa egiten dugula, bategatik bestera pasatu garelako eta biak gimnasia direlako, baina erabat ezberdinak dira", dio Irazolak. "Erritmikoa gehiagok ezagutzen dute, baina aerobikoa dinamikoagoa da, eta errendimendu aldetik gehiago exijitzen du", gaineratu du Azkuek.

Halaber, gimnasia aerobikoa "azkarra" da, "intentsitate handikoa", Garciaaren esanetan. "Adinak ere ez du horrenbeste baldintzatzen, erritmikoarekin alderatuz gero. Gainera, kirol berria denez, etengabe eraldatzen ari da eta urtero daude gauza berriak. Erresistentzia lantzen da, gehienbat, kirol honetan. Kanpotik ez da nabaritzen, baina asko nekatzen gara. Horrez gain, indarra eta malgutasuna ere lantzen ditugu".


GIMNASIA AEROBIKOA AZKARRA, DINAMIKOA ETA INTENTSITATE HANDIKOA DELA DIOTE GIMNASTEK

Txapelketa nola bizi izan duzue?




Izaskun Garcia

"Esperientzia ezberdina izan da, eta emozio handiz bizi izan dut, niretzako azkena izan baita. Azken momentura arte ez genekien lehiatuko ginen ala ez, baina oso ondo pasatu dugu. Pozik gaude lortutakoarekin".



Nahia Irazola

"Oso hunkigarria izan da, hiruok elkarrekin egin dugun azken txapelketa izan delako. Gainera, nahiko gutxietsita dagoen kirol bat da, eta irabazi izanak lagunduko du jende gehiagok gure kirola ezagutu dezan".



Uxue Azkue

"Ez ginen esperantza handiekin joan, ez guelako entrenatzeko tarte handirik izan. Halere, oso gustura geratu ginen egin genuenarekin eta puntuazioak ere hori islatu zuen. Beraz, oso pozik itzuli ginen Valentziatik".

Ahotsik gabeko arteen nahasketa emotiboa

Post-rock estiloko Toundra musika talde instrumentalak 'El gabinete del doctor Caligari' film mutuan inspiratutako soinu banda gorpuztu zuen diskoan joan den otsailean. Emaiza Amaia antzokian entzun eta ikusi ahalko da, bihar arratsaldean

Hasier Larrea ARRASATE

Zinemaren hastapenetan film mutuen proiektzioak zuzeneko musikaz taularatzen ziren aretoetan; pianoaren eta haize-instrumentuen laguntzaz, sarri. Musika-notak pelikularen elementu bat gehiago bilakatzen ziren horrela, unean uneko emozioak modu argiagoan transmititzeko. Toundra musika taldeko kideek emozioen transmisio horretan sinisten dute; euren kanta entzun besterik ez dago. Ahotsaren erabilera bazterrean utziz, gitarren zein baxuen soinu anplifikatuaz eta bateriaren kolpe tinkoez baliatzen dira barruan daukatena adierazteko. Orain, *Das Cabinet des Dr. Caligari* -1920- alemaniar film espresionistaren soinu banda pertsonala aurkezten dabilta; ikus-entzunezko esperientzia osatua eskaintzen diote publikoari.

Handicap bat izan zitekeena laukotearen indargune nagusietako bat bilakatu dutela azaldu du Esteban Gironen, Toundrako gitarra-joleak: "Sevillan jo dezakegu gaur, eta Oslon bihar". Musikaren lengoia unibertsa dela argi dauka Gironen, baina argudio hori ez da euren kanta jende askorengana heldu izanaren adierazle bakarra. "Musika klasikotik edaten duen banda" bezala definitzen du bere taldea. Arrakasta izateko, noski, ez dago zertan kanon horiek jarraitu beharrik, baina historiari begiratu bat emateak lagun dezake berak esan nahi duena ulertzen: "The Beatlesen lehen diskoa musika klasikoan aditua zen produktore batek ondu zuen; hark ez zeukan rockaren gainerako ideia handirik, baina bere esparruko ukituak gehitu zizkien Liverpoolekoen abestiei". Ezbairik gabe, nahasketa hori The Beatlesen famaren gako handi bat izan zelakoan dago Giron.

Euren lehen erreferentziak ez ziren musika klasikokoak



12 urte daramatza talde madrildarrak oholtzan, zazpi lan luze kaleratuta. CALOSSI

KALERATU DUTEN AZKEN DISKOAREN KANTEKIN UZTARTUKO DITU TOUNDRAK FILMAREN IRUDIAK

izan, ordea. Punkean eta halako mugimendu kaletarretan oinarritzen ziren gehiago konposatzeko orduan, baina urteen poderioz "garatu" egin dute euren musika eskaintza: "Betiere, izan ginenarekiko errespetua mantenduta".

Euskal zirkuituak, "demasa"

Euskal Herrira kontzertuak ematera etortzean "tratu paregabea" jasotzen dutela nabarmendu nahi izan du Toundrako gitarra-jole asturiarrak, eta kulturalki toki aberatsa dela aipatu: "Mugaz inguratutako lurraldea izanik, euskal artistek iturri askotatik formatzeko aukera daukate, eta, horrez gainera, artearekiko sentsibiltate eta konpromiso handia erakusten dute, bai sortzaileek eta baita publikoak ere. Izan ere, bertako eszenak alemaniarraren antz

handiagoa dauka espainiarrarena baino".

Toundrakoak ohituta daude festival handietako karteletan azaltzera, baina aukeran txoko txikietan jotzea nahiago dutela bota du Gironen: "Jaialdi handietara jendea festa egitera joaten da; espresuki zeu ikustera doazenak, berriz, areto txikietan batzen dira. Euskal Herrian, gainera, asko babesten dira halako espazioak".

Lana baino gehiago, "bizimodua"

Mundu zabalean ezaguna den taldea ea musikatik bizi den galdetuta, "ezet" adierazi du asturiarrak, nahiz eta Toundrak enpresa izaera daukala ukatzen ez duen: "Musikari bakoitzak bere lanbidea dauka; nik kontzertuen difusio publikoan jarduten dut, eta besteek programatzaile informatiko, kontable eta abokatu lanpostuetan. Gurekin batera langile gehiago etortzen dira *bolo*-etara, gainera".

Hori horrela, oraindik "esateko" asko daukatela nabari zaio Gironi. Hitzez ez bada ere, sentsazioz bustiko dituzte zapatuan 19:00etan Amaia hurbiltzen direnen arimak.



Bibliotekaren Egunean ere gidatu zuen Bikandik haurrentzako tailerra. KULTURATE

Gurasoek ipuinak kontatzen ikasteko tailerra zapatuetan

Udal Bibliotekak antolatuta, urtarilaren 16an, 23an eta 30ean egingo dituzte saioak, Saroa Bikandirekin

H.L. ARRASATE

7 urtetik beherako adina daukaten neska-mutilen gurasoei, hezitzaileei eta bitartekariei zuzendutako hiru saio eskainiko ditu Saroa Bikandi ipuin kontalariak Kulturaten, hurrengo asteko zapatutik aurrera; 10:00etatik 13:00etara iraungo dute tailerrok. Bederatzi ordukoa izango da, beraz, parte-hartzaileek jasoko duten euskarazko formakuntza.

Bibliotekako jarduera guztiak bezala, doakoa izango da ipuin kontaketa tailerra ere. Hori bai, beharrezkoa izango da bibliotekako bazkide izatea. Udalaren webguneko bibliotekaren atalean edo Kulturatera zuzenean deituta eman dezakete interesatuek izena. Partaideak zozketa bidez hautatuko dira, plaza mugatuak daude eta. Orokorrean, ipuinak kontatzeko oinarritzko ezagutzak irakatsiko ditu Bikandik.

Umeentzako ipuin kontaketa

Helduentzat ez ezik, 4 urtetik gorako haurrentzat pentsatutako bi saio antolatu ditu Udal Bibliotekak urtarrilerako, Ane Gebara komunikatzailearen eskutik. Lehena hilaren 21ean izango da, Kulturaten bertan, arratsaldeko seieta hasita. Hurrengo saioa hilaren 27an egingo dute, Santa Marina auzoko bibliotekan, ordu berean. Edukiera mugatua dagoenez, jarduera horretan parte hartzeko aurrez apuntatu beharko da.

'Joker', 'Bookface'-ko garaile

Yarisa Salguero, Karima El Morakib eta Sara El Morakib gazteek irabazi dute bibliotekak antolatutako sormena lantzeko lehiaketa. *Joker anthologie* liburuaren azalean oinarritu dira hiru lehiakideak saria irabazteko. Aurkeztutako 45 irudiak sarean daude ikusgai.

'Mendian hil, hirian hil' dokumentala eskainiko dute Amaian

Íñaki Peña mediku eta errealityzadoreak zuzendutako lanak euskarazko film onenaren saria jaso zuen 2020ko Mendi Film jaialdian. Debagoieneko Ospitaleko zainketa aringarrietako osasun langilea izaki, doluari buruzko gogoeta egiteko gonbidapena egiten du zuzendariak, iaz kaleratutako pelikularen bitartez. Arteman komunikazio

taldeak ekoizpena eta Eñaut Zubizarretaren soinu banda darama filmak, eta Felipe Uriarte alpinistaren eta Mikel Cresporen senideen lekukotzak plazaratzen ditu. Dokumentala egoera mingarriak nola kudeatu daitezkeen jakiteko "baliagarria" dela aipatu dute egileek.

Datorren asteartean, hilak 12, emitituko da ikus-entzunezkoa, Amaia antzokian, 19:00etan hasita. Sarrerak eskuragai daude arrasate.eus webgunean, 6 euroren truke.



Gregorio Gallego eta Pedro Martin Etxebarria, baskula baten ondoan. ARAMAIOKO UDALA

Alondegiko baskulak zaharberritu egin dituzte

Gregorio Gallegok eta Pedro Martin Etxebarriak eraberritu dituzte garai batean erabiltzen ziren baskulak; egurra ustelduta eta pipiarekin zuten, eta burdinazko zatiak herdoilduak. Bi baskulak Udaletxeko osoko bilkuren aretoan daude

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Garai batean, izugarrizko garrantzia izan zuen alondegiak Aramaion. Mota askotako salgaiak bideratzeko tokia izaten zen alondegia; eta, horretarako, garrantzi handia izaten zuten han erabiltzen ziren baskulek. Bada, Gregorio Gallego eta Pedro Martin Etxebarria herritarrek garai bateko baskula horiek zaharberritu dituzte.

Egurra, ustelduta

"Guk hartu genituenean, egoera txarrean zeuden. Egurrezko eta burdinazko zatiak dituzte baskulek; bada, egurra ustelduta eta pipiarekin zegoen eta burdina, aldiz, herdoilduta", azaldu du zaharberritze lanetan ibili den Gregorio Gallegok.

Bien artean talde polita egin dutela dio Gallegok: "Nik egurrezko zatia eraberritu nuen eta Pedro Martinek burdinazko zatia zaharberritu zuen. Piezaren bat egin behar izan dugu, eta baita margotu ere".

Irail amaieran hartu zituzten bi makinak eraberritzeko eta ondo jartzeko ardura eta abendurako amaitu zituzten lanak. "Zaletasun" moduan egiten dituzte horrelako lanak Gallegok eta Etxebarriak.

Bi koloretan margotuak

Bi baskulak ezberdin margotu dituztela dio: "Bati egur kolorea utzi diogu, bernizatu egin dugu; bestea, aldiz, berdez margotu dugu. Burdinazko zatiak beltzez margotu ditugu". Gainera, egurraren zainak bistan utzi dituztela nabarmendu du Gallegok.

Baskulen garrantzia

Gallegok dio baskulekin neurketak egiten zituztela alondegian

**BI BASKULAK
EZBERDIN MARGOTU
DITUZTE: BAT BERDEZ
ETA BESTEA EGUR
KOLOREZ UTZI DUTE**

garai bateko merkatariek; baina maneiatzeko errazak zirela makina horiek: "Ez zen berdina neurtu behar zenuena emateko salgaia izatea edo hartzekoa izatea...".

Garai bateko alondegia Ibarren zegoen, plazan. Udal finantza kontuetan garrantzi handia izan zuen alondegiak. Izan ere, alondegiak ardoa, aleak eta beste zenbait jangai saltzen ziren biltegi publikoak ziren. Salgaiak handizka saltzen ziren eraikin horietan, eta Udalak kudeatzen zituen. Jose Mari Velez de Mendizalek *Hots begi danbolinak* blogean azaltzen du historikoki buruhauste eta auzi ugari sortu izan duela alondegiaren kudeaketak; izan ere, alondegian diru asko mugitzen zela dio.

Bi baskulak zaharberritzeko –egur berriak jarri, tresneria berritu, txapak margotu...– 3.085,50 euroko aurrekontua izan du Udalak. Gaur-gaurkoz, udaletxeko osoko bilkuren aretoan daude.

"Herritarrek gustura hartu dute tabernen irekiera, gogotsu"

MIKEL PEREIRA OSTALARIA

la bi hilabeteren ondoren, tabernak zabalik berriro ere

A.E. ARAMAIO

Hilabete eta hogeia egun itxita izan dituzte Aramaion ostalaritza zerbitzuak. Abenduaren 31n izan zuten berriro ere zabaltzeko aukera. Anboto eta Añai tabernako arduradun Mikel Pereirak azaldu du nola bizi izan duten egoera.

Nola izan zenuten berriro ere zabaltzeko aukeraren berri?

Abenduaren 30ean jakin genuen. Lehenengo, alkateak deitu zidan, eta ondoren, Jaurlearitzaren atarian konfirmatu nuen erabakia. 30ean eskariak egin genituen 31n zabaldu ahal izateko.


Zein da zure egoera pertsonala?

Plazako taberna, Anboto, ez zabaltzea erabaki dugu; eta Añai zabaldu egin dugu. Egia esan, egoera zaila da: langileak ERTEn daude, eta paperak egin behar dira... Gainera, beldurra daukagu, ez dakigulako berriro ere itxeko agindurik jasoko dugun.

Herritarrek gustura hartu dute?

Bai, oso ondo hartu dute irekiera, eskertuta daude. Gogoarekin etorri dira terrazara, uda izango balitz bezala.

Jaso duzue laguntzarik Udalaren aldetik edo Jaurlearitzaren aldetik bigarren itxialdi honetan?



Mikel Pereira. GOIENA

Ez, Udalaren aldetik ez dugu laguntza zuzenik jaso oraingo itxialdian; eta Urkulluk agindutako hiru mila euroak ere ez dira iritsi. Marketin estrategia izan da hori.

Berriro ere itxeko agindua etorri litekeela jakinda, nola egiten da lan?

Egoera zaila da. Eskaera txikiak egin ditugu, astelehenetik egue-nera bitartekoak; izan ere, hornitzaileak ez dira geratzen zai- gunaren kargu egiten... Uste dut luze joko duela honek, ez dela egun batzuetako kontua izango.

GORA ETA BEHERA



Andramariko komuna ez dago erabilgarri

"Abendu hasieran, ganberro batzuek eraso egin zieten berriki berritu eta minusbaliatuendako egokitutako komunei, eta erabat suntsitu zituzten", azaldu du herritar batek. Hala, parkera doazenean euren beharrak asetzeko lekurik ez dutela salatu du herritarrek.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.



Genero estereotipoak apurtzeko esperientzia

Gorbeialdeko Kuadrillako Berdintasun Sailak antolatuta, 'drag king' tailerra egingo dute bihar, zapatua. Genero binarismotik irten eta sexuaren eta generoaren inguruan hausnartzeko aukera eskainiko du saioak. Gizonezkoen arropak eraman beharko dira

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Bihar, zapatua, *drag king* tailerra egingo dute Aramaioko udaletxe osoko bilkuren aretoan. Gorbeialdeko Kuadrillako Berdintasun Sailak antolatuta, genero binarismotik ateratzeko esperientzia eskainiko dute.

Tailerra 10:00etatik 14:00etara bitartean izango da, eta aurrez eman beharko da izena, berdintasuna@gorbeialdea.eus helbidean. Hamar lagunendako lekua egongo da.

Gizon itxura eta jokaera

Gorbeialdeko Berdintasun teknikari Jone Unzagak azaldu du *drag king* kontzeptuaren esanahia: "Emakume bezala definitua izan dena gizon itxuraz janztea eta jokatzeko litzateke. Askotan, ezagunago egiten zaigu *drag queen* hitza, telebistan eta pelikuletan emakumezkoen irudia hartzen dituzten gizonezkoak ikusi ditugulako. Kasu honetan, alderantziz egingo dugu".

Drag king tailerrean, maskulinitasuna eraldatzeko behar diren teknikak azalduko dituzte. Itxura, hitz egiteko modua, espazioa eta gorputzaren adierazpena landuko dituzte. "Ez da antzerki-ariketa bat, praktika politiko bat baizik, non jaiotzean emakume gisa diagnostikatutako gorputzek maskulinitatea debekatua izan duten", azaldu du Unzagak.

Tailerra norentzako den galdetuta, zera dio teknikariak: "Euren bizitzako unerik batean emakumeen sozializazioa bizi izan duten pertsonekin egiten dira tailerrak; beraz, jaiotzean emakume diagnostikatu dituzten guztiei irekita dago".

Gorputzak erdigunean jarri

Tailerra Ara!Gorputz parekidetasuna sustatzeko elkartek eskainiko du. Gorputzak erdigunean jartzen dituzten programak eta tailerrak garatzen



Josebe Iturriotz eta Irantzu Varela, Gorbeialdeko berdintasun plana garatzen. G.K.

EMAKUME BEZALA DEFINITUA IZAN DENAK GIZON ITXURAZ JANTZI ETA JOKATZEA DA 'DRAG KING'-A

ditu elkarte horrek, eta, hain zuzen ere, abenduan, *Gineko-logiari sarrera* tailerra eskaini zuten Aramaion: "Arrakasta itzela izan zuen, jendea oso gustura azaldu zen, baita formatzaileak ere".


Genero binarismotik irten

Genero binarismotik irteteko esperientzia moduan planteatu dutela tailerra dio Unzagak: "Feminitatea eta maskulinitatea mundu guztiak ibili ahal duen bidea da, ez direlako modu naturalean inorengan hasten, erakuntza kulturalak baitira. Denok dakigu emakumea izateko orraztu, makillatu eta jantzi konprektu batzuk eraman behar direla. Elementu horiek guztiak gure gorputzen barruan sartzen ditugu, artifizialak direla jakinda, eta horrela egokitzen gara feminitatearekin. Gizonek, ordea, ez

dute ezer egin behar, uste baita maskulinitatea naturala dela. Haien genitaletatik zuzenean ateratzen da".

Hori horrela, tailerrak genero estereotipoak apurtzea du helburu, ikusteko identitate ezberdinetatik ibiltzeko zer-nolako eragina duen gure gorputzetan, pentsaeran eta jarreretan. "Txikitatik erakusten digute bi sexu daudela eta horiei hainbat jarrera eta estereotipo egozten zaizkiela. Binarismo horrek emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna ere mantendu egiten du, norberak nahi duena izateko eta sentitzeko askatasuna kentzen digun heinean. Sexuaren eta generoaren arteko harremanaz hausnartzeko aukera emango digu tailerrak", gaineratu du Unzagak. Tailerrean parte hartuko dutenek eraman beharko dute gizonezkoen arropa, galtzontziloak eta gizonentzako egindako galtzerdiak: "Goitik behera gizon arroparekin jantzi ahal izan behar dute".

Aramaion lehenengo aldiz egingo da tailerra: "Baina beste herrietako esperientziak erakusketan du tailerretan sortzen dena oso iraultzailea dela".



Herritar bat inprimakia betetzen. A.E.

Kuadrillako herriak hobeto ezagutzeko lehiaketa abian da

21. aldiz antolatu du Kulturgura lehiaketa Gorbeialdeko Kuadrillak; domekarako bete behar da galdetegia

A.E. ARAMAIO

Gorbeialdeko Kuadrillak Kulturgura lehiaketa jarri du martxan, beste behin. 8 urtetik gorako herritarrei zuzendutako lehiaketa da; egin behar den bakarra da aramaio.eus atarian dagoen inprimakia deskargatu eta bete. Erantzun guztiak markatu ondoren, udaletxean entregatu beharko da galdetegia.

Epemuga: urtarilaren 10a

Pertsona bakoitzak galdetegi bakarra entregatu ahal izango du lehiaketan. Eta entregatu beharko da domeka baino lehen –urtarrilaren 10a–, udaletxean edo Gorbeialdeko Kuadrillako bulegoan.

Erantzun zuzenak dituzten artean zozketa egingo dute, urtarilaren 18an –saridunei jakinaraziko zaie–. Lau sari banatuko dituzte: 100 euroko bi bonu kirol materialean gastatzeko;

eta 100 euroko bi bonu liburu-denda batean gastatzeko.

Hainbat gai batzen ditu

21. Kulturgura lehiaketak zazpi galdera jasotzen ditu. Gai ezberdinak batzen dituzten galderak dira: historia, euskara, geografia... eta baita Gorbeialdeko Kuadrilla osatzen duten herrietako gaiak ere.

Galdera horien artean daude: 36ko gerrako kokaguneen berri ematen duen elkartearen izena zein den asmatzea; Santa Engrazia urtegia noiz inauguratu zuten ongi erantzutea; eta Amillena zeri deitzen zaion jakitea: kobazuloa, landarea, urtegia edo lainoa.

Pertsona bakoitzeko galdetegi bakarra onartuko dutela nabarmendu dute. Hala, lehiaketaren bitartez, Kuadrilla bera eta herriak hobeto ezagutzeko aukera egongo da.

Aldundiaren kultura bonuak, maiatzaren 31ra arte erabilgarri

Arabako Aldundiak kultura bonuak atera ditu. Kultura eta Kirol Sailak 55.000 euro bideratu ditu deskontu bonu gisa funtzionatuko duten kultura bonuetarako. Atxikitako establezimenduetan erostean deskontua eskatuko da eta momentuan aplikatuko da. Bonuak eskuratzeko, erabiltzailearen nortasun agiri zenbakia aplika-

zioan sartu beharko da, baimendutako bonuen kopurua ez dela gaintu egiaztatzeko.

Bonuak erabil daitezke euskarazko kultura ondasunak erosteko; euskarazko kultura zerbitzuak kontratatatzeko; euskara ez den gainerako hizkuntzetako ondasunak erosteko; eta euskara ez den gainerako hizkuntzetako zerbitzuak kontratatatzeko. Aldundiak, guztira, 4.575 kultura bonu atera ditu. 2021eko maiatzaren 31ra arte erabiltzeko aukera egongo da.

Taberna eta jatetxe gehienak zabalik gaurtik

Gabonetako sasoi "oparoa" galdu dute Aretxabaletako taberne eta jatetxeek; izan ere, ia bi hilabete egin dituzte ateak itxita. Atzo, eremu gorritik irten zen herria, eta berriro zabaltzeko aukera izanik gehienek erabaki dute irekitzea, zalantzak ere izan arren

Mirari Altube ARETXABALETA

Aretxabaleta eremu gorritik atera zen atzo, eguna, intzidentzia-tasa 451,98 izanik -14 egunetako tasa 100.000 biztanleko-eta, ondorioz, ostalaritza zerbitzuek zabaltzeko aukera izango dute gaur. Datua jaso orduko bilera egin zuten ostalariek atzo eguerdian, eta gehienak agertu ziren zabaltzearen alde. Hala ere, "ziurgabetasun handiaren" aurrean, ostalariek oso kezkatuta jarraitzen dute.

Gabonetako galerak

Gabonetan ez dute zabaltzeko aukerarik izan, eta hori "galera handia" izan da, Orly tabernako Igor Ezkibelek dioenez: "Gabonetan jasotzen den dirua oso garrantzitsua da, gero maiatz inguru arte irauteko. Aratuste-domeka salbuespen izanik, gainerakoan, maiatzera arteko hilabeteak behe denboraldia dira". Dagda tabernako Nerian Perezek berretsi egin du hori: "Jendea oporretan egoten da Gabonetan, eta hilabete oso polita izaten da negoziatorako".

Zabaltzeko aukeraren aurrean zalantzak izan dituzte ostalariek: "Hiru egunerako bakarrik ez nuke zabalduko. Eta baldintzak jakinda; 18:00etarako itxi behar izanez gero ez dudalako negozio-



Herriko taberna baten aurrealdea, eguaztenean. MIRARI ALTUBE

rik, eta gastuak, oster, bai", dio Ezkibelek, eta Perezek gaineratu du: "Bost langile ditut nik, eta ondo pentsatu beharko nuke noiz zabaldu. Oraingoan, uste dut aurrera egingo dudala".

Ia bi hilabete izan dituzte ateak itxita eta gehienek erabaki dute gaur zabaltzea. Dena den, oso kezkatuta jarraitzen dutela adierazi du Ezkibelek: "Asko daude larri eta urduri; gainera, Udalarren laguntzak oraindik ez dira iritsi. Ez dakigu noiz arte iraungo duen egoerak, eta horrek urduritasuna areagotu egiten du".

Elkarretaratzea gaur

Egoeraren berri emateko eta erreskate plan bat eskatzeko hainbat ekitaldi egin dituzte azken egunetan, eta horiekin jarraitzeko asmoa agertu dute; gaur, egubakoitza, Herriko Plazan elkartuko dira, 17:30ean.

Gainera, astelehenean, Euskadiko ostalariek egindako deialdiarekin bat egin eta Lakuara, Gasteizera, joango dira: "Gure eskaerak eramango dizkiegu". Hain zuzen, egun horretan elkartuko da LABI, neurri gehiago hartu edo ez erabakitzeko.

Hainbat eratarako antzezlanekin beteko da Arkupe urtarrilean

Sukalde kontuekin etorriko da Gorka Minguez domekan, eta 'El chef' bakarriketa saioa eskainiko du

M.A. ARETXABALETA

Antzezlanei egingo diete lekua urte berriko lehen hilabetearen Arkupen. Adin guztietako publikoari zuzendutako ikuskizunak izango dira eta sarrerak dagoeneko salgai dituzte kultura etxeko harreran.

Domekan, hilaren 10ean (19:00), *El chef* antzezlanarekin etorriko da Erre Produzioak konpainia. Gorka Minguez aktoreak sukaldaritzako eskola magistral dotorea eskainiko du, zaporeak, aromak eta testurak nahasteko frustrazioarekin, oroitzapenekin

eta inoiz bete ez diren itxaropenekin.

Urtarrilaren 15ean, egubakoitzean (19:00), oster, Behibi's Teatro taldeko Patricia Francok norberaren burua behatzeko ariketa egingo du, *Trabajos de interior* lanarekin.

Akuarelak erakusketa aretoan

Erakusketa aretoan, oster, Rakel Perez de Arenaza arrasatearraren akuarelak izango dira hilabetea bukatu artean. *Nire akuarelak* izenarekin hainbat lan ditu ikusgai martitzenetik.



NIRE USTEZ

JULEN ABASOLO

Mugak


Goienan agerketan dien niri antzerako sinatutako iritzi artikulua irakurteko zalie naz. Beste batzuk nire egoera eta aukera berien zer idazten dauien ikustie gustetan jat, bai.

Idazten dauena ezagune badot, irakurterakuen bere ahotsa garbi-garbi entzuten dot, eta horrek berresten deust baietz, bera izen dala hori idatzi dauena.

Pentsatuik beste batzuk be antzerako bizipenak izeten dituztela, bere egunien hemen neuk berba egitten doten moduen idazte erabaki neuen. Ez dakit erabaki zuzena izen zan, baine sinadurari besteko garrantzixe emuten dutzet neure iritzi bat agerketarakuen.

Bestalde, letretakue ez nazelako, ezta euskeraz eskolatutakue, atxekixie, behintzet, hor dauket, idazterakuen nire mugak berihela agerketan jataz. Denbora gehitxuau emunde ahalegine egitten dot, zerbait ezberdine esaten.

Eta esan bihera dauket: iecko konfinamentu gogorraren udaberriko egun hareitten goialde honetan bizi izen gauen pakie. Gauza edarra izan zan.



Odontologia estetiko
Endodontia
Implantologia

Ortodontzia
PADI zerbitzua
Hortz protesiak

Astelehenetik ostegunera: 08:30-20:00
Ostiralean: 09:00-16:00

Durana kalea 22 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 93 55

Urte oparoa izan da 'Erraiak' filmarendako

Ekain Martinez de Lizarduyk Arteman Komunikazio Taldearekin batera irrintziaren gainean egindako ikus-entzunezkoak interes handia piztu du nazioartean eta dagoeneko hamabi sari baino gehiago eskuratu ditu; besteak beste, Uruguain eta Indian

Mirari Altube ARETXABALETA

Orain dela bi urte pasatxo, 2018ko abenduaren 1ean, estreinatu zen *Erraiak* filma, eta orduan ereindako haziak uzta oparoa jaso du 2020an. Harrituta eta, era berean, oso pozik dago Ekain Martinez de Lizarduy zuzendaria, euskara eta irrintzia bera beste kultura eta sinismen batzuetara zabaldu izanarekin.

Dozena bat sari

Uztailean iritsi zen lehenengo saria, Montevideotik, hain zuzen ere, eta horregatik bakarrik berezia izan zen Aretxabaletan bizi den zuzendariarendako. Horren ondoren, dozena bat



Eskoziako garaikurrarekin. E.M.

etorri dira erreskadan: "Hama-bi bat uste dut izan direla; New Yorken, Erroman, Indian, Israelen, Los Angelesen, Eskozian... jaso ditugu. Azken bi horietan, gainera, publikoaren saria eskuratu du, eta horrek beste gehigarri bat ematen dio". Sariak ez dute dirurik ekarri, baina horrek ez du arduratzen: "Ez dugu euro bat ere jaso. Baina egindako lanari aitortza dira, eta, era berean, zabalkundea emateko modua".

Lehenengo, zinema jaialdi-tera zuzendariak berak bidali zuen filma, baina, ondoren, beste hainbatetatik eskatu egin diote aurkezteko: "Munichetik, India-

tik eta Hego Koreatik, adibidez, eskatu didate bidaltzeko. Ez dakit zelan izan den salto hori, baliteke epaimahaikideek elkar ezagutzea eta hortik etorri izana. Bat-batean, bizitza propioa hartu du filmak".

Euskararekin harrituta

Pozik dago harrera beroa izan duelako *Erraiak*-ek toki guztietan: "Euskarak harritu ditu asko, eta gero, oihuen munduak. European bertan ere bai". Pandemiaren erruz, jaialdietan bertatik bertara egoterik ez du izan Martinez de Lizarduyk: "Martxoan, baina, konfinamendua baino astebete lehenago, Bartzelonan izan nintzen, Euskal etxean. *Filmin* plataformaren sustatzaileetako bat zegoen han, eta, hari esker, hor ere badago".

Hurrengo proiektua buruan

Irakaslea da Martinez de Lizarduy, baina beste proiektutxoren bat badaukala buruan aitortu du: "Hurrengoan, animatzen banaiz, behintzat, film labur bat egingo dut, Gerra Zibilarekin zerikusia duena. Baina, horretarako, barne indarra behar da".

Loramendi euskara elkarteak teknikaria behar du

Dinamizatzailea behar du Loramendi elkarteak, urtarril bukaeran lanean hasteko. Astean hogeitau orduko lan-jarduna izango du eta haren egitekoak izango dira Aretxabaletako euskararen, kulturaren eta aisialdiaren gaineko proiektuak dinamizatzea.

Horretarako interesa duenari eskatuko diote euskaltzalea izatea, ekintzailea eta proaktiboa, eta dinamizaziorako eta kudeaketarako gaitasuna izatea. Era berean, kontuan hartuko dute aretxabaletarra izatea, euskalgintzan esperientzia duena eta oinarritzko IKT ezagutzak dituenak.

Azken eguna urtarilaren 15a da Interesatuak Loramendi elkartera bidali beharko dute curriculumak; hona hemen helbidea: euskara@loramendielkartea.eus. Horretarako azken eguna urtarilaren 15a izango da, egubakoitza. Argibideak gura dituenak Loramendira jo dezala.







Bihotzez ikasi

KURTZEBARRI ESKOLA

haur eta lehen hezkuntza (2-12 urte)

URTARRILAK 16 GOIEZ
BISITA GIDATUAK TALDE TXIKIETAN

HITZORDUA ESKATZEKO DEITU: 943 79 00 49
zuzendaritza@kurtzebarri.eus
* Banakako bisitak urtarilaren 18tik 29ra.

ZATOK GU EZAGUTZERA!

MATRIKULAZIO EPEA
Urtarrilaren 18tik 29ra

"Etxekoen gomendioak ezinbestekoak dira"

JOSE ANGEL PETRALANDA ARTISTA

Konfinamenduan, egur birziklatuarekin ordulariak egiten hasi zen Jose Angel Petralanda eskoriatzarra, Kerman semearen eta Naroa alabaren laguntzarekin

Imanol Beloki ESKORIATZA

Ordulari izenpean, egur birziklatuarekin ordulariak egiten ditu Jose Angel Petralanda *Petrus* eskoriatzarrak. Hasi berri duen proiektua bada ere, enkargu ugari jaso ditu denbora laburrean, eta opari gisa ere egin ditu beste asko. Hala, egitasmoan buru-belarri, bere piezen erakusleho gisa webgunea ireki du, bere lana ezagutzera eramateko.

Noiz hasi zara ordulariak egiten egur birziklatuari etekina aterata?

Hain zuzen, konfinamendu garaian hasi nintzen egur birziklatuarekin ordulariak egiten. Buztinezko erloju bat egin nuen etxerako, eta, Kerman semeari asko gustatu zitzaionez, egurrarekin egitera animatu ninduen. Horrela, ordutik hona, 23 pieza inguru egingo nituen etxekoen laguntzarekin; izan ere, Kerman semearen eta Naroa alabaren gomendioak jarraituz, gustura ari naiz egiten, eta ingurukoen iritziak ere positiboak izan dira, lanean jarraitzeko gogoia ematen duten horietakoak.

Hutsetik hasi da zaletasuna ala aurretik ere aritutakoa zara artisau lanetan?

Zubiate labean aritu naiz zenbait urtez buztingintza eta zerami-



Petralanda, tailerrean, zurezko erlojuekin lanean. JOSE ANGEL PETRALANDA

"BETIDANIK PENTSATU IZAN DUT ARTISAU LANAK EGITEKO TREBETASUN FALTA NUELA"

kagintza ikastaroan, baina esan beharra daukat artisautza lanak egiteko trebea ez naizela izan pentsatu dudala betidanik. Edozelan ere, jaso ditudan feedbackak positiboak dira; beraz, motibatuta nago.

Opari gisa egin dituzun arren, enkarguak ere jaso dituzu. Zein aukera ditu halako ordulari bat eskuratu gura duenak?

Egur birziklatuarekin ordulariak egiten ditudan heinean, erakusleho gisa, alabarekin batera sortutako *Ordulari20.wixsite.com/erlojuak* webgunean jartzen ditut piezak. Hala, interesa duenak bertan ikusi ditzan. Enkarguak jaso ditudan arren, opari gisa egin ditut gehienak, eta, jendearen erantzuna ikusita, gauza berriak egitera animatuta nago.



Koloreztatutako oholekin egindako erloju bat. ORDULARI



Pinuaren enbor zati batekin egindako erloju bat. ORDULARI



Jesus Fernandez de Arroiabe, ziklo-kros lasterketa batean, Bergaran. ESKORIATZA IRUDITAN

'Matxain' hil da, txirrindulari eta plater-tiratzailer ezaguna

Jesus Fernandez de Arroiabe munduko txapelketetan aritu zen plater tiroketan eta ziklo-krosean

I.B. ESKORIATZA

Urtarrilaren 5ean hil zen Jesus Fernandez de Arroiabe *Matxain* (Eskoriatza, 1934). Maulanda tabernan jaioa, gaztetan txirrindularia izan zen, baina plater tiroketarekiko zaletasuna ere bazuen, eta bietan lortu zituen emaitza paregabeak.

50eko hamarkadan, Espainiako ziklo-kros txapelketetan parte hartu zuen, Sabadellen, eta munduko txapelketetan ere egon zen, Luxenburgon, Espainiako selekzioarekin, eta sailkapenean 26. postuan geratu zen. Txirrindularitza utzitakoan,

berri, plater tiroketan jardun zuen, eta argi dago punteria aparta zuela. Izan ere, hiru bider izan zen Espainiako txapelketetan hartu zuen parte, eta 1980ko Errusiako Olinpiar Jokoen brontzezko domina eskuratu zuen, eta baita 1989an beterranoen munduko txapelketan ere, Lisboan.

Hileta elizkizuna, gaur

Haren aldeko hileta elizkizuna Eskoriatzako San Pedro parrokiaren izango da gaur, egubakoitza, 19:00etan.

GORA ETA BEHERA



Estazio zaharreko skate parkea, tamalgarri

Estazio zaharraren alboan, Aingeru Guarda pasealekuan dagoen skate parke zirkuitua 2017an berritu zuen Eskoriatzako Udalak, hondatuta eta arriskutsu zegoelako. Konponketa lanak egiteaz batera, berrikuntzak ere egin zituzten, baina gaur egun ere ez dago erabilgarri.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo 688 69 00 07.



Josten ikasteko saioak, sormena landuaz batera

Haurrei eta nerabeei zuzendutako jostkintza eta ehungintza sormeneko ikastaroa eta helduentzako jostkintza ikastaroa antolatu ditu Lourdes Martinez eskoriatzarrak. Atzo hasi zituzten saioak, baina parte hartu nahi duenak aukera du oraindik izena emateko

Imanol Beloki ESKORIATZA

Lourdes Martinez eskoriatzarrak urte berriarekin batera proposamena egin die herritarrei jostkintza ikastaroan parte hartu dezaten. Batetik, haurrei eta gaztetxoek zuzendutako jostkintza eta ehungintza sormeneko ikastaroa antolatu du; eta, bestetik, helduentzako jostkintza saioak.

Izen-ematea abenduan ireki zen eta lehenengo saioak atzo egin zituzten parte-hartzaileek. Hala ere, irakasleak jakinarazi duenez, aukera dago oraindik izena emateko, haurren ikastaroan zein helduenengan. "Atzo hasi genituen saioak, baina aukera dago oraindik izena emateko. Eguazten eta eguenetan egingo ditugu tailerrak, kultura etxean, baina ordutegian aldaketak egitea ere ez dugu baztertzeko. Beraz, gozoz dagoena animatu dadila jostkintzaren mundua ezagutzera, eta, bide batez, sormena lantzerako", adierazi du Lourdes Martinezek, jostkintza ikastaroa irakasleak.

Izen-ematea zabalik dago

"Oraingoz, bederatzi hurrek eman dute izena haurren eta nerabeen jostkintza eta ehungintza sormeneko ikastaroan. Gehienek 9 urte dituzte, baina,



Haurren saioei begira, eredu horien antzekoak egitea da asmoa. LOURDES MARTINEZ

esaterako, bi partaide ditut 7 urtekoak, eta 14 urte dituen bat ere animatu da parte hartzera", adierazi du Lourdes Martinezek, jostkintza ikastaroko irakasleak. "Haurren kasuan, hasiera batean, bi taldetan hasiko gara adin guztietako haurrak nahastuta, baina, izen-emate gehiago egonez gero, adinaren arabera banatzea da asmoa", esan du Martinezek.

Haurren eta nerabeen saioetan, jostkintzaren gaineko oinarriko kontzeptuak ikasteaz batera, beste zenbait lantxo

egiteko aukera ere izango dute partaideek; helburu nagusia sormena lantzea da.

Saioak, momentuz, eguenetan

Haurren saioak eguenetan, 16:30etik 17:45era eta 18:00etatik 19:15era bitartean izango dira, kultura etxeko bigarren solairuan. Helduen saioak, berriz, eguaztenetan eta eguenetan izango dira; saioak goizez eta arratsaldean egingo dira. Informazio gehiagorako, 658 75 13 75 telefono zenbakira deitu edo idatzi daiteke.

Otarreak badu irabazlea

EskoZap taldekoek bertako produktuz betetako otarra zozketatu dute, eta sariduna Sheila Caballero izan da. Jakioneko askotariko kontserbak, buzkantzak, Gatzagako gatza eta artisau xaboia, ukendu naturalak, Mendibitzuko gazta eta sagar-zuku naturala, besteak beste, jaso ditu EskoZap taldeko ordezkari lurre Romaretazabalaren eskutik.



ESKOZAP ELKARTEA

Olazarko lanak amaitzeko asfaltatzea falta da

Azaroko azken astean hasi zituzten Olazar auzoko aparkalekuen konponketa lanak, eta, Gabonetan gelditu diren arren, aparkalekuen asfaltatze lanak bakarrik geratzen dira. Zuhaitzak botata, espaloi zatiak kenduta eta farolen eremua txukunduta, datozen egunetan ekingo diete berriz lanei; eguraldiaren arabera luzatu egin daitezke.

LEINTZ GATZAGA 21



Gatzagan gora, elurte handiaz gozatzeko aprobetxatu dute askok. BEÑAT AGIRREURRETA



Arrate baserri atzeko belardian haurrak jolasean, astelehenean. IRINA ALVAREZ

Belardietan beheara eta gora, elurretan barrena zein azkarren

Elurraz gozatzeko, lera gainean jaitzierak egiten eta elkarri elur-bolak botatzeko aritu dira gaztetxoak

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Urte berria zurututa hasi du Leintz Gatzagak. Lehenengo elur-maluten ondorioz, Eskoriatzatik Gatzagarako errepidea eta Arlaban mendatea zenbait egunez itxita egon arren, elurra kentzeko makinak egindako lanaren ondorioz errepideak zabalik eta garbi izan dira astean zehar. Herri barruan, berriz, kaleak zurututa izan diren arren, udal zerbitzuek zenbait bide egin dituzte oinezkoen herri barruko joan-etorriak seguruagoak izateko, eta gatza bota dute zenbait tokitan, jendea irristatu ez dadin.

Horrekin batera, elurra egin izanak poztasun gehien herriko haurrei sortarazi die. Izan ere, Gabonetako jaiegunetan gonda, elurretan jolasteko aprobetxatu dituzte azken opor egunak, eta, herrian egindako elurraz nahikoa ez, Gatzagatik gora igo dira zenbait egunetan, elur gehiagoren bila.

Herriko haurrak, gozatzeko

Astelehen goizean, esaterako, Arrate baserri gaineko belardian aritu ziren herriko gaztetxoak elur-panpinak egiten, elur-bola gerrak egiten, lera gainean lasterketak egiten... Gainera, jaitziera bizkorrek egiteaz batera, saltoak egiten ere izan ziren ausartenak, elurraren kontrako kolpeen beldur barik ibilita.

Beste zenbait herritar, aldiz, belardi horretatik gora aritu dira egunotan, baina, kasu horietan elur-erraketan laguntzarekin.

Izotza astebururako

Asteburura begirako iragarpenen arabera, bestalde, elurra eta izotza egingo duela jakinarazi du Euskalmetek. Zapatuan, esaterako, Leintz Gatzagan -5 graduko minimoak eta -3 graduko maximoak izan daitezkeela adierazi du.

Eskolan sartu dira, erabili ahalko duten jakin gabe

Deba Bailara Kontseilu Sozialistak Zubietako eskola zaharra okupatu du, eta, akordiorako "prestutasun osoa" izan arren, han jarraitzeko asmoa dutela diote; Udal Gobernuak batu da haiekin eta bizilagunekin, eta txosten juridikoaren eta teknikoaren zain dago

Jokin Bereziartua BERGARA

Abenduaren 26an sartu zen Deba Bailarako Kontseilu Sozialista deritzon kolektiboa Zubietako eskola zaharrean. 2020ko abendu amaieran eskualdez eskualde aurkezten joan dira era horretako kontseiluak Euskal Herrian; Iruñerrikoa izan zen lehena. Deba bailarako kontseiluko kideek azaldu dute ze helburu politiko duen "belaunaldi ezberdinen arteko" ekimenak: "Burgesiaren instituzioen aurrean, proletarioaren interesen alde jardungo duten instituzioak eraikitzea izango da gure apustu politikoa".

Interes handia piztu duen lekua

Jardun izan zen modu arautuan eskola zaharra erabili zuen azken elkarte, eta, ordutik beste eragileren batek erabili izan badu ere, hiru urte pasa daroatza eskola zaharrak hutsik eta itxita. Baina horrek ez du esan nahi Udalak ez duenik gune horri erabilera bat emateko



Kontseilu Sozialistako kide batzuk Zubietako eskola zaharrean, hilaren 5ean. J.B.

interesik. Gaur egungo Udal Gobernuak 2021 bukaeran has-tekoak diren Zubietako kalea berriro urbanizatzeko proiektuaren barruan "aukera errealean artean" dauka eskola zaharrari beste erabilera bat ematea: "Be-

tiere, bizilagunekin adostuta". Bestalde, EAJk ere 2019ko udal hauteskundearen kanpainan iragarri zuen Zubietako eskola zaharreko eremua birkalifikatzeko eta etxebizitza berriak eraikitze asmoa zuela.

"Ate irekiak" eginda, lau hitzaldi Helburu nagusi baterako hartu dute eskola: "Hausnarketa eta eztabaida politikoen gune, eskaintza kulturalen plaza eta lan politiko eta sindikala gauzatzeko espazio bilakatu nahi dugu". Herrian beste eraikinik erabiltzeko aukerarik baduten galdetuta, kartzela zaharrean batu izan direla diote, baina mugimendua kuantitatiboki eta kualitatiboki hazten joan den heinean behar berriak sortu zaielako sartu direla eskola zaharrera. Eta, GOIENARI adierazi diotenez, Udalarrekin akordioa egiteko "prestutasun osoa" dute, baina akordio-rik ez balego ere bertan jarraituko lukete, salaketaren bat jaso arte. Martitzenean eskolako ateak ireki zituzten, bizilagunei ere euren proiektuaren berri emateko, eta beste lau hitzaldi ere antolatu dituzte, besteak beste.

Gobernuak, txostenaren zain

Udal Gobernuak, auzotarrekin eta Kontseilu Sozialistako kideekin batzartu ostean, azaldu du ekintzak auzoan "harridura eta jakin-mina" piztu dituela: "Eragile sozialek proiektu berriak sortzeko gogoia izatea eta horiek martxan jartzeko determinazioa izatea ona da, baina proiektuak garatzeko eragileek behar dituzten espazio publikoen erabilerraren inguruan ohiko prozedurak jarraitzea beharrezkoa da". Bestalde, gogorarazi dute Zubietako eskola erabiltzeko eskaerak

jaso dituztela aurretik, baina eraikinak ez dituela segurtasun eta irisgarritasun baldintzak betetzen, eta horregatik egon dela hutsik orain arte: "Orain, txosten juridikoa eta arkitektoaren txostena jasotzeko zain gaude, eta horiek jasotzen ditugunean erabakiko dugu ze pauso eman".

Labegaraietako adibidea

Udal Gobernuak bozeramaile Nagore Inurrategik gogorarazi du Labegaraietako kiroldegia berritzean auzotarrek gune berri bat izango dutela: "Zubietako eskola zaharrak hainbat eskaera jaso ditu; tartean, bizilagunekin ere bai. Beste batzuetan egin izan da inbertsio handi bat egiterakoan auzotarrei gune bat eskaintzea, Labegaraietan egin den moduan. Zubietako berritua urbanizatzen denerako aukera hori badago". Arazoak arazo, "argi" dute bidea elkarriketa dela: "Udal eraikinak Udalak kudeatzen ditu, baina bergarar guztionak dira, eta horien kudeaketa herritarrekiko eta udal ondasunekiko errespetuz egin nahi dugu. Argi dugu, baina, egoera hauek kudeatzeko modua elkarriketa dela".

ERAIKIN PUBLIKOETAN SARTZEKO "OHIKO PROZEDURA" SEGITU BEHAR DELA DIO UDAL GOBERNUAK

600.000 euro baino gehiago bideratu dira erosketa bonuetan

6.924 bonu erosi dituzte herritarrek; horietatik 5.384 establezimenduetan erosi dira eta gainerakoak, online

J.B. BERGARA

Udalak asteon eman ditu aditza abenduaren 31n bukatu ziren erosketa bonuen kanpainako datuak: "Merkataritzaren, ostalaritzaren eta zerbitzuen sektorean kontsumoa sustatzeko helburuarekin, 2020ko udazkeneko erosketa-bonuen kanpainan 607.584 euro bideratu zaie aipatu sektoreei 4.254 eroslek egindako erosketen bitartez".

16 urte baino gehiago dituzten Bergaran erroldatutako herritarrek izan dira diruz lagundutako erosketa-bonuen onuradunak.



Bergarako arropa denda bat. GOIENA

4.254 erosleek 6.924 bonu erosi eta erabili dituzte.

Gehienak, establezimenduetan

Udal Gobernuak "pozik" dago bonuen bigarren kanpainak izan duen harrerarekin: "Balorazio sakonagoa aurrerago egingo dugu, baina argi esan daiteke erabaki egokia izan dela bonuak dendetan bertan erosteko aukera eman izana; izan ere, 5.384 bonu saldu dituzte establezimenduetan bertan, *offline*, eta 1.540 saldu dira online *bergara.bonoak.eus* plataformaren bitartez. Udalberriaren egin zen lehen kanpainan bonuak online eskuratzeko aukera bakarrik izan zen". Erabilitako bonuen balioa 607.584 eurokoa izan da. 492.741 euro erosleek ordaindutako dirua, eta, hortaz, 114.842 izan da hoberiaren kopurua.

OHARRAK

BKEren Gabonetako saskiko zenbaki sarituak

Lehen saria –otarre erraldoia eta iPada–: 2.864 –ordezkia, 2.298–. Bigarren saria –patinete elektriko–: 9.127 –ordezkia, 4.390–. Hirugarren saria –*B the travel brand* opari txartela–: 8.188 –ordezkia, 7.037–. Laugarren saria –telebista–: 4.215 –ordezkia, 4.391–. Bosgarren saria –BKEko materiala–: 1.606 –ordezkia, 4.929–.

Erakusketa Laboratoriumen: euskara aztergai

Urtarrilaren 24ra arte luzatu dute *Heriotzarako erromatar ohiturak Soriako Tierras Altas eskualdean. Euskararen aztarnak antzinako epigrafian* izeneko erakusketa ikusteko aukera. Erakusketako komisario Eduardo Alfarok hitzaldia emango du hilaren 22an Seminarixoan; izen-ematea: www.laboratorium.eus.

Txapa Irratia: lehen kuña lehiaketa irekia

Domekara arte bidali ahalko dira audioak; gehienez, 30 segundo. *Txapa Irratia* berbak entzun beharko dira audioan. Honako helbide honetara bidali behar dira: txapa35urte@gmail.com.

Euskal presoak: manifestazioa eta Brigade Loco

Manifestazioa plazatik irtengo da (17:30) eta gero Brigade Loco kontzertua emango du seminarioko karpan, 19:00etan.

"Burua altxa eta 2030eko Bergara eraiki dezagun"

NAGORE IÑURRATEGI UDAL GOBERNUKO BOZERAMAILEA

Pandemiako "urgentziei eta behar berriei" erantzuten jarraitzeaz gain, Agenda 2030ari "izaera estrategikoa" eman nahi diote: "Gure bizimodua aldatu beharko dugu, nahitaez"

Jokin Bereziartua BERGARA

Urte eta erdi pasa daroa Nagore Iñurrategi (Bergara, 1978) EH Bilduko zinegotzi, eta, COVID-19ak agintaldi osoa baldintzatu-ko badu ere, sinistuta dago 2030eko Bergara "lehenbailehen" eraikitzen hastea "ezinbestekoa" dela. **Lehenengoz zinegotzi zure herrian. Nolako esperientzia ari da izaten?** Orain arte nahikoa lan izan dugu Udal barruko ertz, geruza eta hari mutur guztiak ezagutzen. Banekien konplexua izango zela Udaleko logika ulertzea, baina eskerrak konplexutasun hori ulertzeko sekulako taldea dudala ondoan; talde politikoaz gain, teknikariek asko lagundu didate. **Erabat berria zen lan bati mundu mailako pandemia bat gehitu zaio.** Agintaldiko lehen urtea bete barik geundela harrapatu gintuen COVID-19ak. Udal barruan kokatu eta gure proiektuak abiatzera gindoazenean, dena geratu behar izan genuen, pandemiagatik. Gure akatsekin, baina uste dut ondo kudeatu dugula erabat berria zen egoera. Pandemian gaude oraindik ere, baina hasieran baino informazio gehiago eta segurtasun handiagoa dugu, eta ginetik dauden erakundekin hobea da elkarlana. Orain, pauso berriak ematea dagokigu, eta hor kokatu nahi dugu plan



Nagore Iñurrategi, Bergarako udaletxean. JOKIN BEREZIARTUA

estrategikoa, Agenda 2030arekin batera garatuko duguna.

Zer da Agenda 2030? Zeintzuk lirateke bete beharreko helburuak? 2015ean Nazio Batuetako 193 herrialdek adostu zuten 2030erako bete beharreko hamazazpi erronka zehazten ditu Agenda 2030ak, garapen jasagarria ardatz hartuta. Udalean sartu ginenean esan genuen plan estrategiko bat sortu nahi genuela bergararrekin batera, 2030ean nolako Bergara nahiko genukeen erabakitze ahali eta kontsentu handienarekin. Baina, Jaur-

laritzarekin parte-hartze prozesu bat diseinatzen ari ginela, ohartu ginen Agenda 2030a badatorrela mundu mailan. Horregatik, helburu horiei izaera estrategikoa emango diegu, helburu horiek beteta hasierako plan estrategikoa beteko dugula sinistuta.

Lau arlotan eragin nahi duzue: azaldu arlo bakoitzeko helburuak.

Lurralde arloan, hirigintzarekin lotutako gaiak landuko dira eta aztertze gaien artean egongo dira, besteak beste, lurraldea eta antolamendua; bioaniztasuna eta ingurune naturala; paisaia;

mugikortasuna eta garraioa; lurzoruak; ura; energia; hondakinak; klima aldaketa; landa-bideak... Bigarren arloa herritarrena da eta landuko diren gaien artean daude, besteak beste, ongizatea eta gizarteratzea, osasuna, kultura, kirola, euskara, hezkuntza, berdintasuna, demografia, migrazioa, giza-eskubideak... Hirugarrenik, ekonomia arloak mahai propio bat behar duela uste dugu; are gehiago, 2020ak utzi duen krisiarekin: lan-merkatua, udalgarapena, enplegua, enpresen sorrera, merkataritza, azoka, lehen sektorea, industria, turismoa eta kontsumoa landuko lirateke, esaterako. Azkenik, gobernantzari dagokionez, arlo guztiek zeharka izan beharreko elementuak hauek dira: iraunkortasuna eta jasagarritasuna; sentsibilizazioa eta komunikazioa; herritarren parte-hartzea; koordinazioa; eta gardentasuna.

Nola saihestu helburu horiek hausnarketaren linboan geratzea?

Prozesua lan-tresna batekin amaituko dugu, kronograma bat izango duen plan zehatz batekin. Bergararen ahalik eta argazki zehatzena atera ostean, ekintza zehatzak planteatuko ditugu.

Noiz izango da hori?

Urtarrilean zehar Izadi 21 enpresak egindako diagnostikoa izango dugu. Diagnostiko hori herritarrekin partekatzea eta osatzea da asmoa; hori izango da Bergarako A2030 garatzen hasteko oinarria. Ondoren, lantaldeak martxan jarri ostean, udako oporretarako behin betiko txostena esku artean izatea aurreikusten dugu.

Ze eginkizun izango luke Udalak prozesu horretan guztian?

Herritarrekin eta eragileekin batera egin nahi dugu bidea,

idatzita utziko dugun Bergara horretara heltzeko urratsek ahalik eta adostuenak izan behar dutelako. Hori bai, Udaleko arlo teknikoak ekintzak ekonomiko-ki bideragarriak diren esango digu, besteak beste. Adibidez: herritar batek *resort* bat jarri nahi badu Bergaran, erantzungo diogu ez duela, batetik, A2030eko helburuekin bat egiten eta, gainera, ez dela bideragarria.

Eguneroko pandemikoan bizi den herritar horri zer esango zenioke A2030 garatzearen garrantziaz?

Esango nioke bi planotan egin behar dugula lan. Urgentziei eta behar berriei erantzun behar izan genien lehen hilabeteetan, eta jarraituko dugu lan horretan, baina, berandu izan baino lehen, burua altxatu behar dugu eta aurrera begira jarri. Gure bizi eredu mundua agortzen ari da, eta nahitaez aldatu beharko dugu; gure eskuetan dagoena da ezinbesteko aldaketa hori noiz hasi.

Badira baldintzak adostasunerako?

Guk bide guztiak irekiko ditugu adostasunerako. A2030eko garapen iraunkorrerako helburuekin adostasun politikoa ez egotea zaila izango da; beste kontu bat da egiteko moduetan ikuspegi ezberdinak egon daitezkeela.

Debagoiena 2030 proiektuko parte ere bada Bergarako Udala. Osagarri ikusten dituzu bi ekimenak?

Erabat osagarriak dira eta ziur nago bidean bat egingo dugula. Ez dakit une oro batera joango garen, baina elkar elikatzea ezinbestekoa izango zaigu.

"URTARRILEAN DIAGNOSIA JASO OSTEAN, UDARAKO AZKEN TXOSTENA IZATEA ESPERO DUGU"

Mizpirualdeko egoiliarrendako

Errekalde parkeko eremu bat Mizpirualdeko egoiliarrek bakarrik erabiltzeko moduan dago abenduaren 23a ezker, honako ordutegi honetan: asteleheneetik egubakoitzera, 16:00etatik 19:00etara. Gabonetan ez da apenas erabili, eguraldi txarragatik. Gaur egun, Mizpirualdek 88 herritarri ematen die zerbitzua eta 99 herritarrendako lekua dauka.



JOKIN BEREZIARTUA

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Emendakinak aurkeztu dizkie EAJk aurrekontuei

Bost arlotan banatu dituzte jeltzaleek 2021eko aurrekontuendako proposamenak: herriarren ongizatea, lurraldea, ostalaritza, kultura eta udal jarduna. "Ezin da herria gelditu, guztion ongizatea jokoan baitago", azaldu du Elena Lete bozeramaileak

J.O./E.A. BERGARA

Bergarako Udal Gobernuak ia 24 milioi euroko aurrekontua proposatu du 2021erako, 2020koa baino %5,6 txikiagoa. Pandemia egoera betean prestatutako aurrekontua dela eta, egoerak kaltetutako sektore eta pertsonen erantzuteko ahalegina egin dute, bereziki, Gorka Artola alkateak azaldu duenez. Hala, gizarte zerbitzuetan %7 inguruko igotzea aurreikusten du Gobernuak, eta sustapen ekonomikoan %10ekoa. Orokorrean, baina, aurrekontua txikiagoa izateak Udalaren inbertsio ahalmenean eragina izango duela azpimarratu du Artolak: "Diru sarrerak txikiagoak izango diren heinean, inbertsiorako gaitasuna ere baldintzatuta egongo da, nolabait, orekatu ahal izateko ekainetik aurrera landu dugun kredituaren eskaera. Aurretik ere aurrekontuen birplanteamendua egin zenean, 2020an, airean geratu ziren hainbat proiektu, eta horietako batzuk 2021erako jasota daude, edo urtean zehar landuko dira".

Aurrekontu "malguak"

Alkateak azaldu du 2021a ere nahiko urte berezia izatea aurreikusten dutela, eta, hori kontuan hartuta, aurrekontu "malgua" proposatu dutela: "Aldagariak edo, behintzat, malguak diren aurrekontuak proposatu ditugu; jaiak eta halako ekimenak partidetan jaso ditugu urte osoan zehar, baina beti malgutasun batekin, beste behar batzuk sortuz gero horiei erantzuna eman ahal izateko".

Oposizioan dagoen alderdi jeltzaleak, bestalde, 13 emendakin aurkeztu dizkie aurrekontu proposamenari, ez baitu ikusten zaurgarritasun egoeran dauden eta egoerak gehien kaltetu dituen herriarren sektoreak laguntzen eta babesten dituenik. "2020ko aurrekontuaren jarraipena da



EAJk abenduaren 28an eman zuen aurkeztutako emendakinen berri. E.A.

"2020KO AURREKONTU JARRAIPENA DA GOBERNUAK AURTEN AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA"

Gobernuak aurkeztu duena, besterik ez. Partida bakarria dago COVID-19ari aurre egiteko, eta ez dugu uste hori nahikoa denik", azaldu du Elena Letek, Bergarako EAJren bozeramaileak.

"Ondarea balioestea"

Hori dela eta, hainbat zuzenketak proposamen egin dituzte jeltzaleek. Herriarren ongizateari dagokionez, alde batetik, itxita dagoen Boni Laskuraingo lokalean kalte arinak dituzten bergararrentzat eguneko zentroa egokitzea, hileta zibiletarako gunek bat sortzea eta 2021ean jaiotakoei laguntzeko programa.

Bergarako EAJk "argi" dauka herriko ondarea kontserbatzea eta balioestea Udalari dagokiolako, eta, hortaz, Elizarekin hitzarmen bat sinatzea proposatzen dute, San Pedroko gangak bisitatze moduan jartzeko, eta

Santa Marinako zubiaren argiztapenaren aldeko apustua ere egin dute.

Zubieta eta parkinga

"Egiteke geratu dira herriarrek oso beharrezkoak dituzten bi proiekturen exekuzioak, eta martxan jartzeko beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak eskuragarri jartzea proposatzen dugu. Bata Seminarixoko parkinga da eta bestea, Zubieta auzorako plan integral bat".

Boluko malda egonkortzeko idatzita dagoen proiektua exekutatzea eta Martokoa eraberritzeko proiektua garatzea, Arrizuriaga Factory proiektuaren idazketa garatzen hasteko partida zehaztea edota batzordean bideo aktak txertatzea ere proposatu dute jeltzaleek. Ostalaritzari dagokionez, karpak edo estalpeak ipintzeko dirulaguntza zuzenak ematea proposatzen dute. "Estalpea ezartzea ekarriko duen inbertsioaren %25 Udalak asumitzea proposatzen dugu". 200.000 euro bideratuko lituzkete horra. Ondo bidean, hilaren 25ean onartuko du udalbatzak 2021eko udal aurrekontua.



Moldaketa berriarekin segurtasuna handitu eta kutsatze maila murriztu gura da. J.O.

30 kilometro orduko abiadura muga ezarri dute Bergara osoan

Errei bakarria eta zirkulazioaren noranzko bakarria duten kaleetan, muga 50 kilometro ordukotik 30era pasa da

J.O. BERGARA

Bide-segurtasuna handitzeko asmoz, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak (DGT) zirkulazioaren erregelamendu orokorra moldatu du, eta, hain zuzen, moldaketen artean dago, besteak beste, errei bakarria eta zirkulazioaren noranzko bakarria duten kaleetan abiadura muga 50 kilometro ordukotik 30 km/h-ra pasatzea. Hala, Bergaran, herrigune osoan joan beharko dute ibilgailuek, gehienez, 30 kilometro orduko abiaduran.

"Segurtasun handitu"

Beraz, Bergarako Udalak urtea hastearrekin batera ekin dio egokitzenari, oinezkoen segurtasuna handitzeko helburuarekin. Gainera, Udaletik zehaztu dutenez, moldaketa berriek autoen kutsatze maila murriztea aurreikusten dute. Beste hainbat lekutan ere jada hasiak dira

egokitzenari egiten; hain justu ere, 2021eko ekaineko herri guztiek egin beharko dituzte moldaketa horiek.

Seinaleak jarrita, indarrean

Urtea hastearrekin batera, eta moldaketa bete ahal izateko, astelehenean, urtarrilak 4, hasi ziren Bergarako Udaleko langileak herriko sarreretan 30 kilometro orduko abiadura muga ezartzen duten bide-seinaleak jartzen.

Udalak zehaztutako planaren arabera, Bergara iparraldeko sarreratik hasi, eta ondoren ekialdekoan, hegoaldekoan jarraian eta Elosuko barne sarrerarekin amaitzea da helburua. Abiadura-mugaren seinaleak herri sarreretan dauden lokalizazio-seinaleen gainean jarriko dira, eta aurreikuspena da aste honetan bertan bide-seinale guztiak jartzeko.

47 ke-detektagailu jarri dituzte 2020an adinekoen etxeetan

2020ko irail eta abendu artean, gizarte premiak antzeman eta suteak ekiditeko programa garatu da Bergaran, Gizarte Zerbitzuen bitartez. Hain zuzen, programa da 80 urte baino gehiago izanik bakarrik edo 65 urtetik gorako beste norbaitekin bizi direnendako.

2020an, 56 herriarri eskaini diete zerbitzua jartzea, eta ho-

rietatik 45i jarri. Bisitatutako 36 etxetan (%81,8) ez da arriskurik identifikatu, baina beste zortzitan (%18,2) hainbat arrisku antzeman, eta horiek zuzentzeko neurriak proposatu dizkiete. Hala, denera, 47 ke-detektagailu jarri dira etxe batzuetan bat baino gehiago jartzen da. Alta berriak eta egindako mantentzeak kontuan hartuz, orain zerbitzuan 592 etxebizitza erabiltzaile daude eta, guztira, funtzionamenduan dauden ke-detektagailuak 689 dira Bergaran.



Emon taldeko kideak, itzulera iragartzeko erabilitako argazkian, tartean Biken Larrañaga gitarra jole berria dela. EMON

Lau urteko geldialdiaren ostean, bueltan da Emon

"Ilusio handiz" ari dira Emon talde bergararreko kideak taula gainera itzulera prestatzen. Iazko urtarrilean eman zuten itzulera gauzatzeko lehen pausoa, baina, pandemiarengatik, urtebete atzeratu dute; otsailean kontzertua egin gura du taldeak

Jone Olabarria BERGARA

"Atea guztiz itxi gabe" utzi zuen Emon taldeak duela lau urte baino gehiago, euren ibilbidean geldialdia egingo zutela iragarri zutenean. Taldeko kide Aritz Alustizak azaldu duenez, taula gainera bueltatzeko unea "kasualitate batek" eragin duela zehaztu du: "Urte askoan zehar gure teknikaria izan dena iaz ezkontzekoa zen eta aitortu zigun ilusioa egiten ziola bere ezkontzarako batu eta Emonek kantu pare bat jotzea".

Hautsa kenduta, "martxan"

Hala, 2020ko urtarrilean hasi ziren berriz ere batzen, eta, lehenengo entsegu deitu bezain laster, etxean sartu behar izan zutela aitortu dute. Bai ezkontza baita itzulera atzeratuak izan ziren arren, berriz ere martxan jartzeko gogo dagoeneko piztua zela azaldu dute: "Gure asmoei eutsi, eta udan sartu bezain laster gure anplifikadore, mikrofono eta katxarro guztiei hautsa

kendu eta martxan jarri genituen berriz ere".

"Indarberrituta"

Lau urte pasa dira geldiuenea erabaki zutenetik, eta, aitortu dutenez, "ilusio handiz eta indarberrituta" dator taldea. Hala, hainbat berrikuntza prest dituzte; buelta ospatzeko kontzertu berezi bat egiteko asmoa dutela zehaztu du Alustizak: "Seguruenik, otsailean". Hala ere, oraindik guztiz zehazteke dagoela azaldu dute. Laster jakinaraziko dute sarrerei buruzko informazio gehiago.

Bestetik, kantu berri bat grabatu eta prest dutela ere azaldu dute, plataforma digital guztietan entzungai izango dena.

"UDAN SARTU BEZAIN LASTER, GURE TRESNEI HAUTSA KENDU ETA MARTXAN JARRI GENITUEN BERRIZ"

Erronka berrirako "prest"

Taldea osatzen dutenei dagokienez badira aldaketak ere; Biken Larrañaga Emonera batuko da, gitarra-jole modura. Lemak taldeko kidea ere bada Biken Larrañaga bergarar gaztea, eta, hain zuzen ere, Alustizak azaldu du bertatik iritsi zela taldera batzeko aukera: "Lemak taldeak udan eskainitako kontzertu batean ikusi genuen Biken, eta, hala, gurera batzeko proposamena helarazi genion".

2010ean, *Piztu herria*, ska eta rockaren arteko diskoarekin egin zuen debuta Emon talde bergararrak. Ostean, doinu latinoagoetara jo, eta *Konfeti kolore* bigarren diskoa kaleratu zuten, 2013an. 2014an, *Sua* lana kaleratu zuten, baita Gipuzkoako Ikastolen Jaialdirako *Demasa* kantua (2016). Argentinan kontzertua eskaini zuten 2016an, Necochea herrian. Hain zuzen, Euskal Asteko ospakizunen baitan eskaini zituzten bergararrekin bi kontzertu.



BKEko lehendakari Iosu Elorza eta Arantzazu Oregi, artxiboko arduraduna. J.O.

Artxiboko futbol irudiekin osatu du BKEk 2021eko egutegia

Egutegian ageri diren irudiak Bergarako Udal Artxiboko fondoetatik berreskuratutakoak direla azaldu dute

J.O. BERGARA

Urtero argitaratu ohi du Bergara Kirol Elkarteko futbol sailak klubeko talde ezberdinen argazkiekin osatutako egutegia. Aurtun, baina, egoerak behartuta, argazki zaharrekin osatutako egutegi ezberdin bat egitera behartuta egon direla azaldu du BKEko lehendakariak, Iosu Elorzak: "Bizi dugun egoeran, ezinezkoa ikusten genuen talde guztiak elkartu eta argazkiak ateratzea. Buelta pare bat eman, eta atzera begirako bat egitea erabaki genuen".

Artxiboa, "ezinbesteko"

Talde argazkiak egiteko zailtasunak artxiboko argazkietara jotzeko bidea ireki diela aitortu du Elorzak; horretarako, Udal Artxiboarekin elkarlana ezinbestekoa izan dela azaldu dute. Bertan argitaratuko argazki guztiak Udalaren fondoan gor-

detakoak dira, garai eta egoera ezberdinak uztartuz; betiere, futbol munduan oinarrituta. "Udal Artxiboak argazki fondo asko ditu, milaka, eta asko eskertzen dugu herritarrek informazioa ematea, sareetan partekatzen ditugunean, esaterako, zer urtetakoak diren, zeintzuk agertzen diren...", azaldu du artxiboko Arantzazu Oregik.

Urteurrenerako erakusketa

Une esanguratsu eta argazki bereziak aukeratu dituzte, jendearen gozamenerako, eta ekimen honekin klubak bigarren helburu bat ere baduela aitortu dute. Bilduma osatuago batekin, 2022an erakusketa erraldoi bat egitea da asmoa, klubaren 70. urteurrenako ospakizunen artean: "Dagoen artxiboa begiratu, gordeta dauden argazkiak atera eta ea zer egin dezakegun, nahiz eta oraindik aztertzen ibili".

'Buhamé Erik eta Win' musika emanaldia bihar Seminarixoa

Lau kidek osatzen dute Asier Sota antzezle eta zuzendariak gidatutako obra: Ander Lizarralde eta Unai Muñoa gidoiaren egileak dira emanaldiko ahotsak, Imanol Kamio eta Aitor Atxega musikariek lagunduta, lehenak piano eta eskusoinuarekin eta bigarrenak gitarrarekin. Bihar, zapatua, 19:00etan iritsiko da emanaldia Seminarixora.

Ander Lizarralde eta Unai Muñoa bertsolariek, euren arteko harremanaren eboluzioa ardatz hartuta, harreman intimoen barrukietan begiratzen dute emanaldian: "Gaur egun, gizon izateak mantentzen dituen estereotipoen gainean hausnartzen dute. Gizon eredu berriak sortzea premiazko eginkizuna dugula islatzen dute, horretarako erantzun zuzenik ematen ez bada ere". Sarrerak eskuragarri daude dagoeneko *seminarixoa.eus* webgunearen bitartez.



Emakumezkoen partaidetza bultzatzeko egindako kanpainaren ostean, Pili Arin, Pentekoste jaietako txapelketan, 1964an. 'B.A.H.'

Atleten harrobi izandako herria

Gaur eguerdian aurkeztuko du Pili Arinek bere azken lana udaletxeko areto nagusian. 'Bergarako atletismoaren historia' liburuak 1916tik gaur egun arte atletismoak Bergaran izandako ibilbidea batzen du: urrezko aroa, emakumeen parte-hartzea...

Jone Olabarria BERGARA

Gipuzkoako Atletismo Federazioa sortzearekin batera ageri dira Bergaran atletismoak izandako lekukotzaren lehen testigantzak, 1916an. Hamazazpi ziren orduan Gipuzkoan zeuden klubak: hamahiru Donostian, hiru Eibarren eta bat Bergaran. *Shooting Bergares* izenez ageri da lehenengoz herriko kluba, urte hartan Donostian antolatutako lasterketa baten dokumentuetan. Lehen urte haietatik gordetzen diren datuak aztertu eta gaur egun arte atletismoak Bergaran izandako lekuaren berri ematen du Pili Arinek bere azken lanean, *Bergarako atletismoaren historia* liburuan.

Gaur eguerdian, 12:00etan, egingo du bere lanaren aurkezpena, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, Pili Arinek. Proiektu bat esku artean duenean "24

orduz" horretara egoten dela aitortu du, "buru-belarri". Hala, bost hilabeteko lanaren fruitua da orain urtebete, 2020ko urtarilean, argitaratutako *Bergarako atletismoaren historia* liburua. Hain zuzen, historia horren zati garrantzitsu bat bizitakoa da Arin bera ere, eta "kirolak herrian izandako presentziaren testigantzarik bilduta ez zegoela ikusteak" eraman zuen lana garatzera. Aitortu duenez, hasierako asmoa "motz" geratu zen, herritarrek euren etxeetan zuten material grafiko eta datuak eskaintzen joan ziren heinean:

60KO HAMARKADA HASIERAKO 15 ATLETETATIK, 80 FITXA INGURURA PASA ZEN AMAIERAN

"Hasieran, historiaren atala egiteko asmoa nuen; eta bertan ere oso lagungarriak izan dira herritarrek emandako hainbat datu, atleta eta atleta ohiek gordetzen zuten informazioa. Gerora, baina, gaur egungo eta azken hamarkadetak datuak iristen hasi zitzaizkidan, eta horiek ere liburuaren parte izan behar zutela erabaki nuen".

Atletismoa krosa zenekoa

Ordura arte atletismoaren egoera herrian "guztiz egonkortuta ez zegoen arren", 1954-1955 denboraldian CD Bergarak atletismo saila zuela zehazten du liburuak, "nahiz eta lasterketako partaidetza eskusiboki kros probetakoa izan". Hurrengo hamarkadan bereziki popularrak izan ziren kros proba haiek: "60ko hamarkadan, Club Deportivok hainbat kros lasterketa antolatu zituen,

garai hartako atleta onenetakoak batuz. Bergararrek ere hainbat kategoriatan parte hartu zuten, baina klubeko atletismo atala ez zen finkatu eta, horren ondorioz, horietako batzuk Eibar Kirol Elkartearekin lehiaztera pasa ziren".

Instalazioak, "betiko arazo"

Entrenamenduetarako instalazio "egokirik" ez zegoela azaldu du Arinek liburuan, eta gerora ere "urte askoan zehar" izandako arazoa izan da. Orduko herriko atletak, gehienak gazte mailakoak, bi entrenamendu-gunetan aritzen ziren: krosa Agorrosinen eta inguruetan egiten zuten, Eduardo Muruaren zuzendaritzapean, eta pistako lasterketan aritzen zirenak Labegaraletan zegoen futbol zelaian prestatzen ziren, 100 metroko zuzen batean, Juan Carlos Verderen esanetara. Eguraldiak okerrera egiten zuenean, frontoian egiten zuten.

Lanean zehazten denez, 80ko hamarkadaren hasieran, klubak eta Udalak obra batzuk proposatu zituzten Agorrosin kirol-gunean, atletismo-pista bat eraikitzeke eta igerilekuak birmoldatzeko: "Behin proiektua aztertuta eta neurriak arauzkoak ez zirela egiaztatuta, proiektua birmoldatzea eskatu zen atletismo sailetik, nahiz eta horrek kale gutxiago izatea ekarriko zuen... Beste behin ere, klubaren eta Udalaren irizpide orokorra beste bat izan zen: arauzkoa ez zen pista bat eraiki zen, ura futbol-zelaira joan ez zedin".

Futbol sailarekin borroka hori urteetan zehar mantendu zela azaldu du Arinek: "80ko hamarkadan ere atletek debekatuta zuten berdegunean entrenatzea, haien oinatzak korrerren arketan markatuta geratzen baitziren... baina ez zegoen arazorik futbolarietako pistaren gainean takodun botekin entrenatu eta dena desnibelez beteta uzteko".

Bergararren "urrezko aroa"

1963an hasi zen pistako atletismoaren hazkundea. Ordura arteko Eduardo Muruaren eta Juan Carlos Verderen lanari

"SAN NICOLAS IZAN ZEN ATLETISMOAREN BERGARAKO URREZKO AROAREN BENETAKO ARDURADUNA"

batu zitzaion Enrique San Nicolas, Manresatik Bergarako oihalgintza sektorean lan egitera etorritako ehungintzako teknikaria. Espainiako txapelduna izandakoa zen San Nicolas, baita nazioarteko hainbat txapelketatan aritua ere. Arinen ustez, hura izan zen "bergarar atletismoaren urrezko aroaren benetako arduraduna".

"Azpiegituretan gabezia nabarmenak" zeuden arren, eta atletismo pistarik gabe, atletek lasterketa eta trofeoetan parte hartzen zuten Donostian, Eibarren, Tolosan... eta lehen garai penak biltzen joan ziren. Atleta gehienak gazte mailakoak ziren, federatu gabeak: "63-64 denboraldian, 15 atleta inguruko talde bat Bergara kirol klubera batu zen, horietako asko San Antonio auzoko kuadrillakoak. Haiei beste gazte batzuk gehitzen zitzaizkien, eta ordurako ez ziren lasterketetara soilik mugatzen, baizik eta San Nicolasen gidaritzarekin jauziak eta jaurtike-tak egiten hasi ziren".

Pentekosteetan txapelketa

Klubak denboraldi hartan antolatu zuen Pentekoste jaietako lehen pistako atletismo lehiaketa. Bergarar atletek ere parte hartu, eta "lortutako trebetasunak erakutsi zituzten", hurrengokoei bidea zabalduz: "Futbolaz harago, bergararrek beste kirol bat aurkitu zuten eta gero eta gaztetxo gehiago hurbiltzen hasi ziren Agorrosinera, atletismoak erakarrita, eta, horrela, fitxen kopurua ere pixkanaka handitzen joan zen". Hala, 60ko hamarkada hasierako hamabost atletetatik, atleta kopurua hamarkada amaierarako 80 fitxa baino gehiagokoa zela azaltzen du Arinek: "Urte batzuetan, atletismoak futbolak berak baino pisu handiagoa izan zuen, gainera".

Liburuan zehazten denez, 10-12 urte bitarteko lagunak zelaira hurbildu ohi ziren, eta, nagusiagoak entrenatzen ikusita, kuriositatez, haiek ere probatzera animatzen ziren. "Infantil mailatik hasten ziren entrenatzen gazteak, eta astean hirutan egiten zituzten saioak, baita domeketan ere, txapelketarik ez bazen".

Diziplina horrek gorengo mailalara eraman zituen bergarar atleta batzuk, eta Espainiako txapeldun titulua eskuratu zuten, hala nola Agustin Loidik disko



'B.A.H.'

Ezkerretetik hasita: Rafa Jaso, Mikel Etxabe, Antonio Gomez, Javi Gomez, Gustavo Abajo, Andoni Goiti, Marcos Arevalo, Jose Alcaide eta Bittor Jimenez.



'B.A.H.'

Goian, ezkerretetik hasita: Ismael Arrieta, Jose Ignacio Beistegi, Jose Luis Iglesias, Julian Lazaro, Miguel Angel Fernandez, Jesus Aranguren, Xabier Ugarte, Jose Mari Elorza, Agustin Loidi, Jose Mari Martinez Gutierrez eta Jose Mari Rubio.
Behean, ezkerretetik hasita: Enrique San Nicolas, Jose Ramon Etxeberria, Juanjo Zelaia, Pili Arin, Jose Acedo, Miguel Angel Beistegi, Joaquin Nuñez, Luis Tomas Royo, Jose Mari Martinez de San Vicente eta Jose Luis Garmendia.

jaurtiketan eta Jose Acedok he-
si-distantzian.

Emakumeak, 1964tik aurrera
Pentekosteetako bigarten las-
terketa antolatzearekin batera,
1964. urtean, emakumezkoen
artearen deialdi bat egin zuen
atletismo sailak, eta, hala, egun-
karian eta baita orduko Com-
pañia de Maria ikastetxean
neska gazteei proban parte har-
tzeko dei egin zieten. Emaiz-
gisa, Pili Arin bera animatu zen
eta txapelketa hartan parte har-
tu zuen, luzera-jauzian eta 100
metroko proban lehiatuta. Lehen
kontaktu haren ondoren, herri-
ko atletismo taldera batu zen,
30 lagun inguruko taldean ema-
kumezko bakarra zela: "Ez zen
erraza izan mutilen artean 15
urte zituen neska bakarra izatea,
nahiz eta nire taldeak oso ondo
hartu eta zaindu ninduen... Hala

ere, baziren gurekin Agorrosinen
entrenatzen ziren beste kirolari
batzuk ere, eta, antza denez, ez
zuten ulertzen nire afizioa hitz
egin edo xuxurlatu zezaketena
baino indartsuagoa zela".
Etxekoek ere entzun behar
izan zutela aitortu du Arinek,
ez zela erraza izan: "Aitak bere
alabari buruzko komentario
asko entzun behar izan zituen...
Mutilekin batera dutzatzen nin-
tzela, gaua zela bueltatzen nin-
tzela Agorrosindik...". Edozelan
ere, taldean "babes osoa" izan
zuela azaldu du Arinek, hein
handi batean, dio, Enrique San

**"TALDEAK ONDO
HARTU NINDUEN
ARREN, EZ ZEN
ERRAZA IZAN NESKA
BAKARRA IZATEA"**

Nicolas entrenatzaileak bere
atletei erakutsitako jarrera eta
errespetuagatik: "Enrique San
Nicolasek nirekiko zuen portae-
rarekin, taldekideei begirunea
eta adiskidetasuna erakusten
jakin izan zuen, eta guztiek ba-
bestuta sentiarazi ninduten.
Komentario desatseginak egiten
zizkidatenean, haiek nire defen-
tsan ateratzen ziren eta taldea-
ren parte sentiarazten ninduten".
Arinek irekitako bideak bere
fruiutak eman eta emakumezkoen
atletismoak ere, 60ko hamarka-
daren amaieran, gorakada izan
zuen. Ikastetxeko talde bat iritsi,
eta errelebo motza entrenatzen
hasi ziren, gerora krosa eta jau-
ziak ere probatzeko. Isabel eta
Conchi Iturbe, Rosario Zabaleta,
Consuelo Errasti eta Miren Az-
piazu bergararrak soilik ez,
Arrasateko zenbait neska ere
animatu ziren, hala nola Rosa



'B.A.H.'

Goian, ezkerretetik hasita: Isabel Iturbe, Miren Azpiazu eta Rosa Ochandiano.
Behean, ezkerretetik hasita: Consuelo Errasti, Conchi Iturbe eta Rosario Zabaleta.



'B.A.H.'

Goian, ezkerretetik hasita: Teresa Gonzalez, Eva Arevalillo, Jose Acedo, Angel Maria de Goñi, Aitor Oregi, Miguel Sancho, Jaime Garcia, Josu Azkarate eta E. San Nicolas.
Behean, ezkerretetik hasita: Jose Mari Martinez de San Vicente, Amaia Aperribai, Anabel Blazquez, Jose Mari Lasheras, Ana eta Marta Arevalillo, Joseba Oregi eta Izaro Aperribai.

Ochandiano, urte batzuk geroa-
go elite nazionalakoa izango
zena, eta Charo Etxabe.

Herriko taldearen gainbehera
"Urrezko urteak" bizi izan zituen
atletismo taldearen gainbehera-
ren arrazoi posibleak ere azter-
tzen ditu Arinek bere lanean:
"1987-88 denboraldian, Eskola
Kirolaren Programa garatzen
hasi zen, eta Udalak dirulagun-
tza bat eman zion kirol klubari,
klubetik pertsona bat arduratu
zedin eskola-lehiaketa koordi-
natzeaz. Horren ondorioz, kirol-
eskaintza handitu egin zen.

**"DEBEKATUTA ZUTEN
ZELAIA ZAPALTZEA
ATLETEK; EZ, ORDEA,
FUTBOLARIEK PISTAN
ENTRENATZEA"**

Aurretik, haurrek pilotan, txi-
rrindularitzan eta atletismoan
egiten zituzten praktikak, eta,
jakina, futbolearen... Lehen hiru-
rak banakako kirolak ziren, eta,
programa harekin, gaztetxoentzat
oso erakargarria zen taldeko
kirolak aukeratzeko aukera za-
baldu zen".
1993-94an Bergaran Eskola
Kirolaren Kontseilua eratu zen
eta ikastetxeek benjamin eta
alebin mailetan eskola-kirola
koordinatu eta emango zuen
enpresa bat kontratatu zuten.
Arinek dioenez, urte haietatik
gaur egunera arte, "gutxi" alda-
tu da atletismo bergararraren
dinamika: "Eskola-adinean dau-
den neska-mutilek praktikatzen
dute, eta, beren zaletasuna eta
lorpenak behar bezala garatzeko,
Mojategira, Eibarrera edo ger-
tuko herrietara joaten behar
dute entrenatzera".



Herriko pilotalekuan berogailua jartzeko 20.000 euroko partida aurreikusten du 2021eko aurrekontuak. GOIENA

2021erako 2.830.000 euroko aurrekontuarekin, ia 250.000 inbertsioetarako

Abenduaren 29an onartutako 2021erako aurrekontuen lehen onespeneraren arabera, Antzuolako Udalaren inbertsioetarako gaitasuna 246.825 eurokoa izango da aurtan. Hain zuzen ere, kopuru horrek eta gerakinaren kudeaketak eztabaida sortu zuten

Jone Olabarria ANTZUOLA

Guztira, 2.830.323 euroko aurrekontua izango du 2021erako Antzuolako Udalak. Abenduaren 29an egindako osoko bilkuran onartu zuten hasierako onespenera, EH Bilduren aldeko botoekin. Jeltzaleek kontrako botoa eman zuten eta Miren Gallastegi sozialista abstenitu egin zen. Aurrekontu proposamena, orain, jendaurrean jarriko dute ikusgai, eta alegazioak egiteko epea zabalduko dute.

Alkatearen hitzetan, esperotako babesa izan zuten aurrekontuek: "Miren Gallastegirekin hartu-eman izan dugu eta bagenekien aurrekontuen kontrako jarrerarik ez zuela agertuko. EAJrekin izandakoak, ordea, ez dira oso emankorrak izan, nahiko ezberdin ikusten ditugu gauzak eta espero genuen haien ezezko botoa oraingoa".

Plan Orokorra eta Olan

Aurkeztutako aurrekontuetan, inbertsioetarako diru partidei dagokien, Olan etxeko obrak eta herriko Plan Orokorra eraman dute diru kopuru handiena, 180.000 eta 90.000 euro, hurrenez hurren. Hain zuzen, Plan Orokorra 250.000 euro inguruko aurrekontua du, lau urtean zehar gauzatzeko.

Kultur ekitaldiek pandemian izandako garrantziaz jabetuta, 24.000 euro bideratu dituzte horietara, baserrietarako ur hornidura instalazioak bukatzeko 25.000ko partida gorde dute, 22.000

gimnasioko aparatuak erosteko, eta frontoian berogailua jartzeko 20.000 euro.

Gastuen zati handi bat eramango du jolasguneetara bideratutako dirulaguntzak, tartean Torresorua ondoko jolas parkea estaltzeko proiektua barnebiltzen duena. Hilerrira, guztira, 24.000 euro bideratu dira, kolunbarioa handiagotzeko eta hezurtegiko lanak egiteko. Bestalde, Udalak egun martxan duen energia berriztagarrien azterketaren emaitza jakitean, herriko argiteria sarea berritzea posible den erabakiko dute.

Berreskuratu gura direnak

"2021ean zehar osasun egoera hobetuko den esperantzarekin", hainbat diru partida gorde dira 2020an egin ezin izan diren hainbat jardura berreskuratzeko asmotan: "Antzuolan udalekurik

"ZIURGABETASUN EGOERAREN AURREAN GERAKINA EDOZEIN UNETAN ERABILTZEKO AUKERA EGONGO DA"

Gastu arruntak, 2.413.498 euro

Inbertsio nagusietako hainbat

Bide berdea	5.000 €
Berogailua frontoian	20.000 €
Plan Orokorra idaztea	90.000 €
Jolasgune inbertsioak	40.000 €
Gimnasioko aparatuak erostea	22.000 €
Baserrietarako ur hornidura instalazioa	25.000 €
Olan eraikinaren berriztapena	180.000 €
Hilerriko kolunbarioaren anplifikazioa	9.000 €
Hilerriko hezurtegia	10.000 €
Kultur jarduerak	24.000 €
Herriko jaiak	25.000 €
Muralgintza proiektua	8.000 €
Udalekuak	26.500 €
Auzo-konpostaren instalazioak egokitzea	15.000 €
Kirol taldeei dirulaguntzak	11.000 €
Azaldegietako/San Jose	6.000 €
Osasun babeserako produktuak (COVID-19a)	3.000 €
Kirol ekintzak	2.500 €
Bestelako jaiak	16.000 €

ez zen egon 2020an, baina hainbat herri garatu zituzten, eta, ondo joan zela ikusita, eta 2021ean egiteko asmoz, 26.500 euroko partida gorde dugu. Jaiei begira ere, normaltasunez egingo ezin diren arren, guztira, 53.000 euro bideratu dira".

Gerakina eztabaidagai

Gastu eta oreka arauak ez dira aplikatuko 2021ean, eta aurtengo inbertsioetarako gaitasuna 246.825 eurokoa izango da. Beñardo Kortabarria alkateak azaldu duenez, "ziurgabetasun egoeraren aurrean gerakina edozein unetan erabiltzeko aukera izatea" izan da erabakiaren arrazoiak.

Gerakin horren kudeaketak eztabaida eragin zuen abenduaren 29ko osoko bilkuran, eta jeltzaleek "ez dela bidezkoa" zehaztu zuten: "Egoera berezi batean gaude, non Jaurkitzari, aldundiei eta udalei mugitu daitezkeen eskatzen zaien, eta, are gehiago, zorpetu daitezela pizgarri izan daitezkeen ekonomia suspertzeko. Guri, ordea, aurrekontu bat aurkeztu digute, non sarrerak gastuak baino handiagoak diren; alegia, aurtan ere beste 200.000 euroko gerakina izango dugu".

"MUGITZEKO ESKATU ZAIE UDALEI, ETA ANTZUOLAN, ALDIZ, 200.000 EUROKO GERAKINA DUGU"

Era berean, jeltzaleek "alkatearen aurrekontuak" direla adierazi dute, eta, ezezkoa emateko arrazoiaren artean, "iazko berberak direla eta ez direla batzordeetan landu".

EAJk Udal Gobernuari egingako kritikei erantzuna emanda, alkateak adierazi du oso zuzena ez dela halako urte batean "hain zorrotz" aritzea: "Nolabaiteko gabezia estrukturalaz hitz egin dute. Laugarren agintaldia darimagu hemen jarraian lanean eta badirudi herritarrak gustura daudela".

Miren Gallastegi, PSE-EEk Antzuolako Udalean duen ordezkariak, "lankidetzarako jarrerara aktiboa egon izana" eskeratu du. Hala ere, adierazi du aurrekontuek ezin dutela sozialisten baiezkorik izan, besteak beste, tartean presoen familiei bideratutako laguntzak barnebiltzen baitituzte -700 euroko diru partida-, eta Uemari egiten zaion ekarpena -7.700 euro-.

Atxikimendu eskaera

Ildo beretik, *Antzuolako Ez Dot Mozuko Bizarra* taldeak aurkeztutako atxikimendu eskaera bat ere landu zen abenduaren 29ko osoko bilkuran, gai zerrendatik kanpo. Hala, urtarileraren 9an Euskal Herriko udalerrietan egingo diren euskal presoen aldeko ekimenetara batzeko atxikimendu eskaerari baiezkotza eman zion EH Bilduk, EAJ abstenitu egin zen eta PSE-EEk ezezkoa botoa eman zuen.

Naturari balioa emateko, elkarlana abiarazi dute

Arrola Mendizale Elkartek eta Udaleko Ingurumen Sailak elkarlanean abiarazi dute ingurumenari eta naturari balioa emateko ekimena. Helburua da mendi eta baso-lurren erabileraren diagnosia egitea Antzuolak mugakide dituen udalerriekin elkarlanean

Maidar Arregi ANTZUOLA

Gabon jaien aurretik, udalerriko hainbat baso lurren "txikizioa" salatu zuen Arrola Mendizale Elkartek. Orain, irtenbidea bilatu nahian, urratsa egin, eta Udaleko Ingurumen Sailarekin batu da Arrola taldea. "Mendiko zein lau gurgpileko motorrek basoa txikitzen dihardute. Kirola egiteko eskubidea debekatu gabe, jendea kontzientziatu eta sentsibilizatu nahi dugu ingurumena errespetatu dezan. Hala, udal ordezkariekin batu gara irtenbidea bilatzeko asmoz; izan ere, debekua baino gehiago, denon artean erabakia adostea dugu helburu", azaldu dute Arrolako ordezkariak. Hala, gaia Antzuolak mugakide dituen udalerriekin, Oñati, Bergara, Zumarraga eta Urretxurekin, aztertu gura dute.

"Kezkatuta gaude gure udalerriko mendietan gertatzen ari denarekin. Trekutz, Irimo, Arrola, Koroso, Landarraitz... eta azkena, Azaldietak. Aspaldi zeto-rrena oraingo egoeran biderka-

tu egin da. Guztietan txikizioa da nagusi. Han eta hemen mendiko motorrak, lau gurgpilekoak... txiki-txiki lagatzen ari dira gure baso, bide eta zelaia. Uste dugu ahalik eta azkarren komeni zai-gula ibilera hauek arautzea, kirola egiteko eskubidea inori debekuan jarri gabe sentsibilizatu; baina, ezinbestean, ingurumenaren errespetuan oinarrituta jendea kontzientziatu behar da. Mugakide ditugun udalerriek egoera hau nola bizi duten jakin gura dugu, eta, ondoren, denon artean erabakia hartu. Gainontzeko kirol zein mendi batzordeetako kideekin aztertu gura dugu egoera", diote.

Mendi elkarte gisa, beste herrietako mendi elkarteekin ere

**LAN PEDAGOGIKOA
EGIN GURA DUTE,
INGURUMENAREKIKO
ERRESPETUA
SUSTATUZ**

batuko da Arrola, eta aukerak arakatuko dituzte. "Diagnostikoa egin eta egoera nola dagoen ikusiko dugu elkarrekin gaia landuz eta irtenbidea bilatuz".

Zaletasunean sentsibilizatu

Mendiko motor-zaleekin ere batu gura dute, diagnostiko osatu izateko. "Mendian motorrekin dabilena ez dakigu federatuta dagoen edo bere kasa dabilen. Elkarrekin baten baitan badaude, elkarrekin batuko ginateke, eta konponbidea topatu denon artean. Izan ere, legea oso malgua da, eta, maiz, ez dakigu zein terrenotan ibiltzerik daukagun. Informazioa ere eman gura genuke; sumatzen dugu gazte asko dabilzala motorrekin eta mendiarekiko bestelako ikuspegi bat dutela. Kontzientziarako hainbat ekintza egiteko asmoa ere badugu. Lan pedagogikoa egin gura dugu aurrena. Aukera bat litzateke motorzale eskarmentudunekin elkartzea, transmisio lanean eragiteko".



JONE OLABARRIA

Desioen panela, herritarren esku

Herritarren desioak, mezu positiboak eta eskaeraren bat edo beste jaso ditu Udalak jarritako eta elkarbanatzeko panelak. "Asmoa Gabonetako egunetan egunero plazara ateratzea bazen ere, egun batez soilik atera dugu, oso eguraldi txarra egin du eta. Baina harrera ona izan du: lehen egunean, panela desioz eta eskaeraz bete zen", azaldu du alkateak.

OHARRAK

Manifestazioa eta elkarretaratzea

"Salbuespenezko espetxe-politika amai dadin" eskatzeko, gaurko, egubakoitza, elkarretaratzea deitu dute, 19:00etan, Zurrategin; eta biharko, hilak 9, manifestazioa, plazatik, 17:30ean hasita.

Eztalako inaugurazioa

Bihar, zapatua, inauguratuko dituzte Eztalako aldagela berriak, 12:30ean. Antzuolako Udaleko, AKEko eta Gipuzkoako Diputazioko ordezkariak izango dira bertan; osasun babes neurriak betez, ekitaldi xumea egingo dute, eguraldiak, behinik behin, ahalbideratzen baldin badu.

Bertso saioa

Urtarrilaren 16an, bertso saio Torresoroan, 18:00etan. Bertsolariak: Alaia Martin, Unai Agirre, Beñat Gaztelumendi eta Uxue Alberdi. Sarrerak liburutegian eta www.labureus/sarrerakantzuela webgunean.

Odol-ematea

Urteko lehen odol-ematea deitu du Gipuzkoako Odol Emaileen elkarteak Antzuolan. Urtarrilaren 19an egingo da, Orlan etxean, 16:30etik 20:30era bitartean.



Azaldietako baso-lur eremua ibilgailu gurgildun batekin txikituta. ARROLA MENDIZALE ELKARTEA

MUJKA
HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA



Elgetako udalbatza, 2021eko udal aurrekontua onartu zen abenduaren 22ko osoko bilkuran. ANER FERNANDEZ

1.692.639 euroko udal aurrekontua

Sarrerak eta gastuak orekatzeko 80.000 euroko mailegua eskatuko du Udalak, pertsonal gastua %14,03 igoko da eta inbertsioak, %40 jaitسي. Oposizioak susperraldi ekonomikoa lehenetsiko duen aurrekontu erreala eskatu du

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Elgetako udalbatzak abenduaren 22ko osoko bilkuran onartu zuen 2021eko udal aurrekontua. EH Bilduko zinegotzien aldeko botoekin onartu zuten. Oposizioak kontra bozkatu zuten.

Aurrekontua iazkoa baino %2,06 txikiagoa da, inbertsioen atala %40,33 jaitسي da eta pertsonal gastua, %14,03 igo. "Gipuzkoako Foru Aldundiak aurreikusi du 2021ean 763.642 euro iritsiko direla Elgetara Foru Funttsaren bitartez. Foru Funttsaren galerak konpentsatzeko eskatuko du Udalak 80.000 euroko mailegua", zehaztu du Iraitz Lazkano alkateak.

Inbertsioen atalari dagokionez, 171.639,48 euro aurreikusten dira. Oraingoan, Udalak alde batera utziko du San Roke kalean irisgarritasun lanak egiteko proiektua. Hala, 2021eko inbertsiorik handiena Herri Eskolako Haur Hezkuntzako jolastokiaren teila-

tua berritzeko izango da. Kiroldegiko leihoak aldatzea eta Maalako haur parkea estaltzea ere nabarmentzen dira 2021eko egitasmoen artean.

Pertsonal gastuen ataleko igoeran, berriz, eragina dute, alde batetik, erretiro aurreratu batekin

lotutako primaren ordainketak, eta, bestetik, COVID egoera dela eta hainbat zerbitzutan errefortzua jartzeko erabakiak. Zerbitzu horien artean daude udal brigada, garbiketa zerbitzua eta ludoteka. Udal Gobernuaren iritziz, pandemia egoerara egokitutako aurre-

Inbertsio nagusiak, 2021ean

Haur Hezkuntzako teilatua	55.000 €
Kiroldegiko leihoak	30.000 €
Eskola ondoko parkea estaltzea	20.000 €
Udal koadro elektrikoak berritzea	15.597 €
Baserritarren batzordeko inbertsioak	15.000 €
Belarra mozteko makina erostea	10.000 €
Domingo Iturbe patronatuari	6.000 €
Gizarte zerbitzuetako inbertsioak	5.342 €
Brigadako lan tresnak	3.000 €
Irisgarritasun lanak	2.400 €
Frontoiko LED argiak	2.000 €
Kaleko altzariak	1.500 €

"Aurrekontu sendoa da"



IRAITZ LAZKANO
ALKATEA

"Aurrekontu sendoa da, COVID-19ak eta kalte-ordainek baldintzatutakoa bada ere. Ez da aukera bat aurrekontua murriztea eta estutzea, eta, Foru Funtsetik izango den sarreraren murrizketa orekatzeko, 80.000 euroko kreditua eskatzea aurreikusi dugu. Apustua egin dugu pertsonalaren kapituluari, bereziki eraikinen garbiketa eta desinfekzioarako, baita ere hainbat udal zerbitzu indartzeko. Inbertsioetan lehentasunak ezartzea ezinbestekoa izan da eta helburua da bermatzea COVID-19aren garaian oso erabilgarriak diren espazioak. Hala, inbertsio nagusiak izango dira parke bat estaltzeko, eskolako jolastokiaren estaldura hobetzeko eta kiroldegiko leihoak berritzeko eta aireztatzeko errazteko. EAJren jarrera ulergaitza egiten zaigu; kontra bozkatu zuten, inolako proposamenik eta ekarpenik egin gabe".

"Fikziozko aurrekontua"



AINTZANE OIARZIDE
EAJ

"Ezinezkoa da EH Bilduren benetako lehentasunak zeintzuk diren jakitea, ez dituelako burutzen agindutako inbertsioak. 2021ean, 80.000 eurotan zorpetuko da Elgetako Udala, eta inbertsio errealak %40 jaitسي dira. Seinale txarra, ekonomia suspertzeko eta etorkizuneko proiektuen aldeko apustua egiteko. Udal Gobernuak babestu dugu konfinamenduan zehar. 2021ean ere une zailak izango dira, eta horiei aurre egin behar zaie gizarte politikak indartzera bideratutako udal baliabideekin eta industria sektorea zaindaz, baina EH Bilduren lehentasunen artean ez dago industriaren eta ekonomiaren sektorea, oro har. Industriadik gabe, ordea, ez dago baliabiderik behartsuenentzat, eskolarentzat, eguneko zentroarentzat... Minimoak mantentzeko enpresa huts bihurtu da Udala".

kontua da. Ziurgabetasun egoera mantentzea aurreikusten dute eta lehentasunak berraztertu dituzte. "Erabaki dugu COVID kontrakoak izan daitezkeen inbertsioak lehenestea. San Roke kalea oinezkoentzat egitea beharrezko ikusten dugu, baina garrantzi handiagoa ematen diogu Haur Hezkuntzako teilatua konpontzeari, eskola ondoko jolas-parkea estaltzeari eta gimnasioa ondo aireztatzeko leihoak berritzeari", azaldu du alkateak.

EH BILDUREN USTEZ, AURREKONTU "OREKATUA" DA; ETA OPOSIZIOAREN USTEZ, "FIKTIZIOA"

Oposizioak, kontrako botoa

Oposizioak, berriz, uste du Udal Gobernuak ez duela proiekturik. "Pandemiak atzeratutako proiektuak alde batera utzita, exekuzio txikia izan du 2020ko aurrekontuak. San Roke kaleko lanak egiteko 110.000 euroko partida ez da ireki ere egin, eta ez da 2021eko aurrekontuan agertzen. Arketak garbitzeko partidatik ez da euro bat ere gastatu, baserri bideetan obrak egiteko 10.000 euroko partidatik 5.000 euro inbertitu dira, eta eguneko zentroko mantentze-lanetarako 3.000 euroetatik 613,17 euro. 2021ean 50.000 euro daude Haur Hezkuntzako teilatua konpontzeko. Jeltzaleak erne egongo gara obra hori 2021ean ahalik eta lasterren egin dadin".



Jendea pasean eta jolasean izoztutako Asentzioko putzu inguruan, eguaztenean. L.Z.L.

Elurretan errespetuz ibiltzeko eskaera

Zuri daude Elgeta inguruak, eta elurretan ibiltzeko aukera baliatu dute bai elgetarrek bai inguruetak bisitariek. Elur gehiago espero da astebururako. Gomendioak dira herrigunean aparkatzeko, ingurua errespetatzeko eta baserri-bideak ez oztopatzeko

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Abenduaren 29an zuritu ziren tontorrak eta lehen elurte garrantzitsua urtarrilaren 2an etorri zen. Hamar bat zentimetro bota zituen. Asteburua izanik, jendea erakarri zuen, baina auto-gidari asko ez zeuden behar bezala prestatuta. Hainbat eragozpen sortu zituen horrek:

traban utzitako autoak, auto pilaketak... Kanpanzarko bidean, bestalde, hainbat zuhaitz jausi ziren errepidera, eta bidea itxita dago ordutik. Argindar horniketarekin ere egon ziren arazoak. Astelehenean bota zuen, berriz, elurra. Hemeretzi zentimetro pilatzera heldu zen. Lan eguna izanik, gora eta behera

ibili ziren bai Diputazioaren elurra kentzeko makina bai Udalekoa, eta baita udal brigadako langileak ere. Errege bezperan, bestalde, argi barik egon ziren Salbador kaleko etxebizitzak askotan, 17:00etatik 23:00etara. Transformadore elektrikoan izandako matxura batek eragin zuen horniketa falta.



Auto pilaketak, aurreko zapatuan, Asentzioko bidegurutzean. L.Z.L.

Herrian aparkatzeko gomendioa

Auto pilaketak izan dira egunotan, bereziki, Asentzio inguruan, eta horrek eragozpenak eragin ditu zirkulazioan. Elurretara doazenei herrian aparkatzeko eta Asentziara oinez igotzeko gomendioa egin diete. Kontuz, baita ere, edonon eta edozelan ez aparkatzearekin.

Eskiekin eta snow taulekin

Errege egunean sumatu zen berriro ere bisitarien etorrera. Eguraldi onarekin, herritarrek ere irten ziren elurraz gozatzen. Asentzion, Azkonabieta inguruko aldapetan eta Larrabilzearra hasierako zelaietan pilatu zen jende gehien. Izan zen snow taula eta guzti ibili zenik. Halakoetan ingurua errespetatzeko eskaera egiten dute lurjabeek, eta baserri bideak eta errepideak libre uzteko. Udalak, berriz, autoak herrigunean aparkatzeko eskaera egiten du, eta

ez uzteko elurra kentzeko makinak lana oztopatzeko moduan.

Aste bukaerarako elur gehiago eta tenperatura hotzak espero dira. Kontuz, beraz, izotz arriskuarekin. Udalak jakinarazi du eskuragarri dituela gatzak eta palak udaletxean.

UDALAK JAKINARAZI DU BEHAR DUTENEK ESKURAGARRI DITUZTELA PALAK ETA GATZA UDALETXEAN

Bestelakoak izan dira Gabonak, baina gozatzeko tartea egon da

Aste hasieran egindako Gabonetako tailerrek eman diote amaiera egunotako kultura eskaintza bereziari

L.Z.L. ELGETA

Hiru adin tartetan banatuta, 2 eta 11 urte arteko 68 neska-mutikok hartu dute parte frontoian, gimnasioan eta Espaloian bi arratsalde egin diren Gabonetako tailer berezietan. 70 lagunendako lekua zegoen, eta ia bete egin dira leku guztiak.

Erik eta Win ikuskizunak ere ikusle ugari elkartu zituen abenduaren 27an. Bestetik, Alicia Gartzia aurkeztutako lanak irabazi du Gabonetako panpinalehiaketa. Hiru lehiakide izan ziren, guztira.



Umeak Gabonetako tailer batean. L.Z.L.

Aurten, bestalde, Elgetarako bidea ikasi du Mari Domingik eta hurrei harrera egiten izan da, Olentzerorekin batera. COVID-19 neurriak hartuta, Espaloian egin zuten ekitaldia. Udalak esan du 130 bat neska-mutiko elkartu zirela bi pertsonaiekin abenduaren 23an.

Kultura zinegotzi Ane Bilbaok uste du emaitza oso onak izan dituztela Gabonetako ekintzek. "Herritar ugari parte hartu du, eta aukera izan duten egunetan baita kanpoko jendeak ere. Guztia berrasmatu beharra egon da eta guztiok ikasten dugu zerbait egunerok. Lan asko hartu eta protokoloak buelta asko eman beharra izan dugun arren, emaitzekin oso gustura gaude. Herritarren aldetik ere iritzi oso onak jaso ditugu", azaldu du Bilbaok.



ZALDIBAR ARGITU

Hamaika hilabete amildu zela

Hamaika hilabete bete dira Zaldibarko zaborteia amildu zela, eta Zaldibar Argitu plataformak deituta elkarretaratzea egin zuten hainbat lagunek eguaztenean. Elgetako mobilizazioarekin batera manifestazioak egin zituzten Zaldibarren eta Eibarren, eta elkarretaratzeak Ermuan, Zallan eta Etxebarran. Erantzukizunak argitzeko aldarria egiten du plataformak.



Odol emaleak odola ematen, artxiboko argazki batean. GOIENA

Odol premiari erantzunez hasi gura dute urtea

MUK Oñatin duen Enpresagintza Fakultatean egingo dituzte odol ateratzeak aurrerantzean ere, ordutegi zabalagoarekin: 16:30etik 20:00etara. Odol beharra dagoela azpimarratu du Oñatiko odol emaleen elkarteak, eta erantzuteko eskatu du

Oihana Elortza OÑATI

Oñatiko odol emaleen elkarteak odol ateratzeekin jarraituko du eta dagoeneko prest du aurtengo egutegia: egubakoitzean, urtarrilak 8, izango da urteko lehenengoa.

Emaille gutxiago aldiro

Odol premia dagoela azpimarratu dute elkarteak kideek, eta behar horri erantzuteko deia zabaldu gura dute, ahalik eta odol gehien batzeko, "behar handia dago eta". Izan ere, egoera den modukoa izanda, ateratze bakoitzean ez dituzte lehen beste litro batzen, jende gutxiago pasatzen baita, protokoloa jarraituz denbora gehiago behar dutelako ateratze bakoitza egiten. Lehen, esaterako, 60 bat herritar joaten ziren hileko hitzordura; egun, 40 edo 45 inguru. "Orain, lehen baino denbora gehiago behar da lan bera egiteko. Segurtasun neurri guztiak hartuta egiten da, protokoloa jarraituz, baina martxa geldoagoa da.

Ordutegia zabaldu dugu, ahalik eta ateratze gehien egin ahal izateko, baina egungo kopuruak baxuagoak dira, bai. Baina odol beharra badago oraindik, eta horri erantzuten saiatu behar dugu", dio odol emaleen elkarte kide Pili Irazabalek.

Txanda hartu behar da

Odola ematera joateko modua ere aldatu egin da. Lehen, ahal eta gura zuenean joaten zen emaila, aurrez txanda hartu gabe. Orain, ordea, lehenago deituta hartu behar da ordua. Emaille batzuk Donostiatik jasotzen dute zuzenean gonbidapena, hango bulegoetatik. Gonbidapena jaso eta joan gura duenak, baina, egunean bertan

**JOAN GURA DUENAK
EGUNEAN BERTAN
AURREZ DEITUTA
HARTU BEHAR DU
ORDUA: 943 00 78 84**

deitu behar du ordua zehazteko, jende asko batera pilatu ez dadin. "Baina odola lehen aldiz eman ez dutenei edo gonbidapena jaso ez dutenei ere aukera eman gura genien, ahal izanez gero, behintzat, joateko. Horregatik, egoera horretan daudenek ere badute odola ematera joateko aukera: ateratzea den egunean bertan deitu dezakete, 08:30etik 13:30era bitartean, telefono zenbaki honetara eta txanda hartu: 943 00 78 84", azaldu du Irazabalek.

MUKo fakultatean

Aurtengo ateratzeak ere MUK Oñatin duen Enpresagintza Fakultatean egingo dituzte. "Ohiko tokian egingo ditugu ateratzeak, bai, MUn. Oso eskertuta gaude MUri eta Udalarri, laguntzeko prest egon direlako eta asko lagundu digutelako". Ordutegia zabalagoa izango da: 16:30etik 20:00etara bitartean. Donostiatik etorriko dira osasun langileak eta Oñatiko taldeko kideak laguntzen egongo dira.

Dendetarako eta ostatuetarako bonu guztiak saldu dira

Herriko ostatuetan eta jatetxeetan erabiltzeko bonuek martxoaren 31ra arteko epea dute

O.E. OÑATI

Oñatiko Udalak bonuak atera zituen, urriaren erdialdean, herriko komertzioetan erabiltzeko, bertako dendariei eta ostalariei bultzada eman eta herriko kontsumoa sustatzeko. 110.000 euro bideratu zituen Udalak bonuen ekimenara, eta, denak salduta, 550.000 euroko diru mugimendua sortu dute herriko komertzioetan. Ekimenaren balorazio positiboa egin dute Udalak zein dendariak.

Dendetan abenduaren 31 aurretik erabili behar ziren bonuak, baina osatuetan eta jatetxeetan erabiltzekoak martxoaren 31ra arteko epea dute.

Laguntzak itzultzen

Udala dagoeneko hasi da diru-laguntzak itzultzen ekimen honetan parte hartu duten herriko dendariei. Bonuak eta erosketa



Kale Barria urtarrilaren 4an. O.E.

txartela edo faktura entregatu ahala ari da laguntza hori ematen. Laguntza jaso gura duten dendariak urtarrilaren 15era arte dute eskatutako agiri horiek entregatzeko. Jatetxeetako jabeendako epea apirilaren 23an bukatuko da.

Hiru urte, astelehenero, pentsio duinak eskatzen

Datorren astelehenean, urtarrilak 11, astero egin ohi dituzten elkarretaratzeekin jarraituko dute herriko pentsiodunek. Eta hiru urte beteko dira, hain justu ere, mobilizazio horiek hasi zituzenetik. Ohi duten moduan, 12:00etan egingo dute elkarretaratzea, herriko plazan, eta herritar guztiei egin diete dei bertan parte hartzeko. "Hiru

urte beteko ditugu astelehenean, eta hantxe izango gara berriro pentsio duinak aldarrikatzen".

Duela hiru urtetik hona astelehen eguerdi guztietan egin dituzte hogeita minutuko elkarretaratzeak Foruen plazan, urteko opor sasoiaren salbu. Batzuei kaleraino joatea kosta egiten zaiela kontuan hartuta, azaroan Olakua auzoan egiten hasi ziren; hileko azken egubakoitzetan egiten dituzte auzo horretan elkarretaratzeak, ordu berean, 12:00etan.

Selma Huxleyren lana birtualki ikusteko eran dago

Selma Huxley Barkham-en omeneko jardunaldiak antolatuta zituazten, elkarlanean, Emakumeen Kontseiluak, Udaleko Berdintasun Sailak eta Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoak. Haren lanaren inguruko bisita gidatua zen ekintzetako bat, baina, egoerak behartuta, ezin izan da egin. Orain, artxiboko lagunek eginiko lana webgunean ikusgai

jarri dute. Bertan, irudien gainean klikatuz gero, ikerketara emaniko bizitza hori azaltzen duten tour edo bisita birtualak, bideoak eta artikulatuak kontsultatu daitezke. Hiru zati nagusitan antolatuta dute bisita: Kanadaren eta euskaldunen arteko harremana XVI. mendean, artxiboan egindako lana jasotzen duen erakusketa birtuala eta Huxleyren lanak izan duen oihartzuna. Honako helbide honetan sartuta ikus daiteke: <http://oinati.gipuzkoa-kultura.net>.

Sortzen jarraitzen dute sortzaileek, lokartu barik

Potx eta Lotx pailazoez 'Txunpa Txun' abestiarekin eta Bizarro taldeak 'Giltzapeko oihuak' kantarekin egindako bideoklipek harrera beroa izan dute herrian. Hainbat herritarren kolaborazioekin egin dituzte talde biek euren azken produktu horiek

Oihana Elortza OÑATI

Herritarren artean harrera ona eta zabalkunde handia izan duten produktu bat baino gehiago izan dira azken asteetan Oñatin. Inigo Biain Berraondok egindako *Alanbre-hotsa eta jazbana* lana, Mila Modu taldearen kontzertuak, *Zarramarra* antzezlan eta Oñatzek erraldoiekin egindako ikuskizunak dira horien adibide batzuk. Liburua askok eskertutako lana izan da eta besteen emankizunetako sarreak azkar agortu ziren. Hala, ildo bereko beste bi adibide dira Bizarro taldeak *Giltzapeko oihuak* kantarekin eta Potx eta Lotx pailazoez *Txunpa Txun* abestiarekin egindako bideoklipak. Gabon egunen bueltan kalera-tutakoak biak, urtezahararren amaieran bata eta berriaren hasieran bestea.

Beste bost kanta buruan

Maiatzean aurkeztu zituen Bizarro talde berriak sare sozia-

letan *Deshumanizazioa* bildumako abestiak, abenduan argitaratu zuten lana formatu fisikoan, eta bildumako *Giltzapeko oihuak* kantarekin bideoklipa aurkeztu du orain. Ainhoa Larrañaga aktore ezaguna da protagonista nagusia eta harekin batera herriko hainbat lagun ere badira aktore lanetan; herriko hainbat sortzaile eta lagunekin elkarlanean egin dute lana. "Bost kantu genituen. Hau zuzenena, freskoena, iruditzen zitzaigun eta horregatik hautatu genuen bideokliperako. Eskerrak ematea baino ez dagokigu orain guri. Sekulakoa izan da. Herritar askok hartu dute parte, euren onena eman dute

AINHOA LARRAÑAGA ETA ASIER BURGUETE AKTOREAK ARITU DIRA HERRITARREKIN BATERA

eta inork ez du inongo aitzakiarik edo trabarik jarri. 4.000 ikustaldi baino gehiago izan ditu egun gutxitan, eta txundituta gaude, pozik oso. Bueltatuko dugu jasotakoa", dio Bizarro taldeko Iban Idigorasek, eskertuta. Beste bost kanta egiteko asmoa ere badutela gaineratu du: "Bi eginda ditugu dagoeneko. Entseatu ezinean gabilta, egoeragatik, bakoitzak ahal duena egiten du, baina badugu beste bost pieza grabatzeko asmoa. Ea uda inguruan jendaurrean jotzen hasten garen".

Reggaetonaren parodia

Potxe eta Lotx pailazoen *Txunpa Txun* abestiaren bideoklipa ere askorengana heldu da. "Gehienek sorpresa izan dela aitortu digute, orain arte egin ditugun kantuekin konparatuz oso ezberdina delako. Baina adin ezberdinetako herritarrek esan digute gustatu zaiela, eta pozik gaude. Bakoitzak gura duena



Txunpa txun kantaren aurkezpen argazkia. POTX ETA LOTX



Bizarro musika taldeko kideak. BIZARRO

entzun, irakurri edo kontsumitu dezake, baina modu kontzientean. Horixe da zabaldu gura dugun mezua", dio Josu Zubiak. Txinparta bertso eskolako Urko Arregik egin du letra; reggaetonaren parodia egiten dute, pailazoaren ikuspuntutik. Asier

Burguete aktorearen kolaborazioa izan dute, hainbat herritarrenarekin batera. Berez disko berriaren etorriko diren kantuetako bat da hori. Prest dute lan berria, baina egoerak atzeratu egin du aurkezpena, eta pizgarri moduan egin dute.

"Batzen, ikasten eta laguntzen" jarraitu gura du Antixenak

Zortzi urte bete ditu abendu amaieran Antixena gaztetxeak, eta "herrian eragina izaten, batzen, ikasten, laguntzen eta gauzak elkarrekin eginez jarraitu" gura dute bertako gazteek, "aldarrikapen ezberdinei forma emanda". Hamabost urtetik hona asko ikasi eta disfrutatu dutela diote, herrian eragina dutela eta egungo egoera ezohikoari ondo erantzuten dakitela erakutsi dutela. Gazte Asanblada eta gazte eragileak indartsu daudela diote, eta euren "gaztetasuna modu honetan bizitzen" jarraituko dutela. Urtarrilerako, esaterako, irteera, poesia emanaldia, liburu aurkezpena eta kontzertua antolatu dituzte.

Joera nagusiei buruzko hitzaldi sorta antolatu du EH Bilduk

Hamar solasaldiz osatutako zikloa antolatu du Oñatiko EH Bilduk, "gaur egun munduan gertatzen ari diren joera nagusien inguruan patxadaz solasean egiteko, herritarrekin, eragileekin eta adituekin batera". Hilabete bakoitzean saio bat izango da eta landuko dituzten gaien artean daude, esaterako: infoxikazioa, fluxu migratzaileak, megahiriak, klima larrialdia eta genero arrakala. Urtarrilaren 13an izango da lehen solasaldia: infoxikazioa gai hartuta, Eki Txapartegi, Iraia Oiartzabal eta Ugo Mayor izango dira hizlariak. Santa Anan izango da eguazteneko solasaldia, 18:30ean. Aurrez hartu behar da sarrera.

Urmeneta, Jimeno eta Agirre, datozen hizlarien artean

Nabarraldeko Oñatiko taldeak gure historiari buruzko Gutaz hitzaldi sorta antolatu du urtarrilerako; konkistei buruz iaz egindako zikloaren jarraipena. Asisko Urmeneta, Roldan Jimeno, Gotzon Barandiaran, Rafa Rueda eta Beñi Agirre etorriko dira. Agirrerekin batera, gainera, bisita gidatuak egingo dituzte kultura etxeko erakusketa gelan; hilaren 11n eta 25ean izango dira bisita gidatu horiek, 18:30ean. Euskal Herriaren burugabetzearen jatorria eta bilakaera ulertu eta burujabetzaren alde egiteko gogoia piztu gura dute. Lehen hitzaldia Urmenetak egingo du, martitzenean, 19:00etan, zinema aretoan.

GORA ETA BEHERA



Bidegorriaren zati bat oztopatzen

Aparkatutako ibilgailuak bidegorriaren oinezkoen zatia nola oztopatzen duen ikusteko bidali du herritar batek argazki hori GOIENARA. Zubillagako industrialdean atera du.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Ziklo-krosaz gozatzen dihardute txirrindulariek

Aimar Madina eta Aimar Erostarbe txirrindulariak Espainiako ziklo-kros txapelketan lehiatuko dira asteburuan, Torrelavegan (Kantabria). Azken hori, gainera, Euskadiko selekzioarekin arituko da. Errepideko denboraldia otsailean hasia aurreikusten dute

Maialen Santos OÑATI

Oñatiko ziklo-kros probarik ez dute antolatu aurten, eta, hori gutxi balitz, herriko txirrindulariek Euskal Autonomia Erki-dego barruan ere ez dute izan lokatz artean ibiltzeko aukerarik, osasun krisiaren eraginez ez baita probarik egin. Gauzak horrela, EAEtik kanpo dihardute ziklo-krosaz gozatzen txirrindulariek.

Joan den asteburuan, Madrilgo Villa del Pradoko sari nagusian parte hartu zuen Aimar Madinak. Ulma-Aloña Mendiko ziklistak bi proba egin zituen, eta zazpigarren eta zortzigarren sailkatu zen. Txirrindulariak adierazi du ziklo-krosean aurten egindako estreinako bi probak izan direla horiek, eta "oso gustura" geratu dela lortutako emaitzekin. Gaineratu du faltan sumatzen dituela herritik gertu egiten diren probak, baina, edozelan ere, kanpora ere gogotsu joaten dela.



Aimar Erostarbe, asteburuan Albaceten egindako ziklo-kros proban. CXLALAGUNILLA

Aimar Erostarbek ere jardun zuen lokatz artean asteburuan, Gipuzkoako Selektzioako kide moduan hartu zuen parte El Bonillon (Albacete) jokaturako La Lagunilla ziklo-krosean. Bigarren heldu zen helmugara eta


azaldu du "merezi" izan zuela bidaiak, "ondo" aritu zelako.

Biek ala biek asteburu honetan izango dute hurrengo hitzordua; izan ere, Torrelavegan (Kantabria) jokaturako den Espainiako txapelketan lehiatuko dira. Eros-

Hala eta guztiz ere, azaldu du egutegia ez dela "behin betikoa", eta aldaketak egon daitezkeela egoeraren eboluzioaren arabera.

Oñatiko proba, apirilaren

Apirilaren 24an egingo dute Oñatiko duatloia, eta berrikuntzekin datorrela azaldu du Perezek; izan ere, aurten, esprint distantzian eta erlojupeko formatuan egingo dute: "Erlojupean egitearen arrazoia izan da parte-hartzaileen arteko segurtasun distantziak mantentzearena". "Aurreikusten" dutenez, parte-hartzaileek bost kilometro egingo dituzte korrika, lehenik; jarraian, hogeik kilometro bizikletan; eta, amaitzeko, bi kilometro eta erdi korrika. Edozelan ere, ibilbide zehatza zein izango den zehazteko dago oraindik ere, taldetik azaldu dutenez.



Mikel Ugarte, 2019ko duatloian. GOIENA

Dagoeneko zabalik dago triatloian federatzeko epea


Aloña Mendiko triatloi taldearekin harremanetan jarri behar da; Oñatiko duatloia apirilaren 24an egingo dute

M.S. OÑATI

Aloña Mendirekin triatloian federatzeko epea zabaldu dute dagoeneko, eta, info@aloinatriatloi.org helbidera mezua idatzita, 677 24 31 98 telefonora deituta edota euren Facebook orriaren bitartez egin daiteke izen-ematea.


Triatloi taldeko kide Iban Perezek azaldu du COVID-19aren ondorioz egoera "aldakorra" den arren aurrera egitea erabaki dutela: "Ikusi da klub antolatzailerak triatloiak lanean has-teko gogotsu daudela, eta horrek egutegia osatzea ahalbidetu du".

Cueva eta Casais, talde berriekin



UNAI CUEVA
EULEN TALDEA

Unai Cueva oñatiarrak (2002) lau urte egin ditu Ulma-Aloña Mendi txirrindularitza taldean. Aurten, Eulen taldearekin arituko da bizikleta gainean, afizionatu mailan. Cuevak egindako lorpenen artean dago nazioarte mailako Gipuzkoako klasikoan hamargarren postua lortu izana.



DANEL CASAIS
AMPO TALDEA

Danel Casais oñatiarrak (2003) hiru urte egin ditu Ulma-Aloña Mendi txirrindularitza taldean. Aurten, Ampo taldearekin arituko da bizikleta gainean, gazte mailan. Casais egindako lorpenen artean dago irailean Oñatin egindako Mikel Deuna txirrindularitza sarian lortutako garaipena.

tarbe Euskadiko selekzioarekin arituko da eta Madina, indibidualki. Proba gogorra izango da, euren ustez, "lokatz asko egongo delako". Hala ere, ahalik eta lan onena egin eta disfrutatzeko asmoz joango dira.

Errepideko denboraldira begira

Aloña Mendiko txirrindularitza saileko kide Ruper Arkauzek azaldu du "urte gogorra" izan dela taldeko txirrindularientzat, osasun krisiak baldintzatuta. Hark dio sasoi honetan ez du-

tela ziklo-krosaz gura beste gozatzeko aukerarik izango.

Errepideko denboraldiari buruz galdetuta, kadeteek eta gazteek otsailean hasteko aurreikuspena dutela azaldu du, eta une honetan "dena prest" izateko lanean dabilzala klubean. Gaineratu du gazteek urtero hasten dutela denboraldia gogotsu, baina, aurten ziklo-krosean aritzeko aukera gutxi izan ditzutenez, "litekeena da are gogotsuago eta amorru puntu batekin hasia denboraldia".



OÑATIKO UDALA

Rokodromo txikia, erabilgarri

Zubikoa kiroldegiaren kantxa urdinerako sarrerako paretetako batean rokodromo txiki bat egin dute eta dagoeneko erabilgarri dago. 2018ko aurrekontu parte-hartzaileetan aukeraturako proiektuetako bat izan zen "herrigunean altuera txikiko rokodromo bat eraikitzeke paret bat gaitzea, adin eta maila ezberdinetarako aproposa".

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behe / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behe / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA

Arexabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GARAI HORTZ KLINIKA

Arexabaleta / Iratibari 15 / 943 53 42 63

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosamir J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behe /
943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

KIROPRAKTIKA ZENTROA

BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Arexabaleta / Loranendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Arexabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

Beste erronka batzuetara salto

ATLETISMOA Iñigo Uribarrenek (Arrasate, 1993) maiatz inguruan esango dio agur azken hamazortzi urteetan motibazio-iturri izan duen kirol jarduerari. Arrasatek eman duen atleta onenetako batek dagoeneko barneratu du txipa aldatzeko ordua dela

Xabier Urzelai ARRASATE

Iñigo Uribarrenek nahikoa dela erabaki du; azken bizpahiru urteetan, atletismoak poztasunak baino gehiago buruko minak eman dizkio, eta kirolaz gozatzen jarraitu gura duela dio; eta badabil horretan dagoeneko.

Arrasateko salto hirukoitzeko espezialistak maiatz inguruan zintzilikatuko ditu ondo urrututako zapatila iltzedunak, Rea-larekin dituen hitzordu eta konpromisoak bete ostean, eta bakean esango du agur, egindakoaz pozik: "Pista estaliko denboraldia ez dut egingo, baina aire zabalean taldekideei laguntzea da asmoa, kluban arteko txapelketari begira, esaterako. Hor Eneko Carrascal izango da gure erreferentea; ni laguntzeko egongo naiz". Horretarako, pare bat hilabetez entrenatuko da, eta gero, atletismoa denbora batez alboratu egingo du. "Mendian lagunekin izugarri nabil gozatzen, eskiatzeko gogoz nabil, bizikletan hasi gura dut... Urte hauetan guztietan egin ez dudana egin gura dut, lotura barik. Arrasateko klubetik esan didate ea entrenatzaile moduan hasiko ote nintzatekeen. Atletismoa izugarri gustatzen zait, eta etorkizunean ez dut baztertzen, sal-tsa hori atsegin dudalako, baina orain, txipa aldatzeko beharra daukat, apur bat urruntzekoa".

Lorpen handiena, Salamancan

Oso gaztetan hasi zen Uribarren atletismoan. Iturripen, Txufi-rekin batera, atletismoa ze modalitate egokitzen zitzaien ikusten hasi eta goiz hasi zen Mikel Uribesalgoren esanetara lanean, ondoren Realera salto egin eta Ramon Cidekin entrenatzen hasi zen arte. Luzera-saltoari baino gehiago, salto



Iñigo Uribarren. XABIER URZELAI

hirukoitzari hartu zion eskua, nahiz eta azken hori teknikoki zailagoa den. "Baina luzera-saltoan errazago hartzen nuen min, teknika ez nuelako horrenbeste menderatzen. Berez, salto hirukoitza da gorputzarendako zakkarragoa, baina hor hobeto moldatu izan naiz beti".

Hala, 2015ean 23 urtez azpiko Europako Txapelketarako sailkatu izana (Estonia) izan zen Uribarrenen kirol mugarrietako bat. Lorpen handiena, baina, bi urte geroago etorri zen. 2017a urte emankorra izan zen Reale-

ko atletarendako, onerako eta txarrerako. Espainiako Txapelketa absolutuan, Salamancan, brontzea irabazi zuen -16,17 metro, marka pertsonala-, baina, aldi berean, urte eta erdiz pistetatik kanpo izan zuen oin-fasziitisa izan zuen urte hartan.

"SALTO HIRUKOITZEAN MOLDATU IZAN NAIZ ONDOEN, NAHIZ ETA TEKNIKOKI ZAILAGOA DEN LUZERAKOA"



Uribarren Mojategin entrenatzen. GOIENA



Uribarrenek badu erreleboa, Eneko Carrascal. GOIENA



Espainiako Txapelketa absolutuan (2017), brontzearekin. REAL SOCIEDAD

Hala, ia bi urte behar izan zituen buruko min galantak eman zizkion lesioa gainditzeko, baina 2019an indartsu bueltatu zen. "Akaso, helburu zorrotzegiak jarri nituen, eta, min barik egonda ere, konturatu nintzen saltoa egiterakoan *feeling*-a galdu nuela; ondo egonda ere, ez nintzen lehengo marketara gerturatzeko kapaz. Eta hori gogorra da. Podiumaren bueltan ibiltzetik hamargarren postuan sailkatzeko borrokan ibiltzera pasa nintzen, eta ez nuen ondo barneratu; niretako hori ez da nahikoa.

Hau da, lantegiko lanarekin bateratu behar den kirol jarduerara da gurea, hemen ez dago dirurik, gogor entrenatu behar da, eta gauza asko alboratu behar dira. Bada, horrekin guztiarekin kirol emaitzak ez badira esportakoak, nahiago dut beste kirol jarduerara batzuetaz gozatu, gauza berriak egin, horrek motibatzen nau orain".

Badoa, baina egindako lanaren uzta jasota, eta errelebo ederra datorrela ikusita. Eneko Carrascal eta Alex Agiriano dira oraina, eta etorkizuna.

Realeko zaleen artean arrastoa utzi du Agustin Aranzabal 'Gaztelu'-k

FUTBOLA Abenduaren 30an hil zen Puertollanoko heroietako bat, 1966an Reala Lehenengo Mailara igotzen lagundu zuenetako bat. 'Gaztelu'-k 308 partidu jokatu zituen elastiko txuri-urdinarekin eta, guztira, 32 gol sartu zituen



Xabier Urzelai ARRASATE

Duela bi urte izan zen GOIENA azkenekoz Agustin Aranzabal *Gaztelu*-k Puertollanoko heroiekin batera partekatu zuen bazkariaren testigu. 2018ko apirilaren 28a zen eta ordurako Realeko jokalaria ohia makal samar zebilen osasunez. Taldekide beterranoek, baina, urtero Aste Santu ostean 1967ko kirol lorpen historikoa gogoratzeko egiten duten bazkarian –Reala apirilaren 23an igo zen Lehenengo Mailara– *Gaztelu* ondoan gura zuten, eta erabaki zuten Bergaran bertan egitea hitzordua, Umore-Ona elkartean.

Hala, jokalaria beterranoz osatutako bazkari hartan beste belaunaldi bateko txuri-urdin batek gozatu ederra hartu zuen, egun hartan Agustin Aranzabal semeak lagunduta joan zen-eta aita hitzordura. Urtero moduan, anekdota onak, ardo hobe eta konpainia ezin hobe izan ziren menua. Orduan eseri zen, baina, *Gaztelu* azkenekoz realzaleekin

batera mahaiaren bueltan, 2019an bergararrak kale egin zuen-eta Sagastak eta Aranbarrik Garagartzako Leze-Txikin antolatutako bazkarira. Hala, urte eta erdi geroago, 2020ko abenduaren 30an zendu zen *Gaztelu*, 74 urterekin.

"Zelaian dena ematen zuen"

Realeko jokalaria ohiak arrastoa utzi du txuri-urdinen artean eta asko izan dira azken aste pasatxoan *Gaztelu* jokalaria eta pertsona moduan nabarmendu dutenak. Abenduaren 30ean, heriotzaren berri jakitearekin batera, *Gaztelu* gertutik ezagutu zutenen atea jo zuen GOIENAK, Bergarako futbolari ohia nola oroitzen zuten jakiteko. Realeko eta Eibarko zuzendaritzetako kide izandako Juanjo Arrietak urtebetez jokatu zuen *Gaztelu*-rekin batera: "Azken hilabeteetan berarekin egoteke, eta, tamalez, dei bat jaso dut berri txarra emanez. Elkarrekin jokatu genuen urtebete; bera gaz-


te mailatik zetorren eta ni beterranoa nintzen. Harreman pertsonal oso ona izan dut beti berarekin, eta pena eman dit bere heriotzak. Askok sentitu dut. Gizon zabala eta jatorra zen oso, eta futbol arloan, zer esan... Ez zen teknikoena izango, baina



RICARDO CRIADOREN ARTXIBOA



RICARDO CRIADOREN ARTXIBOA



RICARDO CRIADOREN ARTXIBOA



RICARDO CRIADOREN ARTXIBOA

1. Aranzabal aita-semeak, argazkiaren erdian, 1967an Puertollanon Reala mailaz igo zutenekin urtero egiten duten beterranoen bazkarian, Bergaran (2018).
2. *Gaztelu*, Gorriti eta atzean Satrustegi, Atotxan, Bartzelonaren kontra (1976-1977).
3. *Gaztelu*, ezkerrean, Arconadak R. Madrilekoek egindako erdiraketa baten ostean baloia zelan hartzen duen ikusten, Santiago Bernabeun (1977-1978).
4. 1979-1980 denboraldian, Realak 32 partidu egin zituen galdu barik, baina Sevillako porrotaren ostean ez zuten mailaz igotzerik lortu. Hurrengo partiduan, Atletico Madril taldeari etxean 2-0 irabazi eta gero, zaleak ez ziren Atotxako harmailetatik joaten –*Gaztelu*-k sartu zuen bigarren gola–, eta jokalariek ostera ere berdegunera irten behar izan zuten zaleei animoak eskertzeraz.
5. *Gaztelu* Atotxako aldageletan arropak aldatzen (1969-1970 denboraldia).

gogorra eta lehiatzaile izaten inork ez zion irabazten".

Inaxio Kortabarria ere taldekide izan zuen bergararrak, eta, besteak beste, 1976an Atotxan jokaturako derbi *historikoa*-n batera zeuden, Iribar eta Kortabarria ikurrina eskuan zutela zelairatu ziren hartan: "Futbolari gisa guztia ematen zuen horietakoa zen, oso gogorra eta indartsua. Alturaz txikia izan arren, sekulako salto gaitasuna zuen, eta azkarra zen. Ez zuen zorte handirik izan, lesioengatik. Pertsonalki, berarekin tokatu zitzaidan hoteleko gelak partekatzea, eta berriro diot, oso pertsona atsegina zen".

Realeko entrenatzaile ohi Asier Garitanok ere gertutik ezagutzen zuen *Gaztelu*. Futbolari moduan egindakoagatik, eta baita aitarekin harreman pertsonala zuelako ere: "Gogoan dut, 10 urte nituela, ia domekero joaten ginelako Atotxara berak lagatako sarrerekin. Igeldoko kontzentrazio hotelera joaten ginen,

kafetxo bat hartu, sarrerek jaso, eta futbola ikustera. Kasta handiko jokalaria zen, ofizio handikoa, kamiseta asko izerditzuten duen horietakoa; hainbat postutan jokatzeke gaitasuna zuen".

308 partidu Realarekin

Jose Agustin Aranzabalek (Bergara, 1946) 1966an debutatu zuen Realarekin. Hain zuzen, taldeak Puertollanon Lehen Mailarako igoera lortu baino urtebete lehenago. 70eko hamarkadako futbol hark, baina, ez zuen gaur egungoarekin zerikusirik. Hala ere, urte haietan egindako lan onak hurrengo hamarkadan eman zituen fruituak, Realaren urrezko urteetan, besteak beste, 1981eko Liga Txapelketa irabazi zuten eta. Eta *Gaztelu* lorpen handi haien testigu izan zen. Realarekin, hamalau denboralditan, 308 partidu jokatu zituen, gehienak erdilari, eta 32 gol sartu zituen. Hala ere, taldeko kapitainak abilezia erakutsi zuen edozein postutan jokatzen.

"Oso gutxioren esku dago 'one club man' izatea; ez dut horren penarik"

MIKEL GONZALEZ DE MARTIN AEK LARNACA TALDEKO FUTBOL JOKALARIA
Realean hamaika urte eta Zaragozan bat jokatu ostean, Ziprera heldu zen 2018an. Leku "eder" horretan arituko da 2022ra arte, eta erretiroa hartuko du ostean

Xabi Gorostidi ARRASATE

Zipre uharte turistikoan dago *Gontxa* 2018a ezkerro, eta bertan egingo ditu futbolari ibilbideko azken lau urteak.

Aurtengo Gabonetan herrimina ezin ase geratu zara...

Egia esan, bai. Ahal dudana bakoitzean Arrasatera itzultzen naiz, niretzako oso beharrezkoa delako. Aurten, egoera berezi hau dela eta, ezin izango naiz Gabonetan itzuli, eta bai, herri-min puntu hori badaukat. Emaztea eta seme-alabak itzuli dira, eta ostean koarentena bat egin beharko dute Zipren. Guk, ordea, urtarilaren 3an partidua geneukan; beraz, klubak ez zigun kanpora joaten utzi.

Zer moduz moldatu da familia Zipreko bizimodura? Dagoeneko seme-alabek ingeles maila aparta izango dute...

Hala da. Oso ondo gaude, eta oso erraza izan zen herrialde honetara moldatzeko prozesua. Seme-alabek ingelesez egiten dute eskolan, eta hor konturatzen zara zer-nolako ikaste gaitasuna dugun txikitari. Umeek erraz erraz hartu dute hizkuntza berria, eta, nire kasuan, eurei baino dezenteko gehiago kostatzen zait. **Iazko denboraldiari nola eragin zion COVID-19ak?**

Martxoan liga eten zen zortzi partiduren faltan, eta ez zen berriz martxan jarri. Hala adostu zuten klubek; hein handi batean, gehiengoari hala inte-

resatzen zitzaioelako. Beste modu batera esanda: ez zen COVID-19ak indarrez behartuta eten, klub gehienei etetea interesatzen zitzaielako baizik. Hamabi talde garenez, zera adostu zuten: lehen lau sailkatuak Europara joatea eta azken sei sailkatuek maila ez galtzea. Klub guztiak zeuden ados, bosgarren eta seigarren sailkatua izan ezik; eta gure taldea bosgarren sailkatua zen erabakia hartu zenean. Ez geunden ados liga etetearekin, baina gutxiengoa ginen.

Jarraitzen duzu Real Zipretik?

Bai, noski. Realzalea naiz, eta ahal dudana bakoitzean ikusten dut. Gainera, une honetan Real ikustea futbol ona ikustea da. Baina egia da gero eta urruntasun puntu handiagoarekin jarraitzen dudala, taldean gero eta gutxiago direlako pertsonalki ezagutu ditudan jokalariek. Jokalariak urtetik urtera asko aldatzen dira, eta orain apenas dago nirekin taldean aritutakorik. Kristoren maitasuna dut Realarekiko, baina igartzen dut maitasuna indartsuagoa dela bertan ezaguna duzun norbait dagoenean.

Harrobiaren aldeko apustua egin duen klubak zu bertan zeundela, eta orain, inoiz baino fruitu gehien ematen ari da...

Klubak egoera ekonomiko ona izan arren, harrobiaren alde egiten jarraitzen du: jokalaria gazte pila bat heldu dira, minu-

tu asko izaten dituzte... Horrek are gehiago indartzen du harrobi filosofia hori. Eta, gainera, kirol maila aparta ari dira ematen: Europan jokatzeko sailkatuta, Ligan aurrealdean, Kopa final bat jokatzear, Superkopa jokatzear... Sekulako meritua du horrek.

Lehen mailan jokaturako lehen partidua haieran, zein aurrelariren oroitzapena duzu?

Askorena. Lehena, Arango. Mallorcako debutean partidua ikus-

"LILLO ETA MONTAINIER IZAN DIRA GEHIEN MARKATU NAUTEN ENTRENATZAILEAK"

"2022RA ARTE LUZATU DUT KONTRATUA; OSTEAN, EZ DUT FUTBOLARI GISA JARRAITUKO"

"UME NINTZELA HASI NINTZEN REALEAN, ETA UMEAK ESKU ARTEAN NITUELA ESAN NUEN AGUR"



Mikel Gonzalez de Martin, AEK Larnaca taldeko elastikoarekin. AEK LARNACA

garria egin zuen: 3 gol sartu zituen.

Egia da. Realaren aurka partidua latzak egiten zituen beti...

Ziur, Youtuben Arango jarritz gero ni agertuko naizela haren atzetik. Gehiago ere oroitzen ditut: Atletico Madril taldeko Kezman eta Torres, David Villa Valentzian...

2006/2007 denboraldian lehen taldeko jokalaria bilakatu zinen. Eta urte hartan, Bigarren Mailara jaitsi zen taldea. Zerk egin zuen kale?

Zaila da erantzuten. Oso gaizki hasi ginen. Lehen partidua 14. jardunaldian irabazi genuen, Nastic-en aurka... Entrenatzailerik aldaketak, zuzendaritzan aldaketak... Gogoratzen dut drama itzela izan zela niretzat. 20 urte izango nituen, eta 40 urte baino gehiago pasa ostean Real bigarren mailara jaistea, norbera bertan egonda... Orain, perspektibaz eta esperientziaz ikusita, ez nuen hala biziko. Badaude bizitzan hori baino gauza garrantzitsuagoak, baina adin horrekin munduaren akabera balitz bezala bizi duzu.

Bigarren Mailan hiru denboraldi egin zenituzten. Jokalaria gisa kontsolidatzeko baliagarri izan ziren?

Bai, erabat. Astebururo jokatzen nuen, eta taldeko partaide sentiarazten dizu horrek. Hala ere, urte gogorrak izan ziren; batez ere, zuzendaritzan eta arlo ekonomikoan klubak zuen ezegonkortasunagatik.

Bigarren Mailako une latzena eta goxoena?

Latzena, lehenengo urtean Mendizorrotzan bizi izandakoa. Partidu bakarraren faltan mailaz igotzeko aukerak genituen, baina azken minutuan galdutako partidua hura kolpe latza izan zen. Oraindik iltzatuta ditut partidua haren amaierako une batzuk. Eta goxoena? Zailantzarik gabe, igoera lortu genueneko. Bai Anoetako partidua, eta baita astebete lehenago Cadizen bizitakoa. Poza baino gehiago, sekulako lasaitasun sentazioa eman zidan igoera lortzeak. Motxila bat kendu nuen gainetik.

Ostean, hainbat denboraldi Lehen Mailan; maila onean eta gauza garrantzitsuak lortzen...

Lehen bi urteetan maila mantentzea lortu genuen, eta hirugarren urtean *pelotazoa* jo genuen Philippe Montainierrekin. Txapeldunen Ligarako

sailkatu ginen, hurrengo urtean Europa Ligarako... Klubaren egonkortasuna eta taldearen futbol maila beste dimentsio batean zeuden jada. Azken urteetan ez nuen askorik jokatu, lesioak izan nituen... Atzetik ere jende gaztea zeto-rreren, eta gauza bategatik edo besteagatik jada ez nuen lehen-go maila bera eskaintzen. Atzera begiratuz gero, pozik nago, oso, Realean izan dudan ibilbidearekin.

Realean dozena bat entrenatzailer izan zenituen: Amorrortu, Arconada, Bakero, Lotina, Coleman, Eizmendi, Lillo, Lasarte, Montainier, Arrasate, Moyes eta Sacristan. Horietako zeinekin geldituko zinateke?

Hamabi? Gutxi iruditzen zaizkit; kar, kar, kar. Betidanik esan izan dut Lillo izan dela gehien irakatsi didan entrenatzailea. Harekin egindako urtean ez genuen igotzerik lortu; Martin Lasarterekin igotzen. Baina aurreko urtean ez bagenu Lilloarekin jokatu izan, ez dut uste igotzea lortuko genuenik. Asko-asko irakatsi zigun, eta igotzea lortu genuen urtean geneukan jokoa, hein handi batean, bere lanaren emaitza zen. Eta asko markatu ninduen beste bat Philippe Montainier izan zen. Ez, agian, futbol kontzeptu zoragarriak zituelako, baina bai bere zintzotasunagatik eta bere hitzen berotasunagatik. Zerbait esaten zizunean, benetan esaten zizun; onerako eta txarre-rako. Pertsona oso justua zen, eta entrenatzaile batengan asko estimatzen dudana ezaugarria da hori.

Realean egindako azken urtean, nola bizi izan zenuen kontratua ez berritzearena...

Ondo eraman nuen, modu naturalean. Ulertu ahal nuen klubak urte bat gehiago eskaintzea, edo zuzenean kontratua ez luzatzea ere bai. Bazeuden harrobitik indartsu zetozenak, nahiz eta azkenean Llorente fitxatzea erabaki zuten. Eta primeran irten zaie, berriki saldu baitute 20 milioi euroren truke. Nik ez nuen drama bat bezala bizi izan: gauzak hasi egiten dira, eta bukatu ere bai. Asko gozatu nuen Realean; jende zoragarri inguratuta egon izan naiz, eta asko eman izan didate. Beraz, agur, eta eskerrik asko.

Nola oroitzen duzu 2017ko maia-tzaren 24a, Realak omenaldia egin zizun eguna?

Omenaldia zapatuan zen, eta martitzenean abisatu zidaten. Egun eder bat bezala oroitzen dut: kuadrillakoen babesa, familiarena... Ume bat nintzela sartu nintzen Realean, eta nire umeak esku artean nituela esan nuen agur. Niretzat oso garrantzitsua zen kluba ondo agurtzea, eta, zentzu horretan, lasai joan nintzen. Gaur egun, une hura gogoratzean, esaten diot neure buruari: "Ederto, Mikel".

Atzeko lerroan hainbat taldekideekin jokatu izan duzu. Bat aukeratzekotan?

Jon Ansotegi, zalantzarik gabe. Egunero ari ginen postu batengatik borrokan, eta gaur egun nire lagunik hoberenetakoa da, hobereana ez bada. Lehia handia zegoen, baina horren gainera egon da beti bion laguntasuna.

Eta taldekiderik eredugarriena?

Mikel Aranburu, esango nuke. Gazte harrapatu ninduen eta urte asko egin nituen bere alboan. Niretzako ezin hobeto sinbolizatzen du futbol jokalaria bat nolakoa izan behar den; bai zelai barruan, eta baita zelaitik kanpo ere. Eta Mikel aipatu dudana modu berean, Xabi Prieto ere bai. Bi horiek. **Futbolari umila zarela iruditu izan zait beti. Neurtzen zaila da, baina Lehen Mailako futbolari profesional gutxi ezagutu ditut Ford Focus batekin?**

Zarata ateratzen zuen, baina nagikeria hutsagatik ez nuen autoa aldatzen. Nik uste dut pertsonalki ezagutu izan nauzulako diozula hori, baina, beste edozein futbolari arlo pribatuan ezagutuz gero, gertutasun edo umiltasun hori ikusiko duzu.

Musikarako zaletasuna ere izan da zure beste ezaugarri bat...

90eko hamarkadan hasi nintzen Arrasateko musika eszena bizi izaten, eta ez dut ezerekin aldatuko. Astebururo kontzertuak ikustera joaten ginen, Gipuzkoan zehar, gidabaimenik izan gabe... Une honetan panorama oso eskasean dago kultur arloa, eta pena itzela ematen dit atzetik datozenek guk bizitakoa gozatzeko aukerarik ez izateak. **Realetik Zaragozara. Zein oroitzen dituzu Aragoi aldean?**

Ba, oso esperientzia ona izan zen: aldagela berri bat ezagutu



Anoetan, Real Madrilén aurkako lehia baten, taldekideei aginduak ematen. GOIENA



De la Bella, Martinez, Zurutuza, Gonzalez de Martin eta Ansotegi. GOIENA



Zaragoza-Numancia play-off-ean, golegile. TINO GIL / REAL ZARAGOZA



AEK Larnacan kapitain besokoarekin. AEK LARNACA

nuen, hiri berri bat, jende berri asko... Uda hartan hainbat aukera izan nituen, eta nire alde gogor apustu egin zutelako aukeratu nuen Zaragoza.

Zeintzuk izan ziren beste aukerak?

Lehen Mailan jarraitzeak motibatzen ninduen, baita Espainiatik kanpo joateak ere... Lehen Mailako talde bat interesatuta egon zen, eta AEBetan jokatzeko aukera sortu zitzaidan; baina, azkenean, ez zen gauzatu. **Bigarren Mailan zeundela, norbaitek esanez gero leku liluragarri batean amaituko zenuela zure ibilbidea, Europa Liga jokatzene... sinatuko zenuen?**

Bai, noski. Zaragozarekin bi urteko kontratua nuen, baina askatasuna nuen taldea utzi nahi izanez gero. AEK Larnacan Ander Murillo zegoen zuzendari, eta deia jasotzean ez nuen askorik pentsatu behar izan. Lehen urtean bigarren geratu ginen, eta horrek Europan jokatzeko txartela eman zigun. Esperientzia itzela izaten ari da Zipren bizitzen ari garena.

2022ra arte?

Hala da. Urte bat gehiago eskaini didate, eta oso gustura nago. Gaur-gaurkoz, 2022ra arte jarraitzeko gogoz nago, eta ostean ez dut futbolari gisa jarraituko. **Une honetan bi arrasatear daude Lehen Mailan. Nola ikusten dituzu?** Aitor Fernandez zertxobait ezagutzen dut, eta asko pozten naiz beragatik, maila aparta ematen ari baita. Nik, gainera, lehen pertsona sufritu nuen, Zaragoza-Numancia play-off-ean. Bere erruz ez genuen etxeko partidua irabazi; argi eta garbi. Sekulako geldituak egin zizkigun. Andoni Gorosabel ez dut ezagutzen, baina jarraitzen dut. Aurten, batez ere, oso maila onean dabil.

Aranburu eta Prieto aipatu ditugu lehen. Pena ematen dizu one club man gisa ez amaitu izanak?

Ez, batere. Oso pozik nago egin dudana bidearekin, eta soberan bete ditut 19 urterekin nituen ametsak. **One club man** izatea—klub bakarreko jokalaria—oso gutxiren esku dago; oso-oso zaila da. 18 urtetik 33-35 urtera arte sekulako maila ematen aritzea eskatzen du horrek. Realean edo Athleticen maila horretan aritzea 16 urtez... basatia da.

Erretiroa hartzean, zer?

Ideiarik ere ez. Arrasaten irudikatzen dut neure burua, baina bizi garen mundu aldakor hau ikusita... auskalo.

Zuzeneko arte diziplinei, beharrezko bultzada

Kultura sustatzeko, agertokietara itzultzeko, erritmoa berreskuratzeko, sormena bultzatzeko eta zuzeneko arteekiko ilusioa partekatzeko 'Beste bat!' egitasmoaren barruan, hainbat arte-diziplinako 250 emanaldi baino gehiago izango dira

Imanol Beloki DEBAGOIENA

Euskal Herriko Musika Bulego elkarteak (Musika Bulegoak), Euskadiko Antzoki Sarearen lankidetzarekin eta Eusko Jaurlaritzak finantzatuta, *Beste bat!* Zuzeneko Arteen Zirkuitua ekimena jarri zuen abian azaroan, kultura sustatzeko, agertokietara itzultzeko, erritmoa berreskuratzeko, sormena bultzatzeko eta zuzeneko arteekiko ilusioa partekatzeko. Martxora arte egitarau zabala izango da hainbat areto eta antzokitan, eta bailaran egongo den eskaintza ere paregabea da.

"Deialdi irekia egin zen Euskadiko musikarientzat, antzerkilarientzat, bakarrizketak egiten dituztenentzat... Sortzaile guztiei zuzendutakoa. Izena eman zutenekin zerrenda bat osatu, eta kontzertu aretoei eta Sarea ekimenaren barnean dauden areto zirkuituari bidali zitzaion. Hala, bertako programatzaileek aukeraketa bat egin zuten, eta egitarau orekatua antolatu da", adierazi du Arkaitz Villarrek, Musika Bulegoko proiektuen arduradunak. Gaineratu du "pozarren" daudela egitasmo horrekin, agertokiek, antzerkiek eta aretoek erritmoa berreskuratzeko dutelako. "Pandemiaren ondorioz kaltetuak izan diren



Sara Zozayaren kontzertua, astelehenean, Arrasateko Amaia antzokian. IMANOL BELOKI

zuzeneko arteak berpizteko bide ematen du ekimenak".

Hainbat arte-diziplinako 250 emanaldi baino gehiago eskainiko dira *Beste bat!* zirkuituaren barruan. Gehienak musika-kontzertuak izango dira (% 80), baina antzezlanak, dantza-ikus-kizunak eta zirku-funtzioak era badira egitarauan. Bizkaiko, Arabako eta, batez ere, Gipuzkoako areto eta antzokietan izango dira horiek. Bestalde, aipagarria da emanaldien % 70 baino gehiago euskaraz izango direla.

Bailaran proposamen ugari

Herriz herriko programazioa aztertuta, orekaren izenean banatuta dagoela egitaraua ere azpimarratu gura izan du Villarrek. Gaineratu du musika emanaldietan, bereziki, ibilbide luzeko zein laburragoko izenek osatzen dutela egitaraua. "Oñatin, Mila Modu herriko taldeak emanaldia eskaini zuen abenduaren 30ean, eta urtarrilaren 21ean, berriz, Zetak taldea izango da, esaterako. Arrasaten, adibidez, Sara Zozaya izan zen astelehenean, Amaia antzokian;

abeslari berria da. Eta aurrerago, Nogen taldea izango da, eta Eñaut Elorrieta musikaria. Bergarako Seminarixoa aretoan, berriz, Ruper Ordorika izango da urtarrilaren 21ean eta otsailaren 18an, berriz, Idoia Asurmendi aramaioarra, besteak beste. Oreatuta dagoela egitaraua esango nuke, eta garrantzitsua da hori. Gainera, Debagoiengan izango diren emanaldiez gainera, bertakoak diren taldeek ere eskainiko dituzte emanaldiak, nahiz eta, agian, bailaratik kanpo izan. Esate baterako, Arkada Social talde arrasatearrak Bermeon eskainiko du kontzertua hilaren 16an".

Beharrei erantzuna emanez

Balorazioa egiteko goiz den arren, Villarrek adierazi du orain artekoarekin pozik daudela, eta, egoera zein den ikusita, pilula bat dela egitasmoa, sortzaile eta kultura-zale guztiei laguntzeko aurrerapauso bat: "Jendea ondo erantzuten ari da, eta zuzeneko arteak eskaintzen dituztenek ere ondo hartu dute ekimena. Kultura segurua dela ikusi dugu, eta sortzaileek, artistek eta beraien atzean lan egiten duten guztiek asko eskertu dute. Gainera, talde berriak ezagutzea eramateko bide ere ematen du proiektuak. Behar bat dagoela ikusi da, eta aurrerago ikusiko dugu... baina garrantzitsua izango litzateke proiektuak jarraitzea".

Informazio gehiago jasotzeko

Zirkuituari buruzko informazio ofiziala eta agenda eguneratua www.beste-bat.eus webgunean daude ikusgai. Ikuskizunetarako sarrerak, bestalde, *Beste bat!* ekimenean parte hartzen duten aretoetan erosi behar dira.

'Beste bat!' ekimeneko saioak bailaran

Sarrerak ekimenean parte hartzen duten aretoetan erosi behar dira.

Urtarrilak 10

- **Goazen 7.0!** Oñatiko gaztelekuan, 17:00etan eta 19:00etan.

Urtarrilak 21

- **Olatz Salvador** Aretxabaletako Arkupen, 19:00etan.
- **Ruper Ordorika** Bergarako Seminarixoan, 19:00etan.
- **Zetak** Oñatiko gaztelekuan, 19:00etan.

Urtarrilak 25

- **Nogen** Arrasateko Amaia antzokian, 19:00etan.

Otsailak 4

- **Korrontzi & Xabier Amuriza** Aretxabaletako Arkupen, 19:00etan.
- **Olatz Salvador** Bergarako Seminarixoan, 19:00etan.

Otsailak 8

- **Eñaut Elorrieta** Arrasateko Amaia antzokian, 19:00etan.

Otsailak 11

- **Hezurbeltzak** Aretxabaletako Arkupen, 19:00etan.

Otsailak 18

- **Idoia Asurmendi** Bergarako Seminarixoan, 19:00etan.

ELKARRIZKETTAP

GOIENA TELEBISTA

URTARRILAREN 13AN, EGUAZTENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

LEIRE BILBAO POETA; JONI UBEDAK EGINDAKO ELKARRIZKETA

goiena
20 URTE ZUENIN.



"Ausardia da idazteko behar den lehen gauza"

MIKEL SOTO IDAZLEA

Urteetan editore lanetan jardun duen Mikel Sotok bere lehen poesia liburua aurkeztuko du Antixena gaztetxean gaur, eta Harkaitz Cano eta Irati Jimenez izango ditu alboan

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Suak pizten direnean aurkeztuko du iruindarrak gaur, gaztetxean, 20:00etan hasita; 19:30ean zabalduko dituzte ateak.

Hilabete batzuk dira argitaratu zenuela; gustura, orain, emaitzarekin?
Oso gustura. Bertigo pixka bat ematen zidan; uste dut egiten dudana kontakizunagatik eta bestela ere liburu bat argitaratzea beti delako zerbait berezia.

Zure bizialdiko hainbat mugarri jorratu dituzu: kontzientzia politikoa pizte, gazte mugimenduan enagiatzea, gezurretan oinarrituriko atxiloketa... Nola daude bzipen garratz horiek kontatuta?

Esango nuke bizipenok era nahi-
ko zuzenean kontatzen saiatu
naizela. Nire poesian badaude
edozein poesiatan aurkitu dai-
tezkeen sinboloak, metaforak,
errepikapenak, hots-jokoak...
baina saiatu naiz kontakizun
zuzen bat egiten, inportantea
baitzen niretzat hainbat gerta-
kizun eta bizipen transmititzea.
**Zure jaioterria da protagonistetako
bat. Nolakoak zen zure gaztaroko
lruñea eta zelakoa gaur egungoa?**

Ezberdina, pentsatzen dut, bai-na beldur handia ematen zidan –eta ematen dit– aspaldiko garaiak idealizatzea. Niretzat dagoen alde nabaria da egun ez dagoela aspaldi zegoen biolentzia maila eta horrek dakarren beldurra. Beldur horren falta da niretzat aldaketa nagusia.

Adiskidetasuna da liburua lotzen duen gaia. Hori da zure motorra?

Oso motor inportantea izan da liburuan, ezbairik gabe, hasi aurretik ere eskaintzan azaltzen da eta liburuaren azken esaldiraino heltzen da. Garai haietan bizitakoa ez luke zentzurik nire lagunik gabe eta haiek daude liburuko bertso bakoitzean.

Zure belaunaldi politikoko gertakari asko kontatzeke daudela diozu. Hutsunea beteago ikusten duzu? Hutsune ugari daude oraindik, baina pentsatu nahiko nuke



Mikel Soto idazlea. JUAN TXO EGAÑA

**"KONTAKIZUN ZUZENA
EGITEN SAIATU NAIZ,
HAINBAT BIZIPEN
TRANSMITITZEA
INPORTANTEA ZELAKO"**

orain pixka bat beteago dagoela aipatu hutsunea. Nahiko nuke liburuak ere jende gehiago animatuko balu berea idaztera.

Urteetako editore-esperientziak zertan lagundu dizu?

Erronka zail bati profesionaltasunez heltzen, esango nuke. Esperientziagatik badakit edozein kontakizun erronka zaila dela, eta horregatik saiatu nintzen kontakizun honi ahalik eta garrantia gehienekin heltzen. Inportantea izan zen zintzotasunari buruzko erabakia, baina inportantea izan zen ere zuzenketei edo errebisioei buruzko erabakia. Alegia, liburua Elkar argitaletxera bidali aurretik, Irati Jimenezen, Asier Serranoren, Harkaitz Canoren, Edorta Jimenezen eta Jon Alonsoren iradokizunak, zuzenketak-eta jaso zituen, eta emaitzan hori igarri egiten dela esango nuke.

Poema-liburu ausart, zintzo eta emankorra dela diote hainbat literatura adituk. Ausardia beharrezkoa da idazteko orduan?

Bai; hori da, agian, idazketa prozesuan izan dudan irakasgai nagusia. Talentua, kontatzeko istorio bat, narrazio egitura original bat... Hori guztia izan aurretik idazteko behar den aurreneko gauza ausardia da.

Ausarta da, zure ustez, gaur egun, euskal literatura eta sormena?

Ausarta da eta ausarta izan behar du. Zer baitetan kontserbadoregiak garela uste badut generoen arteko hierarkia absurdoetan da; joera handiegia dugu errealismoa genero seriotzat hartzeko eta besteak –fantastikoa den edozer, bereziki– arbuaitzeko.

Antixena gaztetxean aurkeztuko duzu: aurrerapen bat egiterik?

Ez dakit aurrerapena ote den, baina liburua gaztetxe batean hasten da, Iruñeko Euskal Jain, eta niretzat plazera da beste gaztetxe batean aurkeztea; espero dut hori igarri egingo dela. **Nori gomendatuko zenioke *Suak pizten direnean?***

Poesia edo gaia maite duen edo-
nori, eta, biak atsegin badituzu...
zure liburua da.

Goiena Klubaren txokoa

Hauek dira abenduko irabazleak!

ERRIGORAKO SASKIA
Jokin Pavo Exposito (Arrasate)

HARREMAN DENDAKO OTARREA
Txaro Carrizo Carretero (Eskoriatza)

ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK
Jesus Muruamendiaraz Igartua (Antzuola)
Lore Azkarate Ortiz de Zarate (Arrasate)
M^a Jesus Errasti Beitia (Arrasate)

LASA JATETXERA KO BI PERTSONENDAKO OTORDUA
Idurre Arbulo Ramos (Aretxabaleta)

ERREKI JATETXERAKO BI PERTSONENAKO OTORDUA
Mikel Otxoa de Angiozar (Oñati)

'IKIMILIKILIKLIK' ANTZEZLANERAKO SARRERAK
Atxen Mungia Etxabe (Arrasate)

GALA LIRIKORAKO SARRERAK
Gotzon Agirre Arregi (Arrasate)

**TXIKILANDIA EGITASMOREN
IKUSKIZUNERAKO SARRERAK**
Nerea Atorrasagasti Etxabe (Bergara)

**GAZTEKIN EGITASMOREN SERIGRAFIA
TAILERRAKO SARRERAK**
Nerea Izurrategi Idigoras (Aretxabaleta)

SARIAK JASOTZEKO:

[illegible]

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arrasateko Udalari esker
'Porno vs Afrodita' antzerkirako sarrerak ditugu
Arrasate | Amaia Antzokia | Urtarrilaren 17 | 19:00etan

PARTE HARTZEKO:

[illegible]

Puntuak aldezkarria jasotzeko,
zozketetan parte hartzeko eta
txartelaren abantailez gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA 57€
Deitur: 943 25 05 05 • kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskaraz irabazle, denok irabazle!

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Familia batek etxebizitza behar du errentan, gutxienez hiru logelakoa. 642 03 54 33

Arrasate. Hiru ume dauz-kagun familia gara eta etxebizitza behar dugu errentan. 640 71 78 55

Bergara. Etxebizitza behar dugu errentan, urgente. 690 75 61 18 (Mari Carmen)

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Erdialdean, Arrano taberna azpian, garaje itxia ematen da errentan. 607 66 02 44

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Pertsona bat behar dugu etxeko lanak egin eta emakume bat zaintzeko. 669 53 97 03

Emakume bat zaintzeko. Aramaioko baserri baten, emakume bat zaintzeko zaintzailea behar da. Barne langile bezala lan egiteko. Legezko agiriak eta soziosanitario titulazioa beharrezkoak dira. 653 70 83 56

Lan eskaintza. Etxea garbitzeko pertsona behar da. Asteazken zehar goizean lan egiteko. Interesatuok honako telefono zenbakira deitu. Eskerrik asko. 636 00 21 87

Ordenagailuz idatzi. Liburu bat eskuz idatzi dut eta ordenagailuz idatziko didan norbaiten bila nabil, Bergaran. Deitu 688 66 38 54 telefonora.

402. ESKAERAK

Aretxabaleta edo inguruak. Mutila adinekoak zaintzeko eskaintzen da, orduka. 642 98 98 06

Arrasate edo Aretxabaleta. Neska gertu arratsaldean nagusiak zaindu edota etxeko lanak egiteko. 688 81 08 63

Arrasate. 10:00etatik 14:00etara bitartean nagusiak edota gaixoak zainduko nituzke. Baita orduka ere. Esperientzia dut eta titulazioak. Telefonoa: 631 03 23 45

Arrasate. Etxeko lanak egiteko gertu nago: garbiketak eta zaintza. Telefonoa: 632 39 87 73

Arrasate. Garbiketak egiten jarduteko gertu nago, 13:00-16:00 eta 19:00-21:00ak artean. Baita pertsonen zaintzarako, sukaldean aritzeko, arropa lizatzeko eta abarretarako. Soziosanitario titulua daukat. Telefonoa: 602 32 06 58

Arrasate. Neska gertu egunean zehar nagusiak eta umeak zaintzeko, sukaldean edota garbiketarako jarduteko. Telefonoa: 610 99 70 46

Arrasate. Umeak zaintzeko prest nago. Telefonoa: 688 76 12 18

Bergara eta inguruak. Bergarako neska euskalduna, Haur Hezkuntzako goi mailako zikloarekin eta Haur Hezkuntzako gradua egiten, haurrak zaindu edota etxeko lanetan laguntza emateko gertu. Haurrak zaintzen esperientzia daukat. Astelehen, asteazken eta ostiralak 14:00tik aurrera. Asteartetan eta ostegunetan 14:00-17:00ak arte. Aste bukaeretan eta jai egunetan ere prest. 634 85 42 11 (Andrea)

Bergara. Garbiketara lanean aritzeko prest nago: etxeak, bulegoak eta abar. Baita pertsona nagusiak edota umeak zaintzeko ere. 610 34 97 88

Bergara. Soziosanitario titulua daukat eta arratsaldean edota asteburutan lan egingo nuke pertsona nagusiak zaintzen. Telefonoa: 656 74 78 43

Debagoiena. Arratsaldetan, asteburuetan edo jai egunetan lan egingo nuke. Nagusiak zein haurrak zaintzeko edota garbiketarako. Autoarekin. 631 98 15 50

Debagoiena. Atari, elkar-te, lantegi eta abarrak garbitzen lan egingo nuke. 645 72 92 87

Debagoiena. Beharrezko agiriak dituen emakumezkoa, orduka, astean zehar, eta asteburutan lan egiteko prest, pertsona nagusiak zein haurrak zaintzeko edota garbiketara lanak egiteko. 643 59 7 6 06 (Consuelo)

Debagoiena. Esperientzia duen mutila nagusiak zaintzeko, garbiketak egiteko edota zerbitzari izateko gertu. Orduka eta etxean bertan bizi izaten. 638 85 43 36

Debagoiena. Esperientzia duen neska nagusiak zaintzeko, garbiketak egiteko edota zerbitzari izateko gertu. Orduka eta etxean bertan bizi izaten. 654 11 15 14

Debagoiena. Garbiketara eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke, baita aste-

buruetan ere. Telefonoa: 634 02 11 87

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Etxean bertan bizi izaten edo orduka. Soziosanitario titulua daukat. Telefonoa: 643 73 62 36

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen eta garbiketarako egiten esperientzia dut. Etxean bertan bizi izaten edo egunean zehar lan egingo nuke. Gomendio gutunak aurkeztu ditzaket. 634 85 66 51

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke. Telefonoa: 656 77 13 14 (Saul)

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketarako gertu nago. Telefonoa: 612 27 82 34

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, bulegoak garbitzen, eraikuntzan edota jostuntzan lan egingo nuke. 688 66 84 39

Debagoiena. Neska arduratsua gertu umeak eta legezko agiriak dituen, gertu orduka zein asteburuetan

lan egiteko. Pertsona nagusiak zaintzeko zein garbiketara lanak egiteko. 666 07 42 98 (Claudia)

Debagoiena. Neska arduratsua, sukaldean eta zaintzan esperientzia duena, etxean bertan bizi izaten, orduka zein asteburuetan lan egiteko gertu. Soziosanitario titularekin. 631 93 23 22

Debagoiena. Neska arduratsua, sukaldean eta zaintzan esperientzia duena, etxean bertan bizi izaten, orduka zein asteburuetan lan egiteko gertu. Soziosanitario titularekin. 631 67 96 77

Debagoiena. Orduka, garbiketara lanetan edo ume eta pertsona nagusien zaintzan lan egin nahi dut. Deitu 617 86 30 82 telefono zenbakira.

Debagoiena. Pertsona arduratsua gertu umeak eta nagusiak zaintzeko, zerbitzari lanetarako edota garbiketarako egiteko. Autoa daukat. Deitu 648 92 02 49 zenbakira.

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen eta garbiketara lanetan esperientzia handia duen emakumea naiz. Lan egiteko prest nago. Telefonoa: 637 79 31 92

6. MOTORRA

602. EROSI

Land Rover bila nabil. Land Rover Defenderra behar dut baserrirako. Berdin dio zein egoeratan dagoen: IAT gabe, maburata, kolpearekin. Telefonoa: 623 17 95 37

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Arrasate. Hiru hilabete dituen katakumea ematen da opari. 642 72 69 10

8. DENETARIK

802. EROSI

Bizikleta estatikoa. Bigarren eskuko bizikleta estatikoa erostea nahiko nuke. Nekane. 659 02 90 66 edo 699 74 66 14

OROIGARRIA

Izaskun Irure Espin

Ion Arizabaleta lankidearen emaztea
2020ko abenduaren 23an hil zen.



Bat egiten dugu senideen saminarekin.



Aretxabaletan, 2021eko urtarillaren 8an.

Eskela gehiago 44. orrialdean.

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

DRAGOIKO TXAPELDUNAK EZAGUTZEN

'Harmailatik' Astelehena, 21:30 eta 23:30



GOIENA

LEIRE BILBAO IDAZLEARI ELKARRIZKETA

'Elkarrizkettap' Eguaztena, 21:30 eta 23:30

EGUNERO

EGUNERO ALBISTE NABARMENENAK

'Albistegia'

15:00/16:00/17:00

EGUNERO

ELKARRIZKETA ETA ERREPORTAJEAK

'Hemen Debagoiena'

18:00/20:00/22:00



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: goiena.eus/telebista
Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

EGUNERO



GOIENA

ADINDUENDAKO KIROL ARIKETAK

'Adinberri'

17:30

MARTITZENA, 12

GALDE-ERANTZUNEN SAIO BERRIA

'Zirikatzen'

21:30/23:30

LORAMENDI EUSKARA ELKARTEAK TEKNIKARIA BEHAR DU:

ESKAINTZEN DA:

- Aretxabaletako euskararen, kulturalaren eta aisiaren gaineko proiektuak dinamizatzea.
- Asteazken 20 orduko lan jarduna.
- Urtarrila amaieran hasiteko.

ESKATZEN DA:

- Euskaltzalea izatea.
- Ekintzailea eta proaktiboa izatea.
- Dinamizazio eta ikusarazketarako gaitasuna.

BALORATUKO DA:

- Aretxabaletarra izatea.
- Euskalgintzan esperientzia izatea.
- Oinarriko IKT ezagutzak izatea.

Interesatuak bidali curriculum vitae urtarillaren 15a baino lehen euskara@loramendi.elkartea.eus helbidera



loramendi

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sar daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ZORION AGURRAK



BERGARA
June Gabilondo
Kapelastegi
Urtarrilaren 13an, 8 urte. Zorionak, June! Topera disfrutatu zure urtebetetzea. Asko maite zaitugu. Aitaxoren, amaxoren eta Naiaren partetik.



OÑATI
Amets Azpiazu
Urtzelai
Urtarrilaren 9an, 4 urte. Zorionak etxeko txikiari. Egun ona pasatu, etxeko denon partetik.



ARRASATE
Ane Rueda Calleja
Urtarrilaren 8an, 8 urte. Zorionak, bihotza! Mila esker maitasun eta alaitasunez betetako zortzi urte hauengatik! Mila muxu, etxeko guztion partetik! Izugarri maite zaitugu!




BERGARA
Malen Medina Castro
Urtarrilaren 7an, 10 urte. Zorionak, Malentxi! Ondo ospatu eguna.



OÑATI
June Hernandez
Urtarrilaren 6an, 10 urte. Zorionak, maitia! Goxatu zure eguna familiarekin! Muxu handi bat! Maite zaitugu!



BERGARA
Haizea Medina Castro
Urtarrilaren 6an, 4 urte. Zorionak, printzesa ! Ondo pasatu eguna.




BERGARA
Eneko Miranda
Arabaolaza
Urtarrilaren 6an, 11 urte. Zorionak, mutikote! Muxu handi bat eta ondo pasatu eguna, familia osoaren partetik.




BERGARA
Oihan Zubiaga
Ilarduia
Urtarrilaren 5ean, 13 urte. Zorionak, mutikote! Muxu potolo bana etxekuon partetik.



ARETXABALETA
Lia Anduaga Cortes
Urtarrilaren 5ean, 2 urte. Zorionak, sorgintxo! Bi urtetxo jada! Patxo potolo-potolo bat etxeko danon eta, bereziki, Axelen partetik.



ARETXABALETA
Aimar Zubiria Muñoa
Urtarrilaren 5ean, 10 urte. Zorionak, Aimartxi! 10 urte gurekin! Besarkada goxo bat, familiakoen partetik!



OÑATI
Oihana eta Oxel
Uribarren
Walerjanczyk
Oxelek 4 urte, urtarrilaren 5ean eta Oihanak 10 urte, otsailaren 16an. Zorionak familia osoaren partetik!




ARRASATE
Garazi Nin Ugalde
Urtarrilaren 5ean, 9 urte. Zorionak eta urte askotarako, Garazi! Oin arte moduen loratzen jarraitu deizun. Besarkada handi bat. Maite zaitugu!



OÑATI
Nahikari eta Julene
Garay Guruceta
Urtarrilaren 4an, urtebete. Zorionak, bikote. Jarraitu hazten eta zarein moduan izaten. Muxu handi bana, gurasoen eta familixakoen partetik.



ESKORITAZA
Aiza Martin Brea
Urtarrilaren 3an, 7 urte. Zorionak, maitia! Oso ondo pasatu zure eguna. Muxu handi bat, familia osoaren partetik.



ARRASATE
Mara Cubero
Urtarrilaren 3an, 3 urte. Zorionak, Mara! Hiru urte jada! Primeran ospatuko degu! Muxu!



BERGARA
Javier Gonzalez
Urtarrilaren 2an, 36 urte. Zorionak, Javi! Oso ondo pasatu eguna! 'Desterrados'-en partetik.



ARETXABALETA
Aratz Jausoro
Zubizarreta
Urtarrilaren 2an, 4 urte. Zorionak, Aratz! Ondo-ondo pasatu zure egunean. Patxo handi bat, etxeko indartsuenarentzat.



OÑATI
Gorka Lopez de Okariz
Trepiana
Urtarrilaren 1ean, 37 urte. Zorionak, aittabo! Ze ondo ospatuko dugun denok bater. Muxu handi bat! Maite zaitugu.



OÑATI
Maddi Dorado
Hernandez
Urtarrilaren 1ean, 5 urte. Zorionak, printzesa! Egun polita euki eta jarraitu gure bizitza alaitzen. Asko maite zaitugu. Muxu pila bat.



ARRASATE
Andoni Guerrero
Lopez
Urtarrilaren 1ean, 18 urte. Zorionak, Andoni! Oso ondo pasatu zure eguna. Besarkada handi bat 'Distrito 33'-ko bizilagunen partetik.



ARRASATE
Janire Guerrero
Lopez
Urtarrilaren 1ean, 14 urte. Zorionak, Janire! Ospatu zure eguna topera! Muxu asko, 'Distrito 33'-ko bizilagunen partetik.



ARRASATE
Enara Balantzategi
Eiro
Abenduaren 30ean, 7 urte. Zorionak, Enara! Oso ondo pasatu zeure egunean eta ederto ospatu. Familia osoaren partetik, muxu handi bat.



ARRASATE
Elene Zubizarreta
Gorosabel
Abenduaren 30ean, 4 urte. Zorionak, maitia! Egun polita euki eta jarraitu gure bizitza alaitzen. Asko maibxe zaitxugu. Muxu zaparrada bat!



BERGARA
Iratxe Osa Zabala
Abenduaren 29an, 8 urte. Zorionak, Iratxe!! Amabxo-aitaxoren, Oierren, aiton-amonen eta osabaren partetik. Maitxe zaitxugu!



OÑATI
Irati Letona Zumalde
Abenduaren 29an, 10 urte. Zorionak, Irati, zure urtebetetzian familixa danaren partetik. Ondo pasatu eguna eta disfrutatu.



ARRASATE
Jose Mari Oyanguen
Urranga
Abenduaren 28an, 68 urte. Zorionak, aitxaitxa! Muxu handi bat familia osoaren eta, batez ere, Izarren, Unaxen eta lontxuren partetik.



ARRASATE
Mikel Tena Morales
Abenduaren 25ean, 41 urte. Zorionak, Mike! Oso ondo pasatu zure egunean. Besarkada handi bat, 'Distrito 33'-ko bizilagunen partetik.

TXUTXU-MUTXUAK



1. Itsaski-jana, sari gisa
Amaia Vicentek eta Iñaki Olañetak irabazi dute Gure Artera Sarek presoen eta euren eskubideen alde egindako zozketako saria, 4.247 zenbakiarekin.

2. Politena, Belar Metakoa
Aretxabaletako erakusleiho politenaren sari bikoitza jaso du: epaimahaiak emandakoa eta herritarrena. 450 euro jasoko ditu, eta zati bat Gurutze Gorriara bideratuko du.

3. Gabonetako abesti dibertigarriak
Arrasateko umeek musikarekin eta dantzarekin gozatu zuten *Kia's show band* ikuskizunarekin. Ingelese abesteko aukera izan zuten.

4. Erraldoiekin dantzan
Iñigo, Katalina, Maurizio eta Andre Ederra erraldoiak dantzan ipini zituen Oñatiko Oñatz dantza taldeak herritarren aurrean. Potx eta Lotx pailazoan laguntza izan zuten.



OÑATI
Eñaut Zubizarreta
Iñarra
Abenduaren 24an, 7 urte. Zorionak, Eñaut! Allau da eguna! Ondo-ondo zure eguna! Patxo potolo bat, familixa danaren partetik!



ARRASATE
Itxaso Reyes
Ansoregui
Abenduaren 22an, 9 urte. Zorionak, Itxaso! Muxu asko 'Distrito 33'-ko bizilagunen partetik. Bereziki zure aiton-amonak, Enrique eta Mari.

Urte askotarako!

- Zoriontzeko, hiru bide dituzu:

Internet
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.
- Posta elektronikoa**
Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak
Etor zaitze Goienaren ordezkaritza batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

ESKER ONA



Bernardina Zubillaga Leunda
Daniel Iparragirrenen alarguna



2020ko abenduaren 29an hil zen, 101 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Antzuolan, 2021eko urtarrilaren 8an.

ESKER ONA



Carlos Cotillas Gil



2020ko abenduaren 21ean hil zen, 55 urte zituela.

Haren emaztea: Maite Solaun. Seme-alabak: Nahia eta Jon.
—
Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez, besarkada handi bana, familiaren izenean

Antzuolan, 2021eko urtarrilaren 8an.

ESKER ONA



Antonio Bouzas Prol



2020ko abenduaren 24an hil zen, 70 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2021eko urtarrilaren 8an.

ESKER ONA

Nieves Olalde Arrieta
Ramon Ambroy Aranzabalen alarguna



2021eko urtarrilaren 3an hil zen.

Seme-alaba Ramonen eta Leireren, ahizpa Estherren eta gainontzeko familia osoaren partetik, eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana.

Bergaran, 2021eko urtarrilaren 8an.

ESKER ONA

Jose Agustin Aranzabal Ascasibar
'Gaztelu'



2020ko abenduaren 30ean hil zen, 74 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bat familiaren izenean.

Bergaran, 2021eko urtarrilaren 8an.

ESKER ONA

Asuncion Aizpurua Odriozola
Mateo Arrueren alarguna



2020ko abenduaren 29an hil zen, 91 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez, besarkada handi bana, etxeko izenean.

Bergaran, 2021eko urtarrilaren 8an.

ESKER ONA



Jose Arregui Iñurritegui



2020ko abenduaren 22an hil zen, 90 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2021eko urtarrilaren 8an.

ESKER ONA

Maria Dolores Legazpia Cortazar



2020ko abenduaren 30ean hil zen, 81 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2021eko urtarrilaren 8an.

ESKER ONA

Izaskun Irure Espin
1962-12-13 / 2020-12-23



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi.

Etxekoak

Espiritua errebeldea, bihotza eskuzabala, familiako ardatza zinen ahizpa, arreba ta ama. Zure alboan bizitakoak altxor hoberik ezjala, Gabon bezperan utzi gailltuzu izar uxoak bezala, Izaskun, ezerk ez du betekoa zure hutsune zabala.

Aretxabaletan, 2021eko urtarrilaren 8an.

ESKER ONA



Natalia Olazabal Larreategi
Raimundo Etxebarriaren alarguna



2021eko urtarrilaren 2an hil zen, 98 urte zituela.

Haren seme-alabek: Iñaki eta Laura Rubio; bilobek: Leire eta Eneko, Ane eta Unai; birlobak: Noa; anai-arrebek: Ignacio (†), Resti (†), Carmen (†), Tere (†) eta Xeli; ezkon anai-arrebek, ilobek, lehengusu-lehengusinek eta gainerako ahaideek; eskerrak ematen dizkizuegu hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi.
Debagoieneko Ospitaleko langileei ere eskerrak, gure senideari eskainitako arreta eta maitasunagatik.

Arrasaten, 2021eko urtarrilaren 8an.

ESKER ONA

Nieves Otxoa-Aizpurua Uribe-Etxebarria
Francisco Viteriren alarguna



2021eko urtarrilaren 6an hil zen, 82 urte zituela.

Beti gure bihotzean eramango zaitugu gure bizitzako eredu izan zarelako.
Zure familia.
Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Eskoriatzan (Marin), 2021eko urtarrilaren 8an.

ESKER ONA



Joseba Gabilondo Gorosarri



2020ko abenduaren 27an hil zen, 72 urte zituela.

Eskerrik asko elkarrekin egindako ibilaldi honetan bizitako guztiagatik.
—
Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada bana familiaren izenean.

Eskoriatzan, 2021eko urtarrilaren 8an.

URTEURRENA



Felisa Iturricastillo Askasibar

Angel Lazpiurren alarguna



2020ko urtarrilaren 29an hil zen, 95 urte zituela.

Urteurreneko meza urtarrilaren 10ean izango da, domekan, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

—

Zure hutsuneak erakusten du maitasunaren tamaina.

Ulertzea hain zaila da baina bizirik segiko duzu gure bihotzean.

Zure familia.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2021eko urtarrilaren 8an.

URTEURRENA



Juan Jose Gurrutxaga Luarizaristi



2020ko urtarrilaren 30ean hil zen, 74 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 10ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

—

Urtebete pasa arren, beti gure bihotzean egongo zara.

Zure familia.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2021eko urtarrilaren 8an.

URTEURRENA

Jose Mari Igartua Agirrebengoa



2020ko urtarrilaren 9an hil zen, 64 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, urtarrilaren 9an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2021eko urtarrilaren 8an.

OROIGARRIA

Asuncion Aizpurua Odriozola



2020ko abenduaren 29an hil zen, 91 urte zituela.

Eskerrik asko denagatik, amama. Ez zaitugu ahaztuko. Agur eta muxu handi bat.

Zure bilobak: Markel eta Miren, Patri, Amaia eta Sindo, Andoni eta Leire. Bergaran, 2021eko urtarrilaren 8an.

OROIGARRIA

Antxone Etxabe Fernandez de Arroiabe



2020ko abenduaren 30ean hil zen, 84 urte zituela.

Amama Antxone maitia asko botako zaitugu faltan.

Gure pasuak arboledan, zure irribarrea eta oparitzen zenizkigun txutxeak. A ze plan bikaina. Betirako gure bihotzetan egongo zara.

Laister arte, amama.



Maren eta Julen. Bergaran, 2021eko urtarrilaren 8an.

URTEURRENA

Angel Aiastui Elorza

'Farretxe'



2020ko urtarrilaren 3an hil zen, 86 urte zituela.

Bere oroimenezko urteurreneko meza zapatuan izango da, urtarrilak 9, 19:00etan, Oñatiko Mikel Deunaren parrokian.

—

Zure irribarreak eta zure begietako distirak gudan bizirik diraute. Zure alaitasunak eta hainbat jolasaldiren oroimenak gure bihotzak poztzen diraute. Zure maitasuna betirako gure gidari.

Esker on bertaratuko zareten guztioi. Oñatin, 2021eko urtarrilaren 8an.

OROIGARRIA

Izaskun Irure Espin



2020ko abenduaren 23an hil zen.

Beti izango zara gutariko bat.

Kurtzebarri 77ko kideak. Aretxabaletan, 2021eko urtarrilaren 8an.

OROIGARRIA

Mari Paz Iñurrategi Iriarte



2021eko urtarrilaren 4an hil zen, 76 urte zituela.

Oin arte geuz, aurrerantzien geugan.

Zure lobek. Gasteizen, 2021eko urtarrilaren 8an.

OROIGARRIA

Axun Iñurrategui Zubia



2021eko urtarrilaren 5ean hil zen, Azkoitian, 84 urte zituela.

Beti izango zaitugu gogoan.

Anai-arrebak: Lurdes eta Manolo (†), Fernando eta Esther (†); ilobak: Agurtzane, Nekane, Betirtze eta Iñaki, Danel eta Izaskun.

Oñatin, 2021eko urtarrilaren 8an.

OROIGARRIA

Marisa Etxebarria Ugarte



2020ko abenduaren 30ean hil zen, 71 urte zituela.

Latza izan da ezustekoa Urte zaharrak dakarrena, itzali egin da argi goxoa negu hotzean barrena. Maite zenuen guztien alde eman zenuen den-dena, zure irudiak islatzen digu maitasunik goxoena. Hori izango da gudan piztuko diguzun oroitzapena.

Zure lagunak. Arrasaten, 2021eko urtarrilaren 8an.

OROIGARRIA

Roman Lopez Rubio



2020ko urtarrilaren 9an hil zen, 84 urte zituela.

Urtebete zu gabe, zure alaitasuna, txiste eta abestiak gogoratuz, gure ondoan zaudela sentitzen dugu. Gure bihotzean eramango zaitugu betiko ta elkartuko gara berriro, gure betiko lekuetan...

Zure familia. Arrasaten, 2021eko urtarrilaren 8an.

Oroilore

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak gudan izan duzuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Ion, Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA

Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37



Eskela gehiago 42. orrialdean.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 8

OÑATI Odol ateratzea

Urteko lehena. Aurrez hartu behar da txanda: Donostiatik mezua jasotzen dutenek ze ordutan joango diren abisatu behar dute; eta lehen aldiz doazenek deitu egin behar dute. 943-00 78 84 da telefonoa. *Enpresagintzan, 16:30etan.*

BERGARA Tailla erakusketa

Taillagintzan diharduten herriko artisten lanak ikusgai egongo dira, gaurtik hilaren 17ra arte. *Aroztegin, 18:00etan.*

ANTZUOLA Elkarretaratzea

"Salbuespenezko espetze politikaren amaiera" eskatzeko ekitaldia, Izan Bidea ekimenaren baitan. *Zurrategin, 19:00etan.*

OÑATI Poesia liburu baten aurkezpena, eta errezitaldia

Suak pizten direnean liburuan eskuetan egingo du errezitaldia Mikel Soto egileak. Ekitaldian egongo dira Irati Jimenez eta Harkaitz Cano. Debalde. *Gaztetxean, 20:00etan.*

ZAPATUA 9

ARAMAIO 'Drag king' tailerra

Gorbeialdeko Kuadrillako Berdintasun Sailaren eskutik. Genero binarismotik irteteko esperientzia eskainiko du. Izenak: *berdintasuna@gorbeialdea.eus. Udaletxean, 10:00etan.*

ANTZUOLA Eztalako aldagela berrien inaugurazioa

Ekitaldian egongo dira Beñardo Kortabarria alkatea eta Udal Gobernuko ordezkariak, AKEko presidente Ibon Gezalaga eta Diputazioko Kirol zuzendari Goizane Alvarez, besteak beste. *Futbol zelaian, 12:30etan.*

ANTZUOLA Manifestazioa

"Salbuespenezko espetze politikaren amaiera" eskatzeko ekitaldia, Izan Bidea ekimenaren baitan. Ostean, ekitalditxoa. *Herriko Plazan, 17:30etan.*



TOUNDRA

ARRASATE Toundra taldea

El gabinete del doctor Caligari emanaldia egingo du talde madrildarrak, 1920an Robert Wienek zuzendutako izen bereko pelikula oinarri hartuta. Filmaren irudiak erakutsiko dituzte emanaldian. Sarrerak, hamabost euro. *Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 19:00etan.*

ARETXABALETA Mosaiko argitsua

Aretxabaletako Sarek deituta, presoen aldeko aldarria zabaltzeko asmoarekin elkartuko dira. *Herriko Plazan, 17:30etan.*

OÑATI Manifestazioa

Oñatiko Sarek deituta, presoen aldeko aldarria zabaltzeko asmoarekin elkartuko dira. *Eltzian, 17:30etan.*

ARRASATE Manifestazioa eta mosaikoa

"Salbuespenezko espetze politikaren amaiera" eskatzeko ekitaldia. Bukaeran, *564 ohe huts* abestia. *Eltzian, 17:30etan.*

BERGARA Manifestazioa

Bergarako Sarek deituta, presoen aldeko aldarria zabaltzeko. Ostean, Brigade Loco taldearen kontzertua. *San Martin plazan, 17:30etan.*

ELGETA Elkarretaratze girotua

Presoen aldeko aldarria zabaltzeko ekitaldia. *Mendizaleen plazan, 17:30etan.*

ESKORIATZA Elkarretaratze

Presoen aldeko aldarria zabaltzeko ekitaldia, ekitaldia. *Fernando Eskoriatza plazan, 17:30etan.*

BERGARA 'Erik eta Win' ikuskizuna

Bertsolaritza eta musika bateratzen dituen ikuskizuna. Buame taldeko

Ander Lizarralde eta Unai Muñoa oholtzan. Sarrerak, zortzi eurotan. *Seminarixoa.eus* atarian. *Seminarixoan, 19:00etan.*

ARRASATE Toundra taldea

El gabinete del doctor Caligari emanaldia egingo du talde madrildarrak. Sarrerak, hamabost euro. *Amaia antzokian, 19:00etan.*

DOMEKA 10

BERGARA 'Heriotzarako erromatar ohiturak Soriako Tierras Altas eskualdean' erakusketa

Burdin Aroan hilarrietan egiten ziren inskripzioak interpretatzen ikasteko bilduma, hilaren 24ra arte. *Laboratoriumen, 11:00etan.*

BERGARA 'IKASen kanpaina eta borrokaren aurkezpena' hitzaldia

Zubitxako Eskolako egitarauaren baitan. Hitzaldietan, euskaratik gaztelaniarako itzulpena egingo da. *Zubitxako eskolan, 17:00etan*

ARRASATE 'Familian jolasean'

0-8 urte arteko haurrendako eta euren familiendako txokoa, aisialdiaz eta jolasaz gozatzeko. *Okendoko ludotekan, 17:00etan.*

OÑATI 'Go!azen' kontzertua -sarrerak, agortuta-

Basakabiko udalekuetan diharduten gaztetxoek saioa, kantuan eta



'ARGIA'

OÑATI Poesia liburu baten aurkezpena, eta errezitaldia

Suak pizten direnean liburuan eskutan egingo du errezitaldia Mikel Soto egileak. Ekitaldian egongo dira Irati Jimenez eta Harkaitz Cano. Debalde. *Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 20:00etan.*

dantzan egiteko. Emanaldi bikoitza: 17:00etan eta 19:00etan. *Santa Ana antzokian.*

ARETXABALETA 'El chef' antzezlan

Gorka Minguez aktorearekin. Zaporeak, aromak eta testurak frustrazioarekin, oroitzapenekin eta inoiz bete ez diren itxaropenekin nahastuko ditu oholtza gainean. Sarrerak, lau euro. *Arkupen, 19:00etan.*

ASTELEHENA 11

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. Hiru urte daramate euren eskubideak aldarrikatzen. *Foruen plazan, 12:00etan.*

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. Hiru urte daramate euren eskubideak aldarrikatzen. *Herriko Plazan, 12:00etan.*

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. Hiru urte daramate euren eskubideak aldarrikatzen. *Herriko Plazan, 12:00etan.*

OÑATI Idazketa lantegia

Joxe Mari Iturralde gidatuta, saio bikoitza egingo dute. *Liburutegian, 17:00etan.*

OÑATI 'Konkistaren mugarriak' erakusketa

Euskaldunon historiako pasarte esanguratsuenak biltzen dituen bilduma ikusgai, hilaren 25era arte. Gaur, bisita gidatua egingo du Beñi Agirrek, 18:30ean. *Kultura etxean, 18:00etan.*

OÑATI 'Gure burua ezagutzea eta ahalduztzea argazkilaritzaren bidez' ikastaroa: izen-ematea

Gaur bukatzen da Jabetze Eskolaren baitako ikastaroan izena emateko epea. *Bidebarrietako bulegoan.*

MARTITZENA 12

BERGARA 'Trantsizio eko-sozialaren urgentzia' hitzaldia

EHUko irakasle Joseba Azkarragak eta D2030 egitasmoa kideek egingo dute berba. Ostean, D2030 egitasmoa aurkeztuko dute. *Seminarixoan, 18:00etan.*

OÑATI Psikologia irakurle taldea

David Foekinosen *Estoy mucho mejor* liburuaren gaineko saioa egingo dute, Silvina Fondrak gidatuta. *Liburutegian, 18:30etan.*

ARRASATE 'Mendian hil, hirian hil' dokumentala

Doluar buruz, Iñaki Peñak zuzendutako lana. Ostean, zuzendariarekin solasaldia. *Amaia antzokian, 19:00etan.*

OÑATI 'Burujabetze bilakaera, Bidasoaren bi aldeetan' hitzaldia

Asisko Urmenetaren hitzaldia, Nabarraldek gonbidatuta. *Kultura etxean, 19:00etan.*

EGUAZTENA 13

ARETXABALET 'Nire akuarelak' erakusketa

Rakel Perez de Arenazaren lanak ikusgai, hilaren 31ra arte. *Arkupen, 11:00etan.*

BERGARA 'Orquesta Sinfónica. Grandes batutas' hitzaldia

Zarauzko Musika Eskolako zuzendari Marina Lertxundik egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta. *Seminarixoan, 10:00etan.*

ARRASATE Sasoibide ibilaldia, mendira

Irten aurretik erabakiko dute nora joango diren. *Biteri plazan, 15:00etan.*

BERGARA Odol ateratzea

Urteko lehen deialdia. *Oxirondon, 16:30ean.*

BERGARA 'Martin Eden' pelikula

Pietro Marcelloren pelikula, zineklubean. Sarrerak, hiru euro. *Seminarixoan, 18:30ean.*

BERGARA Eguaztenetako azoka

Herriko baserritarren garaiko produktuak erosteko aukera. *Oxirondon, 18:30ean.*

OÑATI 'Hamar gai, hamaika berba' hitzaldia

Ekai Txapartegik, Iraia Oiarzabalek eta Ugo Mayorrek egingo dute berba, EH Bilduk gonbidatuta. *Santa Ana antzokian, 18:30ean.*

EGUENA 14

ARRASATE Sasoibide irteera

Olandixorainoko joan-etorria *Biteri plazan, 10:00etan.*

ARRASATE English Conversation Group

Jay Mannen gidaritzapean egingo dute ingelesezko mintzapraktika.

Urtarriletik maiatzera, eguenetan elkartzen dira, hamabostean behin. *Kulturaten, 19:15ean.*

EGUBAKOITZA 15

BERGARA 'Pobrezia eta askatasun eza pandemia garaian' hitzaldia

Zubitxako Eskolako egitarauaren baitan. Hitzaldietan euskaratik gaztelaniarako itzulpena egingo da. *Zubitxako eskolan, 17:00etan.*

BERGARA 'Bertakoa iratzartzen' dokumentala

Gonbidapenak leihatilan edo *seminarixoa.eus* atarian jaso behar dira, aurretik. *Seminarixoan, 18:00etan.*

ARETXABALETA 'Trabajos de interior' antzezlan

Behibi's Teatro taldearen eskutik. Alferkeria existentzialean bizi den emakume nihilista bat lanean hasiko da, plastikoekin instalazioak egiten. Sarrerak, lau euro. *Arkupen, 19:00etan.*

ZAPATUA 16

ARRASATE Ipuin kontaketa tailerra Saroa Bikandirekin

0-7 urte arteko seme-alabak dituzten gurasoendako, eta hezitzaileendako. Izen-ematea, hemen, urtarrilaren 12ra arte. Leku mugatuak daude eta zozketa bidez banatuko dira. *Bibliotekan, 10:00etan.*

ANTZUOLA Bertso saioa

Beñat Gaztelumendi, Unai Agirre, Uxue Alberdi eta Alaia Martin bertsotan. Sarrerak aurrez erosi behar dira, Interneten edo liburutegian, hamar eurotan. *Torresoroan, 18:00etan.*

BERGARA 'Sutan dantzan' ikuskizuna

Julen Alonso trikitilariaren azken proiektua. Oholtzan egongo dira, baita ere, Oinkari dantza taldea, eta Eneritz Aulestia, Iker Telleria, Ander Ederra eta Joanes Ederra musikariak. Sarrerak, zortzi euro. *Seminarixoan, 19:00etan.*

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

El inconveniente
Domeka eta astelehena: 19:00.

Rocca cambia el mundo
Domeka: 16:00.

BERGARA

SEMINARIXOA

Nieva en Benidorm
Egubakoitza, domeka eta astelehena: 18:30.

Rocca cambia el mundo
Domeka: 16:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Beginning
Egubakoitzetik astelehenera: 19:00.

Mi amigo pony
Zapatua eta domeka: 16:30.

EIBAR

COLISEO

Perfumes
Zapatua eta domeka: 16:00, 19:00.

Astelehena: 19:00.

Deseando amar
Zapatua eta domeka: 16:00, 19:00.
Astelehena: 19:00.

ANTZOKIA

Mi amigo pony
Zapatua eta domeka: 16:00.

La ultima gran estafa
Zapatua, domeka eta astelehena: 19:00.

GASTEIZ

BOULEVARD

El pequeño vampiro

Zapatua eta domeka: 16:15.
Egunero: 18:15.
Egunero, martitzena izan ezik: 17:00.
Egubakoitza, zapatua eta martitzena: 19:00.

Aladdin
Egubakoitza: 16:00.

Toy Story
Zapatua: 16:00.

Los increíbles
Domeka: 16:00.

Wonder woman
Egunero: 17:10, 18:10.

Los Croods: una nueva era

Egunero, eguena izan ezik: 18:40.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 16:00, 18:00.

Egunero: 17:00.
Egubakoitza eta zapatua: 19:00.

En guerra con mi abuelo
Zapatua eta domeka: 16:00.
Egunero: 18:45.

Hasta el cielo
Zapatua eta domeka: 16:00.
Egunero: 18:30.

La ultima gran estafa
Zapatua eta domeka: 16:35.
Egunero: 18:50.

El verano que vivimos
Egubakoitzetik domekara: 16:30.

Astelehenetik eguenera: 18:30.

Saint Maud
Egubakoitzetik domekara: 19:00.

Mi amigo pony
Zapatua eta domeka: 16:30.

GORBEIA

Trolls 2

Egubakoitza eta zapatua: 17:10.
Domeka: 12:00, 17:10.

Las brujas de Roal Dahl
Egubakoitza eta zapatua: 17:15.
Domeka: 12:00, 17:15.

Astelehenetik eguenera: 17:00.

El jinete del dragon
Domeka: 12:00.

En guerra con mi abuelo
Egubakoitza eta zapatua: 17:20, 19:20.

Domeka: 12:00, 17:20, 19:20.
Astelehenetik eguenera: 17:10, 19:20.

El verano que vivimos
Egubakoitzetik domekara: 19:00.

Astelehenetik eguenera: 17:00.

Hasta el cielo
Egubakoitzetik domekara: 16:55, 19:00.

Astelehenetik eguenera: 17:00.

eguenera: 19:00.

Los croods: una nueva era
Egunero, domeka izan ezik: 17:05, 19:20.

Domeka: 12:00, 17:05, 19:20.

Saint Maud
Egunero: 19:30.

Mi amigo pony
Egunero, domeka izan ezik: 17:20.
Domeka: 12:00, 17:20.

El inconveniente
Egubakoitzetik domekara: 19:25.

Astelehenetik eguenera: 19:15.

La ultima gran estafa
Egubakoitza eta zapatua: 17:05, 19:10.

Domeka: 12:00, 17:05, 19:10.

Astelehenetik eguenera: 19:10.

Salvaje
Egunero: 17:30, 19:25.

Las mil y una
Egubakoitzetik domekara: 16:40, 19:00.

Astelehenetik eguenera: 17:00.

El pequeño vampiro

Egubakoitzetik domekara: 16:40.

Wonder woman
Egubakoitza eta zapatua: 18:25.

Domeka: 11:30, 18:25.

Astelehenetik eguenera: 18:20.

Ilargi guztiak
Domeka: 12:00.

La primera Navidad
Domeka: 12:00.

FLORIDA

Trolls 2

Zapatua eta domeka: 12:00.

El jinete del dragon
Zapatua eta domeka: 12:00.

En guerra con mi abuelo
Zapatua eta domeka: 12:00.

Las cronicas de Fabulandia
Zapatua eta domeka: 12:00.

El padre
Egubakoitzetik eguenera: 17:15, 19:15.

KRITIKA

In the mood for love ★★★★★

Zuz.: Wong Kar-Wai. **Herr.:** Hong-Kong (2000). **Aktoreak:** Tony Leung Chiu-Wai, Maggie Cheung.

Isilpeko maitasuna

ANTONIO ZABALA

2000. urteko Cannesko Zinemaldian parte hartu zuen *In the mood for love* filmak. Zinemaldiko sari nagusia lortu ez bazuen ere, han lortu zuen arrakasta izugarria izan zen. 20 urte pasa ondoren, berriz aukera daukagu filma ikusteko, eta, benetan egiaztatzeko, bere edertasuna mantentzen dela. Won Kar-Wai zuzendariak kontatzen duen istorioak ukitu iheskorra du. Filma hipnotikoa da, eta ametsen eta oroimenen kutsua dauka. Estetikoki film liluragarria da. Ikuslea inguratuta sentitzen da, zuzendariak sortzen duen atmosfera bereziarekin. Irudien koloreak, musika zoragarriak eta erritmo geldoko irudien erabilerak sortzen duten koreografia itzela da. Nat King Coleren abestiek istorioari tonu berezia ematen diote. Bikote



protagonistak fikzioaren bitartez —euren senar-emazteen portaeraren antzezpenarekin— errealitatea ulertu nahi du, eta, joko horretan, euren maitasun istorioa sortzen da. Ingurune presioak, euren senar-emazteen portaeran erori nahi ez izateak, eta moralitasunari buruzko zalantzek isilpeko maitasuna

izatea bultzatuko dute. Planoen enkoadraketak, momentu askotan, ikuslea, ezkutuan, pertsonaien intimitatea ikusten ari dela ematen du. Gauzak ez dira askorik zehazten, detaile guztiek garrantzia dute amodio istorio malenkoniatsu, misteriotso eta iheskor hau osatzeko eta kontatzeko.



AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

Higiene teknologikoa

Urte batetik bestera teknologia berriei baliatuta gutaz gehiago jakin dezakete erakunde publiko eta pribatu batzuek. Pista asko ematen dizkiegu bankuko txartelaz ordaintzean, telefonoa aldean eramatean, fideltasun txartelaz puntuak lortzean, sare sozialetan jardutean, Interneteko bilatzaileak erabiltzean... Informazio hori guztia gure kalterako erabil daitekeenez, higie-ne neurriak hartzea komenigarria da.

Arlo fisikoan hainbatetan eskuak garbitzen ditugun moduan, ohitura berriak barneratu beharra gaude algoritmoen aurrean. Aplikatzeko errazagoak edo zailagoak diren ondokoak izan daitezke: noizean behin, sakelakoa etxean utzi eta txartelak ez erabili -bankukoa, dendetako, errepideen teleordainketakoa... eta onuran izango genituzkeen zentimoak edo zartagina sakrifikatu-; aldiari behin, Interneten gure ohikotasunetik kanpo dauden gaiak begiratu; sareetan *Atsegin dut* ez sakatu...

Helburua da algoritmoak despistatzea. Jakina, denborarekin jokaera horiek ere identifikatuko dituzte eta higie-ne neurriak egokitu beharko dira, aurreko urtean eskuak garbitzen berriro ikasi genuen bezala.

Urte berri on.

BUKATZEKO

Eskoriatzako doinua duten erloju hotsak

XIX. mendean Gasteizko Santa Maria katedralean zegoen ordularia debagoiendar batek egin zuen; Eskoriatzan jaiotako Francisco de Paula Abaituak. Ez dago argi zer gertatu zen pieza horrekin, baina erlojugilearen lan bat dago ikusgai katedralean


Karmele Uribesalgo ESKORIATZA

Katedral eta elizetako pieza gar-rantzitsuak izan ohi dira erlojuak, baina, normalean, ordulari horien egilea nor izan zen ezkutuan gelditzen da. Arakatzuz gero, ordea, bada informaziorik, eta, batzuetan, sorpresek dator. Horren adibide da Francisco de Paula Abaituaren istorioa. Eskoriatzan jaio zen, 1813an, eta XIX. mendean Gasteizko Santa Maria katedraleko erlojuaren makineria egiteko ardura izan zuen. Hori horrela, 1856tik 1880ra Eskoriatzako marka zuen gasteiztar askorentzat erreferentziakoa zen ordulariak. Behin aldatuta, ez dago argi zer gertatu zen pieza harekin, baina Santa Maria katedralean badago Abaituaren lan bat ikusgai: Elorriaga kontzejuko dorreko erlojuak, hain zuzen ere. Adituek ez dute konfirmatu katedralean egon zen ordulari bera denik, baina adierazi dute garai eta estilo berekoak direla.

Joseba Abaituaren herenaitona zen erloju horien egilea, eta informazio bila aritu izan da azken urteetan. Arabako artxi-boa lagungarri izan zaio, eta senideek kontatutako istorioen bitartez ere argitu ditu zenbait



Katedralean ikusgai dagoen Abaituaren erlojuak. SANTA MARIA KATEDRALA FUNDAZIOA



Erlojuaren planoa. ARABAKO AGIRITEGI ZERBITZUA. ATHA-FHPA-DH-1-11-10.

kontu: "Txikitatik entzun izan diot nire izebari Gasteizko katedraleko erlojuak nire herenaitonak egin zuela".

Francisco de Paula Abaitua Eskoriatzan jaio bazen ere, 1856an bigarren aldiz ezkondu eta Gasteizera joan zen bizitzera. Urte hartan iritsi zitzaion Santa Maria katedraleko erlojuak egiteko agindua. Herenilobak dioenez, Gasteizko Udalak lehiaketa bat antolatu zuen ordulari hori nork egingo zuen erabakitzeko. "Lehenengo deialdian ez, baina bigarrenean lortu zuen lan hori egiteko ardura nire herenaitonak", adierazi du. Bestelako lan batzuk ere egin zituen Abaituak; besteak beste, Arabako Gesaltza Añana eta Luku herrietako elizetako erlojuak.

Erlojuarekin lotura duen familia

"Bitxia eta harrigarria" iruditzen zaio Joseba Abaituari XIX. mendean Eskoriatzan jaiotako herri-ritar bat erlojugintzan aritzea. "Mende mugitua izan zen, odoltsua, eta ez dakit nola, baina herenaitonak erlojuak egiten ikasi zuen; agian, tailerren bat egongo zen Eskoriatza inguruan".

Francisco de Paula ez zen Abaitua familian erlojuarekin harremana izan duen bakarra. Joseba Abaituaren izebak eta aitona, Clemen eta Jose Luis Abaituak, erloju-denda bat izan zuten. Gainera, azken horrek, esaterako, Suitzako erloju marka batekin ikasi zuen ofizioa, Madrilan.


"Ilusioz bizi dut nire familaren istorio hori", aitortu du Abaituak, eta harro kontatzen du herenaitonak egin zuela Gasteizko Santa Maria katedraleko erlojuak.

Zure negozioa ezagutzera eman nahi duzu?

Zatoz **batu-banatu**!

- Banaketa **masiboa**.
- Banaketa **pertsonalizatua**.
- **Kartelak** ipini.
- **Autoz** auto banatzea.

Batu Banatu:
zure publizitate-banaketa, neurririk!



b + b
batu-banatu

www.batubanatu.eus
943 08 10 50 / 688 69 00 07
banaketak@batubanatu.eus